



M8 2019

Greba feministaren eraginez, lantokiak hutsik egongo dira eta kaleak morez jantziko dituzte gaur, Martxoak 8, Emakumeen Eguna. Aldaketarako beste urrats bat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatuz. / 2

M8-ko grebaren bost ardatzak

Pentsionistak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa dira greba feministaren bost ardatzak eta Debagoieneko emakumeek ere bat egin dute deialdiarekin. Greba egiteaz gain, egun osoan antolatatu diren ekitaldietan parte hartuko dute

Amaia Zabala DEBAGOIENA

"Martxoaren 8an emakume, trans eta bolleroak lan guztiak, soldapeko zein doako lanak, egiteari utzi eta kaleak hartuko ditugu", dio Martxoaren 8ko grebaren deialdi ofizialak. Deialdiak gaineratzen du greba feministak bizitzako esparru "guztiei" aurre egiten diela: "Indarkeriari, parekidetasun ezari, prekaritateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanen sexuaren araberako banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, jakintzen hierarkizazioari, arrazakeriari, edertasun kanonari eta zapalkuntza guztiei".

Greba feministak bost ardatz nagusi izango ditu eta horietako bat pentsionistak izango dira.

PENSIONISTA

"JAIKI, MANTALA BALKOIAN ZINTZILIKATU ETA LAPIKO JOTZERA IRTENGO NAIZ"

KONTXI ZELAIA, OÑATI
PENSIONISTA, 66 URTE

Oñatin, esaterako, astelehenero 150 bat lagun biltzen dira pen-

tsionisten eskubideak aldarrikatzeko, baina astelehen honetan "itxura ezberdin bat" eman nahi izan diote elkarretaratzeari: "Salda magiko bat prestatu eta banatu dugu elkarretaratzearen ondoren, Martxoaren 8ko greba eta mobilizazioetarako indarrak emateko eta emakume guztiak greba egitera animatu daitezen", dio Kontxi Zelaiak.

Gaineratu du emakume pentsionistek greba egiteko arrazoi handiak dituztela: "Askok ez dute kotizatze aukerarik izan, soldata arrakala ere hor dago eta emakume alargunen egoera oso txarra da. Nik 66 urte ditut, eta soldata izaten hasi ginen lehen emakumeetako naiz. Zorionez, pentsio onak ditugu, baina solidarizatu egiten gara egoera okerragoan daudenekin".

Zaintza lanak alde batera utziko direla irudikatze, amantalak balkoietan zintzilikatuko dituzte aurtengoan eta Zelaiak ere parte hartuko du horretan. Ondoren, kalera irtengo da, lagunekin batera egun osoko ekitaldietan parte hartuz: "Nik, zorionez, bestela ere ez dut arazorik horretan, baina noizean behin etxean abisua ematea oso

ondo etortzen da. Guk, emakumeok, batez ere adin batetik aurrerakook, oso barneratua baitugu etxean bazkaria prestatzea, garbiketa egitea, eta abar, eta oso zaila egiten zaigu ez egitea. Behin semeak mantala kendu zidan esanez: 'Zu hain feminista, baina beti etxeko lan guztiak zuk egin nahi izaten dituzu'".

IKASLEA

"IKASLEEN PAPER BEHARREZKOA DA, HEZKUNTZAK BADAUKALAKO ZER ALDATUA"

OIHANA ARANA, ESKORIATZA
IKASLEA, 17 URTE

Ikasleak aurtengo greba feministako beste ardatz bat izango dira eta Oihana Arana eskoriatzarra horietako bat da. Arizmendi Ikastolako Almen gunean batxilergoko bigarren maila egiten ari da eta jakinarazi du azken aste hauetan ikasle batzuk boluntarioki grebaren inguruko lanketa egin eta "gelaz gela" informazioa eskaintzen dabilzala: "Gelakideen artean



Kontxi Zelaia, pentsionista oñatiarra. AMAIA ZABALA



Oihana Arana, ikasle eskoriatzarra. OIHANA ARANA

gehiengoak greba egingo du, baina askoz irakasle emakumezko gehiago ditugu, eta iaz, adibidez, haiek greba egin zuten, ez genuen klaserik izan eta ez zen norberaren hautua izan klaser joatea edo ez". Aranak gaineratu du Eskoriatzan hainbat ekintza egingo direla goizetik gauera arte eta berak horietan parte hartzeko asmoa duela: "Grebak dituen helburuak betetzen hasteko, alde batetik, eta feminismoa jende gutxiren kontua dela eta beharrezkoa ez dela dioten guztiei kontrakoa demostratzeko, bestetik".


KONTSUMOA

"GURE LANAK HERRIAN DUEN GARRANTZIAZ KONTURARAZTEA DA HELBURUA"

KONTXI LASKURAIN, ANTZUOLA
DENDARIA, 63 URTE

Kontsumo greba ere deitu dute bariku honetarako, eta horren inguruan lanketa handia egin dute Antzuolan; izan ere, herriko komertzioetako ardura-dunei gutun bat bidali zitzaion grebaren inguruko informazioa





Kontxi Laskurain, Antzuolako dendarien trapu morearekin. KONTXI LASKURAIN

emanez eta bilera batera konbokatuz. Zortzi komertziotako ordezkariek batu ziren -zazpi denda eta ostalari bat- eta bertan erabaki zuten egun osoko greba ez bada ere lanuzteak egitea. Kontxi Laskurain Itzar liburu-dendako nagusia horietako bat da eta honela azaldu du: "Bilera horretan hainbat aukera aztertu genituen eta erabaki genuen lehen orduan irekitzea eta ondoren denda itxi eta elkarrekin 12:00etan elkarretaratzera joatea. Arratsaldean gauza bera, 19:00etan itxiko

dugu elkarrekin manifestaziora joateko".

Laskurainek azpimarratu du herriko denden atzean emakumeak daudela Antzuolan eta euren lanaren garrantzia azpimarratzeko eta herritarrek horretaz "konturartzeko" trapu more batzuk jarri dituztela herriko dendetan. Gaineratu du greba honek emakumeen lana "errespetatu eta baloratzeko" balio duela, bai gizartea, baina baita norberaren burua ere: "Askotan, oztupoak jartzen dizkiogure buruari, ohiturengatik edo izan dugun heziketarik, eta



Luz Marina Ramirez, adinekoen zainzailea. LUZ MARINA



Iratxe Maskarianok Fagorreko salmenten sektorean egiten du lan. IRATXE MASKARIANO

egun honek burua ireki eta kontzientziatzeko balio digu".

ZAINZA

"ZAINZAILE MODUAN KONTRATATZEN ZAITUZTE, BAINA DENETIK EGIN BEHAR IZATEN DUZU, AZKENEAN"

LUZ MARINA RAMIREZ, BERGARA ZAINZAILEA, 61 URTE

2019ko greban, zaintzen gatazka azaleratu nahi dute diskurtso eta ekintzetan bilgune feministek, eta

zaintza mota guztiak hartu dituzte kontuan: etxeak, zaintza lan ordainduak, ordaindu gabekoak eta sistema publikoak kudeatzen dituenak.

Luz Marina Ramirezek, esaterako, adineko pertsonak zaintzen egiten du lan; etxean bertan bizi izan da eta esperientzia txar ugari izan ditu, Bergaran zaindu zituen bi adinekok "oso gaizki" tratatu baitzuten. Familia batetik bestera alde handia dagoela dio, baina orokorrean zainzaileen lana "ez" dagoela baloratua, eta bera bezala atzeritarrak izanez gero, "orduan eta gutxiago" ordaintzen dutela.

Egun, Eibarren egiten du lan Ramirezek eta "oso gustura dago", baldintza "onak" baititu. Gaineratu du, ordea, baimena eskatu duela eta greba egingo duela: "Emakume eta gizaki bezala kalitatezko bizitza bat lortzeko bidean, berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko egingo dut greba. Horretarako, Bergarako Martxanterekek antolatutako egun guztiko ekitaldietan hartuko dut parte".

ENPLEGUA

"HOBETZEN DOAZ BALDINTZAK, BAINA ORAINDIK SEKTORE ETA TOKI ASKOTAN ASKO DAGO HOBETZEKO"

IRATXE MASKARIANO, ARETXABAILETA INGENIARIA, 43 URTE

Azkenik, enplegua izango da bosgarren ardatza eta Iratxe Maskariano Fagorreko ingeniari aretxabaletarrak badu horretan zer esanik. Berak greba egingo du, "alabean baldintzak hobeketa izan daitezkeen etorkizunetan". Fagor enpresan, ordea, bozketa egin dute eta ezekoa irten da: "Kontuan izanda emakumezkoak %11 garena, oso pisu gutxi daukagu eta, gainera, greba deialdiaren arrazoia ez dela ulertu esango nuke: kooperatiban greba egiteak ez duela zentzurik, berdintasuna badagoela... halako komentarioak entzun ditut. Egia da kooperatiban diru-sarrerekin ez dagoela bereizketarik, baina gizartean oraindik asko dago egiteko: zuzendari postuetan emakumezko gutxi dago eta emakumeek haurrak izatea lana bilatzeko oztupoa dela ere asko entzuten da oraindik".

ekidegroup
Berdintasuna lan ardatz

Ingeniaritza+fabrikazioa Kontrol tresnak Ikusmen artifiziala

www.ekide.es

Lan handiaren emaitza ederra

lazko esperientziatik ikasita, baldintza hobeetan egin ahal izan dute lan aurten Martxoaren 8a antolatzen jardun duten Debagoieneko plataformek. Lorpen berriak izan dira bidean, baina baita zailtasunak ere, gizonezkoen rolaekin lotuta, adibidez

Julen Iriondo ARRASATE

"Lehenengo batzarrean elkartu ginen emakume guztiak han ikusteak, horrek ukitu egin ninduen. Zenbat emakume geunden, ze desberdinak, nolako bizipen desberdinekin eta gure gizarte hau aldatzeko ikaragarriko motibazioarekin, ilusioarekin eta indarrarekin; lehenengo batzar hark ikaragarri hunkitu ninduen, ikaragarri"; Arrasateko M8 Plataformako Jasone

Giraldok deskribatzen duen hori izan zen hurrengo aste-hilabete luzeetan egindako hamaika bilera eta lan eskeraren abiapuntu, eta 2018ko Emakumeen Nazioarteko Eguneke olatu hura aldi bakarreko erauntsi izan ez zen demostrazio. Jendea zain zegoen. Laz azken orduan antolatuta eta arrakasta tamainakoa izan bazen, zer behar ote zuen

aurtengoak? Herri bakoitzak egin du bere lanketa. Oñatin garbi izan zuten, hasieratik, aurtengo erronkak behar zuela "jende gehiago sartzea lanean, eta horretarako plataforma sortzea". Eta egin dute. Jardun dute modu antolatuan, baina Maria-sun Zelaiak nabarmentzen du, baita ere, norbanakoek euren kontura egindakoa: "Jende askok

ez du parte hartu plataformako bilertan iristen ez delako, baina inurri lan horrek eman ditu emaitzak, eta jendeak bultzatu du eztabaida gizonekin, lantegietan, etxeetan...".

Beste arrakasta bat: "Aurten lehen aldiz lortu dugu kontaktuan jartzea, adibidez, etxeko lanetan *interna* moduan lan egiten duen jendearekin; lehen, oso zaila zen haiengana iristea. Etorkinak dira, batzuek paperik ez dute, oso egoera larrian daude, euren lana oso gogorra da, eta sare bat sortu dugu eurekin, harremana estutu, eta gerora ere kontaktuan jarraitzeko".

Gauza bera adin batetik aurrerako emakumeekin, haiengana ere iritsi dira: "Badago jende potentea sektore honetan, baina beste batzuek ez dute feminismoarena ulertzen, hitz berezi horiek eta... Baina euren hizkuntza erabiliz-eta, hor aurrera egin da asko".

Zailtasunak ere ez dira falta izan, ordea, bidean: "Koopera-

tibetan, adibidez: "SA diren enpresetan, greba deialdia badago, eskubide osoa du langileak lanera ez joateko, legeak babesten du. Baina kooperatibetan bakoitzak du bere araudia greba kolektiboaren inguruan eta hor ez dugu hainbeste aurreratu Oñatin; badakit Arrasaten-eta egin direla urrats batzuk, emakumeak hasi direlako galdegiten zergatik bozkatu behar duten langile guztiek eta...".

Gizonezkoen rola

Zelaiak dio gizonezkoen rola inguruan sortu direla beste zailtasun batzuk: "Askok eta askok ezin dute onartu momentu honetan euren rola ez dela greba egitea, baizik eta laguntzea eta ahalbideratzea emakumeak kalera irtetea, eurek zaintza lanak hartzea, arduratzea, eta minduta moduan sentitzen dira asko, defentsa jarreran".

Honekin lotuta, kontatzea mezezi duen pasarte izan daiteke Antzuolako plataformako Josune Martinezena: "Laz gizon talde bati eskatu genion manifestazio

GREBAREKIN BAT EGINGO DUZU? ZERGATIK?



MAIDER ARREGI
BERTSOLARIA

"Mobilizazioetan parte hartuta egingo dut bat grebarekin. Parte hartuko dut, bat natorrelako heteropatriarkatu kapitalista suntsitzeko helburuarekin. Eskerrik asko prestaketetan aritu zareten feminista guztioi, eguna despolitizatu ez dadin, iparra erradikaltasunez mantentzeagatik".




AINHOA LARRAÑAGA
IRAKASLEA

"Grebarekin bat nator, baina kezka ere baditut: egoera txarra duten emakumeak, zaintzaile atzeritarrak, adibidez, ez daudelako greba egiteko moduan; badirelako emakumeak greba egin eta euren umeak zaindu beharko dituztenak, beste aukerarik ez dutelako; gizonak greba egin ezin ahal izateagatik".



IZASKUN MOIA
ARABAKO BATZARKIDEA

"Batzar Nagusietan EAJko bozeramaile naizen heinean, ez naiz lanera joango, ez dut etxeko lanik eta zaintza lanik gauzatuko, eta mobilizazioetan egongo naiz. Martxoaren 8arekin gogoratu behar dugu historian hainbat emakumek berdintasunerako egindako lana, eta diskriminazioa salatzen segitu behar dugu".



MARIA UBARETXENA
ARRASATEKO ALKATEA

"Grebarekin bat egingo dut, emakumearen ahalduzaren eta aukera berdintasunaren aldarria adierazteko. Gizarte eraldatzeko beharrezkoa da emakumeak alor guztietan eta toki erabakigarrietan egotea. Emakumeon ahalduzaren ezinbesteko da gizarte aurrerako eta parekidea izan dezagun".



BEGOÑA PEDROSA
UNIBERTSITATEKO DEKANOA

"Gizarteko eta laneko hainbat espazio oso maskulinizatuta daude. Emakumezkoen bizitzako esparru askotan jasotzen dugun diskriminazioa ikusarazi eta aldarrikatu nahi dugu. Behar-beharrezkoa da hezkuntzako hasierako etapetik eragitea, etorkizuneko belaunaldiak beste era batera antola daitezen".



Emakumeak eskutik helduta, Elorregira egindako martxan. IMANOL SORIANO

osterako jateko-eta zerbait prestatzeko. Aurtan, ordea, pentsatu genuen ezer ez esatea, ea eurei sortzen zitzaion. Orain arte inor ez zaigu etorri, baina azken orduan deitu digute esateko talde batek prestatuko digula aurtan ere zerbait. Poztu gaitu".

Antzuolan, grebarekin lotutako azalpenarekin-eta enpresetara, komertzioetara, eskolara eta udaletxera gutunak bidaltzeaz gain, herrian informazioa zabaldu nahi izan dute: "Ipini ditugu gai desberdinei buruzko kartelak kalean, eta baita bi panel ere, argazkiekin, grafikoekin eta datuekin, eta aste honetan egun bakoitzean leku desberdin baten jarri ditugu".

Josune Martinezek bereziki azpimarratzen du "belaunaldiarteko taldea" dela Antzuolan sortu dena: "Gazteak eta ez hain gazteak gaude, pentsionistak ere bai, eta horrek ikuspegi zabalagoa edukitzeko aukera eman digu. Iaz gehiago zentratu zen Andramanueletan; talde feminista gaztea da. Belaunaldi askotariko jendea egotera, iritzi

desberdinak ditugu hainbat gauzatan, eta lan egiteko modu desberdinak. Eta hori oso aberasgarria izan da". Herri guztietako plataformetako ordezkariak nabarmentzen dute hori, balioan jarriz garrantzitsuenak diren gauza horietan ados jartzeko eduki duten gaitasuna.

Aurtengo greba eguna antolatzeke baldintzak iazko Martxoaren 8koak baino hobekak izan direlakoan daude plataformetako kideak; Arrasatekoa, adibidez: "Iazkoak oso deskolokatuta harapatu gintuen, eta oso emakume gutxiren artean antolatzen, eta, hala ere, izugarritzko arrakasta izan zuen, nahiz eta gauza batzuk geratu ziren landu barik", dio Jasone Giraldok.

Eta Arrasatekoen aurtengo asmoa izan da "zabaltzea grebaren antolaketa herriko emakume guztiei, emakumeek gauzak egiteko gogoia zutelako; hori ahalbideratu behar genuen". Eta lortu dute lortu, 100 lagun inguru ibili baitira gaurko egunaren prestaketetan -Oñatin 30 bat finko eta Antzuolan 20 inguru-

Eta beste batzuegana iristeko bakarrik ez, feminismoaren gainean, ideologikoki, bakoitza janzteko ere oso baliagarri izan da egindako bidea: "Neuk ere pila bat ikasi dut, neure buruan ere baziren zalantzak".

Emozioekin hasi eta emozioekin bukatu, gaur arte egindako bideak hainbat eta hainbat sentipen eragin dituelako borroka honen parte sentitzen diren emakumeengan: "Kaleko tentsazioak, batekin elkartu eta txapa eskatzen dizunean; besterik gabe, txapa eskatzen dizunean edo besokoa ematen diozunean, eskutik heltzen zaituenean emakume batek, berdin da zein adinetakoak; eskutik heltzen zaitu eta estutu egiten dizu. Horrek niri dena esaten dit, eta horrekin geratzen naiz ni".

Eta gaurkoa beste mugarri bat baino ez da izango; hala aitortzen du Giraldok: "Hainbeste izan dira proposamenak, une batean frenoari eman behar izan diogu. Aurreragorako gorde ditugu beste ideia baliagarri batzuk, datozen aldiatarako".



LIERNI ALTUNA
ARAMAIOKO ALKATEA

"Greba egingo dut, uste dudalako gizarte honetan desabantaila dela emakume jaiotzea, bikoitza demostratu behar izaten dugula, lan batzuk egozten zaizkigula ia emakume izateagatik bakarrik eta, gainera, ez direla baloratzen. Denok gara pertsonak, eta hala tratatuak izan beharko genuke, edozein kondiziotakoa izanda ere".



VANESSA SANCHEZ
KAZETARIA

"Grebarekin bat nator. Planto egitea emakumeek jasaten duten diskriminazioa erabat azaleratzea da eta diskriminazio hori amaitzeko pauso tinko bat ematea da. Greba egunetan, gainera, ederra eta indartsua da batasuna; hori beharrezkoa da berdintasuna lortzeko, baina bai gaur, eta bai datozen egunetan".



RAFAELA ROMERO
LEGE BILTZARKIDEA

"Mugimendu feministaren argudioekin bat egiten dut, antolatutako ekimenekin ere bai. Ez dugu lortutako eskubideetan atzerapausorik onartuko, gizarte eredu berri batean sinesten dugulako, bizi iraunkorrean oinarrituta, pobrezia feminizatuaren eta emakumeen aurkako biolentziaren kontra".



AMAGOIA LASAGABASTER
SINDIKATUKO LANGILEA

"Emakumeen enplegua gaizki ordaindua da, ez errekonozitua; eta, oro har, falta da asko genero-aukera-tratu berdintasunera iristeko. Greba horregatik babesten dut, besteak beste. Pikete informatiboetan ibiliko gara, eta hainbat emakume bazkaria egingo dugu, geuk jatekoa eramanda".



MAITE ARISTEGI
BASERRITARRA

"Baserriko lanetan planto egingo dut, animaliekin ezinbestekoetan izan ezik. Egund osoan egongo diren ekintzetan ibiliko naiz. Eskubide berdintasuna behar da, eta, kapitala barik, pertsonak eta natura lehenestea. Elikadura osasuntsurako, nekazaritza eta kontsumo politika berriak behar ditugu".

Heteropatriarkatu kapitalistari planto! Bizitzak erdigunean!

M8 Greba feminista

M9 Emakume artisauen azoka

M9 'Letter to the world' Munduko emakume konpositoreak

M10 'Bakean dagoena bakean utzi' Antzezlanak

M6 eta M13 Zinhegoak Hedapena

M26 'Neoextractivismo y patriarcado colonial: una mirada desde el feminismo del sur'



'Bizitzak erdigunera' leloari babes zabala

Aldundiak eta udalek babesaz azaldu diote M8-ko greba feministari, eta herritarrak ekintzetan parte hartzera deitu dituzte; ikastetxeek greba egingo dute eta ospitaleak gutxiengo zerbitzua eskainiko du. Komertzio batzuk ere itxiko dituzte

Aste osoan izango dira ekitaldiak

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta ekimen ugari antolatuta dituzte eskualdean aste osoan; besteak beste, nabarmentzekoa da Aresko saskibaloia taldeak hirugarrenez antolatu duen Aresko martxa, non Idoia Elexpuru eta Lydia Garcia omenduko dituzten. Bestetik, *Emakumeen biharra*, Bergarako komertzioetako 27 emakume protagonista izango dituen erakusketa, zeina ikusgai izango den martxoaren 24ra arte.



lazo erakusketaren irekiera. GOIENA

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere bat egin dute Martxoaren 8ko greba feministarekin, eta adierazpen instituzionala kale-ratu dute hori adierazteko.

Debagoieneko udalak

Aldundiaz gain, udalek ere bat egin dute grebarekin, eta, Debagoienaren kasuan ere, udal guztiek adierazi dute grebarekiko atxikimendua. Aramaiori, Arrasateri eta Antzuolari dagokienez, esaterako, alkateek ere greba egingo dute. Elgetan udaleko langile emakumeen %97k egingo dute greba, eta, horren ondorioz, udaletxean harrera bakarrik egongo da zabalik eta ludoteka eta liburutegia itxita egongo dira. Oñatin, kultur etxea eta gaztelekua itxita egongo dira eta kiroldegia, aldiz, zabalik. Bergaran, Agorrosin kirolgunea, liburutegia, ludoteka eta Udalak eskaintzen dituen beste hainbat zerbitzu itxita egongo dira.

Ikastetxeak ere greban

Ikastetxe gehienetan ere greba egingo dute, eta, horretaz gain,

berdintasunarekin lotutako hainbat jarduerara egin dituzte aste osoan. Bestalde, Arrasaten, esaterako, Txatxilipurdi Elkar-teak gizonetzkoen zaintza komunitarioa antolatu du, "ahalik eta emakume gehienek parte har dezaten mobilizazioetan". Zerbitzu hori Monterron parkean eskainiko dute 11:00etatik 20:30era, eta, euria bada, berriz, erdiguneko gaztelekuan. Gainera, bertan bazkaltzeko aukera izango da.

Debagoieneko Ospitalea

Arrasateko ospitaleak gutxiengo zerbitzua eskainiko du, eta baita herrietako anbulatorioek ere; hala, jaiegunetan bezala funtzionatuko dute.

Komertzio, taberna, enpresa...

Antzuolari eta Oñatiri dagokienez, eguerdiko elkarretaratze-rako eta arratsaldeko manifestazioerako, taberna eta dendak itxi egingo dituzte. Oñatin, esate baterako, Natra Zahor enpresak itxi egingo dute eta Ulmak ere greba egingo du. Eroski ere itxi egingo dute Oñatin eta Arrasaten esaterako.

Emakume eta gizonetzkoen arteko parekidetasunaren alde

Bergara • metagra • México • Group

ezker anitza

Dena eraldatzeko: feminismoa.

EGITARAUA

MARTXOAK 8

BERGARA Zarata ateratzera
Auzoetara joango dira eta autokarabanak egingo dituzte.
San Martin plazan, 10:00etan.

ANTZUOLA 'Amantalei planto!'
Kalejira, soinu-joleekin eta txistulariekin.
Herriko plazan, 10:00etan.

ESKORIATZA Gosaria
Feminismoa Bizirik taldekoen eskutik.
Kultura etxeko sukaldean, 10:00etan.

ELGETA Plaza apaindu
Informazio puntua egongo da eta apaingarriak ipiniko dituzte
Mendizaleen plazan, 10:00etan.

ARAMAIO Herria girotzen
Musikarekin ibiliko dira.
Bizente Goikoetxea plazatik, 10:30ean.

ANTZUOLA Gosaria
Norberak eraman behar du.
Herriko plazan, 10:30ean.

ELGETA Bandera moreak ipini
Emakume Erresistenteen plazan eta La Belga posizioan.
Bi lekuetan, 10:30ean.

ARETXABALETA Informazio lekua
Musikaz girotuko dute.
Herriko plazan, 11:00etan.

LEINTZ GATZAGA Apainketa
Herria apainduko dute.
San Migel plazan, 11:00etan.

LEINTZ GATZAGA Film emanaldia
Ostean, tertulia egingo dute.
Kultura etxean, 12:00etan.

DEBAGOIENA Elkarretaratzeak
Leintz Gatzagan izan ezik, gainerako herri guztietan.
Herri bakoitzaren arabera lekuak.

DEBAGOIENA Bazkaria
Bazkari autogestionatuak herri guztietan, Aretxabaletan izan ezik.
Herriaren arabera.

ESKORIATZA Ekintzak
Irakurketak, poesia, musika...
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

ELGETA Ekintzak
Tertulia, koaderno morearen irakurketa, mahai-jolasak...
Bazkariaren ostean.

ARAMAIO Bingo-kafea
Ostean, musika, tertulia...
Sastiñan, 16:00etan.

OÑATI Kafe tertulia
Irekia.
Foruen plazan, 16:00etan.

DEBAGOIENA Elkarretaratzeak
Eskoriatzan (18:00) eta Elgetan (19:00) egingo dituzte.
Herriaren arabera lekuak.

DEBAGOIENA Manifestazioak
Arrasaten (19:00), Aretxabaletan (19:00), Bergaran (19:00), Oñatin (19:00) eta Antzuolan (19:15).
Herriaren arabera lekuak.

ARAMAIO Kalejira
Ostean, dantza emanaldia.
Kultura etxetik, 19:30ean.

ARETXABALETAKO Frontenis txapelketako finalak
UDAREN txapelketaren azken norgehiagoka.
Pilotalekuan, 20:30ean.

ESKORIATZA Afaria
Norberak eramandakoarekin.
Pilotalekuan, 21:00etan.

MARTXOAK 9

ARRASATE Emakumeen azoka
Artisauen postuak.
Seber Altuben, 10:00etan.

OÑATI Emakumeen azoka
Artisauen postuak.
Foruen plazan, 10:00etan.

ARAMAIO Bazkaria
Emakume Asteko bazkaria.
Añai tabernan, 14:00etan.

OÑATI 'Letter to the world'
Hots abesbatza, Ganbara Gazte, Txiki eta Txikitxo taldeak.
Santa Anan, 19:00etan.

ARAMAIO 'Alani' pelikula
Ikusiz Gozatu-ren eskutik.
Kultura etxean, 21:00etan.

MARTXOAK 10

ARETXABALETA Aresko martxa
Emakumeendako lasterketa irekia.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA 'Anarkia relacional' antzezlana
Mila Espiga eta Belen Cruz aktoreekin. Sarrerak, lau euro.
Zaldibarren, 19:00etan.

OÑATI 'Bakean dagoena, bakean utzi' antzezlana
Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai aktoreekin.
Santa Anan, 19:30ean.

MARTXOAK 12

ARRASATE 'Artean 3' erakusketa
Emakume sortzaileek egindako lanen bilduma.
Kulturaten, 18:00etan.

BERGARA 'Emakumeen eta antifrankista, zigor bikoitza' hitzaldia
Irekia.
Irizarren, 19:00etan.

MARTXOAK 13

ARRASATE Liburu aurkezpena
1976ko martxoaren 3ko sarraskiko emakumeei buruzkoa.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA Zinekluba
Girls rising pelikula dute.
Zabalotegin, 19:00etan.

OÑATI Zinegoak
Indarkeria eta errefuxiatuak.
Kultura etxean, 19:30ean.

Gizartearekin bat aurrera

ULMA

Grupo ULMA, S. Coop. Garagaltza Auzoa 51, 22 P.K. 20560 Oñati (Gipuzkoa) T 943 25 03 00 www.ulma.com grupoulma@ulma.com

MARTXOAK 8

greba feminista

ehbildu



**Gaur,
lantokia hutsik**



Gaurko, Martxoak 8, Emakumeen Eguna, antolatu den grebarekin bat egin dugu Goienako langileok. Halaxe erabaki dugu Goienako emakume langileok, eta gizonezkook ere batu gara grebara.

Horrenbestez, *Goiena.eus*-ek eta Goiena telebistak ez dute ohiko informazioa emango.

Gizonez osatutako lantaldea eratu da zerbitzu minimoak betetzeko eta greba egunak Debagoiengan eman duenaren berri emateko, bai sarean eta baita telebistan ere.

Goienako langileok gizarte parekideago batean sinisten dugu. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean, azken urteotan bereziki emakumeen

taldeek eta baita bestelako gizarte eragileek eta erakunde publikoek egindako ahaleginari esker, agenda mediatiko eta politikoaren erdi-erdian dago parekidetasunaren gaia. Baita Goienan ere.


Horregatik, gaur, Martxoak 8, laneko zereginak utzi eta kalera irten gara.

Birziklatze tasa handiena duena, Debagoiena

Europar Batasunak 2020rako jarritako birziklatze tasa gainditu du Gipuzkoak, eta Debagoiena da birziklatze tasa handiena duen eskualdea: %77,7. Era berean, birziklatze tasak behera egin duen eskualde bakarra da: 1,43 puntu behera

Gaikako bilketa Gipuzkoan

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Mankomunitateak (2018)

DEBAGOIENA	%77,7
SASIETA	%74,2
UROLA ERDIA	%66,6
TOLOSALDEA	%65,4
UROLA KOSTA	%65,0
DEBABARRENA	%51,4
TXINGUDI	%51,2
SAN MARKO	%49,3

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eman dituen datuen arabera, Gipuzkoan, Debagoiena da birziklatze tasa handiena duen eskualdea: %77,7. Horrekin batera, birziklatze tasen igoera mankomunitate guztietan gertatu da, baina ez da Debagoienan horrela izan. Izan ere, 1,43 puntu egin du behera.

Kontzientziazio kanpaina

Horrek ez du esan nahi datuak txarrak direnik, baina, hondakinak hobeto sailkatzeko helburuarekin, kontzientziazio kanpaina jarri zuen abian urtarrilean Debagoieneko Mankomunitateak. *Kalitatez bereizi, hondakinak sailkatu* izeneko kanpaina, hain zuzen ere. Oker egiten diren joera batzuk aldatzea eta hondakinen kudeaketa era arduratsuan egitea da egitasmoaren funtsa, Debagoienak eredu izaten jarrai dezan.

Kanpaina horretan, esaterako, frakzio bakoitzean zein hondakin sartzen den, eta zein ez... mota

horretako zalantzak argitzeko eskuorriak banatu zituzten ibarreko etxe guztietan; hondakinak biltzeko hainbat puntutan, bestalde, formakuntza eskaini zuten. Horrekin batera, atarrietan kartel informatiboak jarriko dituzte aurrera begira, eta sare sozialen bitartez bideoak, gif-ak, eta abar zabalduko dituzte.

Helburuak bete ditu Gipuzkoak

Europar Batasunak 2020rako jarritako birziklatze tasa gainditu du Gipuzkoak. Izan ere, Diputazioaren 2018ko txostenaren arabera, hondakinen %52,41 birziklatu dira. Helburuak bi urte lehenago gainditu diren arren, hondakin mota batzuetan oraindik lan egin beharko dutela adierazi du.

DEBAGOIENAK EREDU IZATEN JARRAI DEZAN KONTZIENTZIAZIO KANPAINA MARTXAN DA URTARRILETIK

razi dute Diputazioak, ontzien birziklatzean eta bio-hondakinetan oraindik ez da-eta helburua lortu.

Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak adierazi duenez: "Hiri-hondakinen bilketa eta birziklatzeari buruzko 2018ko datuak oso onak dira. Erakusten dutelako Gipuzkoan aukeratu dugun eredu egokiena dela gure lurraldean sortzen diren hondakinei tratamendua emateko". Gaineratu du 2018ko datuek baieztatu egiten dutela joera hori: "2018ko datuek baieztatzen dute 2015-2018ko epearen joera; izan ere, birziklatzea 10,15 puntu igo da, orain lau urte %42,26koa zen eta gaur egun 52,41ekoa". Gipuzkoako Ingurumen Gunearen azpiegiturak martxan jartzen direnean eta gaikako bilakaerari esker datuak hobetu egingo direla azpimarratu zuen Asensio: "Gipuzkoak epe laburrean gaindituko du birziklatzearen %60, Europako herrialde aurreratuek bezala".

Isaias Carrascori omenaldia egingo diote zapatuan

Hamaikagarren urtez egingo diote omenaldia Navas de Tolosa kalean ETak erail zuen zinegotzi sozialistari

I.B ARRASATE

Navas de Tolosa kalean 2008ko martxoaren 7an erail zuen ETak Isaias Carrasco zinegotzi sozialista izandakoa, eta leku horretan egingo diote omenaldia zapatuan, 12:00etan. Aurtengoa hamaikagarrena izango da.



lazio omenaldiko lore eskaintza. GOIENA

Aitortzaren osteko lehena

Iaz, hamar urte bete ziren Isaias Carrasco hil zutenetik, eta, urtero egiten dioten omenaldian EH Bilduko ordezkari izan zen lehen aldiz. Horrez gain, azaroaren 24an, Arrasateko udaleko alderdi guztien babesarekin aitortza hunkigarria egin zioten udaletxeko osoko bilkuren arloan.

Zapatuko ekitaldian, familiakoez gain, herritar ugari eta ordezkari politikak zabala izango dela aurreikusten dute. Bertan izango den ordezkari sozialistaren

artean, besteak beste, Eneko Andueza PSE-EEko legebiltzarkide eta Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusia izango dela jakinarazi dute. Horren harira, otsailean hil zen Paco Garcíaren hutsunea sumatuko dute bertan batzen direnek.



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA

OHIKO BATZAR NAGUSIA

EGUNA: 2019ko martxoaren 10ean, igandean

ORDUA: Lehen deialdia 11:45ean
Bigarren deialdia 12:00etan

TOKIA: Kulturateko areto nagusian

GAI ZERRENDA

1. Batzar nagusiko akta onartuko duten bi bazkide hautatzea
2. 2018ko kudeaketaren txostena
3. 2018 ekitaldiko kontuen azalpena, eta, hala balegokio, onartzea
4. LKS Auditores-ekin egindako hitzarmena onartu
5. 2018ko txosten aktuariarioa
6. Aurtengo sarreraren eta gastuen aurrekontua
7. Zuzendaritza Batzordeko kideen berriro
8. Gaide-erreguak

Arrasaten, 2019ko martxoaren 8an

Adingabeen zentro batean dago hildako jaioberriaren ama

Domeka arratsaldean atxilotu zuten 17 urteko neska, eta ospitalean senda-agiria jaso ostean fiskaltzaren esku utzi zuten. Erditzea nola izan zen ikertzen jarraitzen dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Adingabeen zentro itxi batean dago Arrasateko Galizia kalean hilda aurkitutako jaioberriaren harira atxilotutako 17 urteko neska. Ertzaintzak egindako ikerketak ondorioztatu du atxilotutako neska hildakoaren ama biologikoa dela -hori konfirmatuko duen azterketa biologikoa falta da-. Domeka arratsaldean atxilotu zuen Ertzaintzak 17 urteko adin txikikoa, eta Debagoieneko ospitalera eraman zuten, han artatua izateko. Martitzenean jaso zuen senda-agiria. Gipuzkoako adingabeen fiskalak galdeketa egin ostean, adingabeen zentro batean sartzeko agindua eman zuen martitzenean bertan.

Auzotarrak hunkituta daude Neska Nafarroan bizi dela adierazi dute, baina sarri etortzen zela Arrasaten bizi den amona bisitatzeri; hain zuzen, asteburua bertan pasatu zuen. Erditze unearan nondik norakoak jakiteko ikertzen jarraitzen du Ertzaintzak.

Arrasateko Santa Teresa gune bizilagunak domeka eguerdiko gertaera "ezin sinetsita" daude, halakorik etxetik horren gertu gertatuko zenik ez zutelako "inondik inora espero". Lehenengo momentutik gertaeren lekuan zegoen bizilagun batek GOIENARI kontatutakoaren arabera: "[Domeka] goizean, iratzartu bezain laster ertzainak kalean zebiltzala ikusi dut. Lehenik eta behin, anbulantzia ikusi dugu eta gero, ertzainak heldu dira. Auto baten azpian haur bat zegoela entzun dugu, eta erreanimatzen saiatu direla. Ikertzen ari dira ea inguruan edo auzoan haurdu zegoen emakume bat dagoen edo bertako norbait izan zitekeen. Asal-

datuta dago auzoa, hau ez delako normala, eta auzoa hunkituta dago". Hain zuzen, hitz horiek ziren gainerako auzotarren ahotan ere: "Sorpresa eta harridura, ez dugulako uste horrelakorik pasa litekeenik. Hunkituta gaude gertaerarekin". Izan ere, domeka eguerdian hedabide guztiek Arrasateko Galizia kalean jarri zituzten fokua.

Autopsia egin diote gorpuari Gogora ekarri behar da neskato jaioberriaren gorpua, plazenta eta guzti, domeka eguerdian aurkitu zuela txakurrarekin paseoa zebilen auzotar batek. Larrialdi zerbitzuei abisua pasa zien auzotarrak; horiek lekura iritsi eta jaioberria suspertzen ahalegindu ziren, baina ezin izan zuten ezer egin. 16:30ean, eta epailearen baimena jaso ostean, altxatu eta eraman zuten jaioberriaren gorpua. Astelehenean, autopsia egin zioten gorpuari, noiz jaio zen eta zela hil zen ikertzeko.

Adingabeen Zuzenbide Penala Adingabeen zentro batean dago 17 urteko neska, eta Adingabeen Zuzenbide Penala aplikatuko zaio. Adingabeen Epaitegiak epaituko du, eta epaitegiak erabakiko du zein izango den jarriko dioten neurria. Erabakitze dago fiskaltzak hilketa egotziko dion edo ez; gainera, zirkuntantzia aringarriak kontuan izaten badituzte, neurria arinagoa izan daiteke.

ADINGABEEN ZUZENBIDE PENALA APLIKATUKO ZAIO ATXILOTUTAKO 17 URTEKO NESKARI



Ehorzetzeko autoa, gorpua jasotzeko gertu. IMANOL SORIANO




Gure ikasleen ahotan



Definitu zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik? Lehen Hezkuntzatik batxilergora Euskal Eskola Publikoan burutu ditut nire ikasketak. Nire zaletasunak dira kirola egitea, bidaiatzea, beste kultura batzuk ezagutzea eta baita musika, dantza eta zinema ere. Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea? Gradua aukeratzeko orduan ikusi nuen Ikus-entzunezko Komunikazioak nire gustukoak diren irtenbide profesional ugari zituela, eta arlo asko jorratzen zituela -telebista, zinema, irratia, aldizkaria, argazkilaritza,

“Talde-lana eta praktikotasuna azpimarratuko nuke”

Anixe Uribarren (22 urte, Arrasate). Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (Huhezi), Aretxabaletan.

kamera aurreko lana, atzekoa...-. Horrez gain, Mondragon Unibertsitatean proposatu zidaten metodologiak erakarri egin ninduen, eta baita motibatua ere; horrela hasi nintzen gradu hau ikasten. **Nola balioetsiko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia?** Oso positiboa izan da niretzat; alde batetik, ikasi dudana eginez ikasi dudalako eta, bestetik, zentzuzko proiektu errealek burutu ditudalako. **Nola definituko zenuke Huhez in jasotzen duzun ikasteko metodologia?** Jasotzen ari naizen metodologia definitzeko, azpimarratuko nuke talde-lanari ematen zaion garrantzia eta pisua. Proiektuen emaitza beti da denon ardura. Bestetik, aurrez azaldu dudana bezala, metodologia praktikoa da; hau da, gauzak eginez

ikasleak dira, teoria praktikara eramanez. **Unibertsitateak zer gustatzen zaizu gehien? Eta ezer hobetzeko?** Goraipatuko nukeen ezaugarri nagusia da irakasleek ikasleekiko duten hurbiltasuna; arazoan aurrean laguntza emateko prest azaldu dira, behar izan den guztietan. Gustatzen zaidan beste ezaugarri bat da askotan eskolak ematera etortzen direla ikasten ari garen arloan benetan lanean ari diren pertsonak, beraien esperientziak gurekin partekatzea. Horrek gure ikasketa prozesua aberastu egiten duela uste dut, eta hurbiletik ikus ditzakegu gure etorkizuneko lanbide posibleak. Bestalde, hobetzekoetan, esango nuke campusa txikia dela eta isolatuta dagoela, eta, horren ondorioz, ez dago oso giro unibertsitariorik.

"Azken urtean alderdia baretzea lortu dugu"

LANDER MARTINEZ AHAL DUGU-KO IDAZKARI NAGUSIA

Goiena telebistako 'Harira' saioan izan da Martinez; bi hauteskundeetan Irabazirekin batera aurkeztuko direla aurreratu du, Elkarrekin Podemos markarekin

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

15 hilabete daramatza Lander Martinezek Ahal Duguko idazkari nagusi karguan.

Zein izan da unerik gogorrena denbora tarte horretan?

15 hilabete nahiko lasaia toka-tu zaizkit. Alderdiaren asmoetako bat alderdia bera baretzea izan da epe honetan, eta nik uste dut lortu dugula. Barne kontuei dagokienez, azken urte lasaia izan dugu, Euskadi mailan, behinik behin. Bestalde, orain, hauteskundeetarako prestaketa lana ere gogorra izaten ari da, baina ez negatiboki, lan asko daukagulako baizik. Hala ere, motibazio handia pizten digute hauteskundeek.

Pedro Sanchezek hauteskundeak aurreratu izanak ustekabean harapatu zaituzte?

Ez. Udazkena ezkerer bagenekien aukera zegoela horretarako. Aurrekontuaren baitako eztabaida ez zihoan ondo, Kataluniako gatazkan Alderdi Sozialistak ez zituen ematen eman beharreko pausoak, eta horrek blokeatu egiten zituen aurrekontuaren gaineko akordioak. Beraz, gu hasieratik prestatu ginen. Gure zerrendak abendurako osatuta genituen.

Gobernu laburra izan da Sanchezena. Ze balorazio egiten duzue?

Gazi-goza. Akordio garrantzitsu batzuk lortu ditugu; adibidez, gutxienezko soldata 900 eurora igotzea edota aitatasun baime-naren gainekoa. Pentsioei buruz ere hitz egin dugu, nahiz eta negoziazioak ezerezean geratu diren, Alderdi Sozialistak azkar eta gaizki lortu nahi izan duela akordioa. Baina oso aurrekontu soziala lortu genuen. Pena da azkenean aurrera eramanez izana. Argi geratu dena da Unidos Podemosek aldaketa sozialean eragiteko gaitasuna daukala.

Zuentzat ona da hauteskunde orokorrak foru eta udal hauteskundeen aurretik izatea?



Lander Martinez, Goiena telebistako platoon. ENEKO AZKARATE

"40 URTETAN OSO MOTEL ERAIKI DEN GUZTIA ERAITSI DEZAKE ESKUINEKO BLOKEAK"

Zaila da jakitea. Hain ezegonkortasun politiko handia egonda, ez dakizu zein efektu sortuko duten hauteskundeek. Niri, gustatuko litzaidake hilabete hauetan foru eta udal hauteskundeetan zentratzea, eta gure herrietan gertatzen ari diren gauzen inguruan hitz egitea. Baina garbi dago hor estatuko eztabaidak zati handi bat jango duela. Argi dago garrantzitsua dela hauteskunde orokorretan emaitza on bat lortzea, udal eta foru hauteskundeetarako karpaina on bat egiteko.

Zein puntutan dituzue zerrendak Debagoien mailan?

Arrasaten, adibidez, Igor Urizar izango da gure alkategaia. Gai nontzeko herrietan, Bergaran, Eskoriatzan edota Aretxabaletan, adibidez, Equok eta Ezker Anitzak badituzte zinegotziak. Beraz, haiek hartu behar dute inzia-

tiba. Guk gurea eginda daukagu, eta orain, Ezker Anitzak eta Equok euren ordezkariak sartu behar dituzte herri ezberdinetan. **Gipuzkoako Batzar Nagusietan sei batzarkide dituzue egun. Zein da zuen helburua?**

Inkestak ikusita, helbururik errealistena sei batzarkide horiek mantentzea izango litzateke, eta akzio politikoan jarraitzea.

Nola ikusten duzue eskuin muturraren gorakada?

Kezka handiarekin. Ez da bakarrik Vox agertu izana. Alderdi honek eskuineko alderdien agenda markatzen du; PPren agenda, zehazki. Alderdi Popularra erabaki oso txar bat hartzen ari da eskuin muturrera begiratz. Horrek atzerakoia den bloke argi batera garamatza. 40 urtetan oso motel eraiki den guztia eraitsi dezake eskuineko blokeak, eta horrek, noski, eragina izango du Euskadin ere.

Greba egingo duzue gaur?

Mugimendu feministak eskatu duena izan da emakumeek greba egitea eta gizonak, ahal duten heinean, eguna eskatzea zaintza lanak egiteko. Nire kasuan, zaintza kargarik ez dudanez, Legebiltzarrerara joango naiz.



Arrasateko Garaia Gunean atzo egin zuten bilera. MAIALEN REGUEIRO

'SZukaldatzen LAB' ekimena aurkeztu dute Garaia Gunean

Gipuzkoako egosketa industriako enpresen elkarlaneko berrikuntza laborategia da martxan jarri dutena

E.A. DEBAGOIENA

Gipuzkoako enpresa ezberdinen artean elkargune izateko helburua duen **SZukaldatzen LAB** ekimena aurkeztu zuten atzo, eguna, Foru Aldundiak eta hainbat enpresak Arrasaten.

ACEDE Etxeko Klusterrak diseinatu du plataforma eta Diputazioaren babesa ere jaso du. Horrez gain, hainbat erakunde ekimenean parten hartzen ari dira; besteak beste, ALZA, Copreci, Fagor Elektronika eta Centro Stirling.

Ainhua Aizpuru Ekonomia Sustapeneko diputatuak azaldu duenez, Aldundiak ezarritako apustu estrategikoetan, gastronomiari lotutako garrantzitsuetakoa da. "Gipuzkoak baditu indargune batzuk gastronomia arloan. Industria bat badugu, Basque Culinary Centerreko fakultate bat ere bai, baita hainbat eragile eta elkarte ere".

Aizpuruk, gainera, transformazio digitala izan du hizpide eta azpimarratu du gastronomian digitalizazioak eragin zuzena izan duela.

Mondragon Componentes-ko berrikuntza zuzendari Jabier Aranzetak dio ekimen horretan parte hartzeak beste enpresa batzuekin harremanak sortzea ahalbidetu diela. "Helburua da bailarako enpresen arteko loturak sakontzea eta indartzea".

Eguneratu eta aurrera begiratu Garaian egindako saioaren arrazoia izan da orain arte egindako lanaren eta hemendik aurrera egin beharrekoaren aurkezpena egitea, Xabier Gorrotxategi ACEDEko zuzendariaren esanetan. "Perspektiba eman nahi izan diegu lantaldeari eta Aldundiko ordezkariari, zer egiten ari garen eta nora goazen jakiteko", nabarmendu du.

Langabezia-tasak zertxobait behera egin du otsailean

Debagoieneko langabezia-tasa %8,04an geratu da otsailean, urtarrileko tasarekiko 0,22 puntu azpitik. Hala, 2.507 pertsona zeuden lan barik hilabete bukaeran bailaran.

Joera beheranzkoa izan da herri guztietan, Arrasaten eta Leintz Gatzagan izan ezik; eta bi herri horiek dira, hain zuzen, bailarako langabezia tasarik

altuena eta baxuena dituztenak, hurrenez hurren.

Egoerak hobera egin du, beraz, bailaran urtarriletik otsailera eta baita iazko urtetik hona ere. EAera salto eginda, kasu horretan ere datuek hobera egin dute hilabeteko epean; ez, ordea, Nafarroan. Hego Euskal Herriko datuak orokorrean hartuta, otsaileko egoera urtarrilekoa baino hobea izan da. Modu horretan, Hego Euskal Herriko langabezia-tasa %11,54koa izan da otsailean.

Hiru urterako hitzarmena erakundeek eta hedabideek

Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Hekimen elkarteak euskarazko hedabide ez publikoen jarduera diruz laguntzeko hitzarmen bat sinatu dute; erakundeek 10,5 milioi bideratuko dituzte urtero hedabide horietara

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Eusko Jaurlaritzak eta hiru aldundiek 10,5 milioi euro jarriko dituzte, urtero, euskarazko hedabideak laguntzeko; orain arte jartzen zutena baino 3,1 milioi euro gehiago, hain zuzen.

Hitzarmenean adostu dutenez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek beren lurraldeetako idatzizko hedabideak sustatzeko eta diruz laguntzeko ardura hartuko dute. Eusko Jaurlaritzak, bestetik, euskaren lurralde osoa hartzen duten izaera nazionalako hedabide orokorrak eta espezializatuak babestuko ditu, baita lurraldeetako telebistak, irratiak eta In-



Erakunde publiko eta euskarazko hedabideetako ordezkariak astelehenean. IREKIA

ternet bidezko komunikabideak ere. Eredu berri horrek aldaketak ekarriko ditu erakundeek hedabideak laguntzeko egingo dituzten ekarpenen aldetik.

Hitzarmenak ez du diru-kopururik zehazten, baina erakundeek urtero 10,5 milioi euro jartzeko konpromisoa hartu dute 2019-2021 epealdirako; horietatik, Jaurlaritzak 7,8 milioi euro jarriko ditu. "Ez dakigu zenbat jasoko dugun, baina, guk aurkeztutako datuen arabera, enpresaren gastuen %30 izango da gehienez laguntza bidez jasoko duguna. Zenbat diru jasoko duen dakien bakarra *Berria* da, hitzarmen propio bat egin duela. Gure eredu desberdina izan da, eta dirulaguntzak hiru poltsatan banatzen dira: hedabide digitalak, berezituak eta toki-koak. Hiru poltsa horietan kopuru maximo batzuk daude eta horren arabera banatuko da dirua", azaldu du Iban Arantzabalek, Hekimenen barruan dagoen Tokikomeko administrazio kontseiluko kideak.

Akordioa bi urteko prozesuaren emaitza da. 2017 hasieran, hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru

Aldundiak eta euskarazko hedabideak biltzen dituen Hekimen elkarteak hedabide horien etorkizunaren gaineko gogoeta bat jarri zuten abian. Eusko Jaurlaritza bildu zen geroxeago, eta Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek ere bat egin dute gogoeta horrekin.

Goiena, kasu berezia

Goiena Komunikazio Taldearena, hedabide multimedia bat izanik, kasu berezia da. Izan ere, bi aldeetatik jasoko du laguntza, Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik. "Gure kasua da berezi bakarra. Dena den, diru-banaketa honek ekarri duena da ordenatze bat, eta hori egokia da", dio Arantzabalek.

Zupiriaren hitzak

"Euskal entzule, ikusle eta irakurleek eduki interesgarriak erakargarriak behar ditugu. Arlo horretan hedabideek ekarpen garrantzitsua egiten dutenez gero, oinarriak finkatu gura dira hitzarmen honekin, aurrerantzean ere hala egin dezaten", dio Kultura sailburu Bingen Zupiriak.

ENGLISH SUMMER ACTIVITIES

mondragon
Lingua

Come & discover! Hop into summer!!

UDALEKU ITXIAK

Santo Domingo de la Calzada

Uztailak 1-12 / 1-16 / 15-26

8-14 urte

Bertako eta atzerriko irakasleak



IKASTAROAK ATZERRIAN



UDALEKU IREKIAK

Arrasate

Ekainaren 26tik uztailaren 26ra

3-12 urte

Escape room, international day, jokoak, kirolak...

Harrera eta jangela zerbitzua



MATRIKULA ZABALIK
INFORMA ZAITEZ



www.mondragonlingua.com

ARRASATE

Araba Etorbidea, 4 - Tel. - 943712055

mlarrasate@mondragonlingua.com



ZABALIK

RESU ABASOLO GALLASTEGI

Gakoa lehenengo pausoa da

Egia da gure beharrak asetzeko, sarritan, kanpotik ekartzen direla programak eta aholku sortak, eta, beste batzuek egindakoak direnez, ez dira sartzen gure barnean. Bihotzean. Ez ditugu geure egiten.

Adibidez, Martxoaren 8a urte askotan ospatu arren, ez dugu benetako berdintasunik lortu, ezta gutxiagorik ere. Zergatik? Gaur arte ospatutakoek, agian, emakumeak konturatzeko balio izan dute; ez ordea, gizonak, gehiago handi batek ez baitu uste arazoa berea denik, begi-bistan mila adibide eduki arren. Adibidez, nor arduratzen da etxeko nagusien zaintzaz? Eta jaioberrienaz?

Badira urteak teknikariak iritsi zirela udaletara, baina susmoa dut kontratazioarekin konformatzen direla udalbatzak berdintasuna lortzeko.

Ez dira benetako urratsak egin.

BEGI-BISTAN MILA ADIBIDE: NOR ARDURATZEN DA NAGUSIEN ZAINTZAZ? ETA JAIOPERRIENAZ?

Ikastetxeetan antzeko zerbait gertatzen da: arduradunak izendatu bai, baina funtzioak zeintzuk diren jakin ez.

Kontuan hartzen badugu adituek diotena, "bizitzako lehen urtean finkatzen direnez haurraren estruktura fisiko, mental eta emozionalak",

ezinbestekoa da etxeko ohiturei erreparatzea: aitzak egiten duenari eta amak egiten duenari, haurrari ipintzen zaizkion jantziei, eskaintzen zaizkion liburu eta jostailuei eta kontatzen zaizkion ipuinei. Haurra lehenengo momentutik konturatu da aitzak betetzen duen rolaz eta amak betetzen duenaz eta berehala barneratuko du berak jokatu duena, jakin badakigu-eta askoz gehiago eta hobeto ikasten dela ikusten denetik entzuten denetik baino.

Nahiko!

Gure esku dago.

Gakoa egiten dugunaz konturatzean dago, pentsatzean. Kontzientzia hartzean. Eta ostean, hausnartu. Norberak kontzienteki jokatu besteen kontzientzian eragiteko eta lehenengo pausoa eman berdintasunaren alde. Eta konturatu gabe, bigarrena.

Norberaren gerra norberak irabazi behar du, amankomuneko gerra irabazi arte: berdintasuna.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Maskara

JAUME GELABERT

[HTTPS://LABUR.EUS/VYBPY](https://labur.eus/vybp)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Inauteriak bukatu berri dira, eta mozorroa kentzeko ordua iritsi da. Hainbatek, maskararen atzean ezkuturik, gehiegikeriak –handiak edo txikiak, nork bere neurrian– egiteko aukera baliatu dute.

[...] UPN alderdi nafarrak, nafarretan nafarrenak, *navarrísimo*-ak alegia, foruen defendatzaile sutsu aurkeztu du bere burua sortu zenetik. Nafarroako nortasunaren aitzindariak –Nafarroako nortasun zehatz batenak, eta batez ere, gainerako identitateen aurkakoak– bere

DNAn, modan dagoen esapidea erabilia, omen zuen Nafarroa eta nafarren eskubideak defendatzea, bai Madrilgo parlamentuan konbenio ekonomikoaren aurkakoen erasoan aurrean, baita Iruñean ere, Baskongadetako mertzenario inbaditzaileei aurre eginda. Egia da agintean izan bitartean Nafarroako Kutxa kanpoko talde bati –nongoa eta katalanari– saldu diola erdi prezioan, alderdiaren sorreratik bertako hizkuntza bat –esan beharra dago zein?– paisaia publikotik desagerrarazteko ahaleginak egin dituela eta Erkidego Foraleko zenbait herritarren eskubideen –esaterako

Altsasukoenak, etorkinenak, LGTB pertsonenak– aurka aritu dela. [...] Horrelakoxea da UPNk erakutsi ohi digun aurpegia; orain arte. Maskara kenduta, Nafarroako inauteriak bukatzeko egun batzuk falta zirela izan genuen UPNren eta PPren arteko akordioaren berri. Azken urteetako PP zentralistena, eskuindarra – ultraeskuindarra, ez da esajerazioa–, Beltran eta bere ornitorrinkoena, Vox eta Csekin batera Hirutasun Saindua osatu duen alderdia izanen du bidaide. Batzuk maskara jantzita edo erantzita, inauterietan edo inauterietatik kanpo, gehiegikeriei emanak izaten dira.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Amaia Igartua.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiztz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Segurtasunaren izenean edozer egiten du Israelek"

JUAN LUIS MERINO EZKER ANITZA-KO DEBAGOIENENKO KOORDINATZAILEA

Eneko Azkarate ARRASATE

Palestinan izan berri da Ezker Anitza-koa, Sodepaz elkartearekin. Egoeraz kezkatuta, gertatzen ari dena kontatzeko asmoz itzuli da, "Palestinarekin maiteminduta".

Nortzuk joan zarete?

Alderdi politikoetako, sindikatueta eta EHUKo kideak eta kazetariak; hamar lagun. Sodepaz euskal gobernu kanpoko erakundeak antolatuta. Zortzi egun izan gara, otsailaren 26tik martxoaren 6ra arte. Belen ondoan dagoen Beit Sahour-en eta Ramallah-n, Palestinako hiriburu administratiboan.

Zein da gobernu kanpoko erakunde horren helburua?

Eragile politiko eta sozialeko kideak gonbidatzen ditu, askotarikoak, ahal dela; izan ere, erakundearen nahia da Palestinan zer gertatzen den bertatik bertara ezagutu eta gero hemen zabaltzea. Ekainean izan nintzen eta errepikatu egin dut;



Juan Luis Merino. GOIENA

oraingoan, gastuak neure gain hartuta. Egoera okertu egin da, baina Palestinaz maitemindu egin naiz.

Zergatik?

Palestinaren egoera kritikoa da. Batez ere, orain, Israelen

hauteskundeak izango direlako apirilean. Horrek baldintzatzen du israeldarren politika errepresiboa palestinaren aurka. Israelgo estatuak segurtasuna saldu nahi die herrikideei eta

mundu osoari, arabiarrek gaiztoak direla argudiatuz. Palestinarekin bukatu nahi du segurtasunaren izenean. **Donald Trumpen kanpo politikak ere baldintzatzen du egoera?** Bai; esaterako, Jerusalem era eroan izana Ameriketako Estatu Batuen enbaxada, era honetan aitortuz Jerusalem Israelen hiriburu moduan. Bestetik, errefuxiatuen esparruetarako Nazio Batuen Erakundeak banatzen dituen dirulaguntzak murriztu dituzte AEBek, eta horrek okertu egin du egoera. Aidako errefuxiatuen esparruan izan gara eta umeen hezkuntzan eta medikuntzan murrizketak izan dituzte.

Zer egiten ari da Europa?

Ezer ere ez. Besteak beste, Alemaniak ez duelako ezer egiten uzten. Israelek gehiegikeriak egiten ditu, baina ez da ezer egiten haien aurka. Palestinar legebiltzarkideak, umeak... atxilotuta. 5.500 palestinarrak. Bi epaiketa bertatik bertara jarraitu ahal izan ditugu eta fartsa handiak dira. Dena, segurtasunaren izenean.

Palestinaren zenbat errefuxiatuen esparru daude?

58, Siria, Libia, Zisjordania, Egipto eta Gazan. Mundu osoko errefuxiatuen herena palestinarrak dira: 8 milioi.

HAU BE BADOGU!

Clemente, Euskal Selektzioaren hautatzaile



Javier Clemente barakaldarra izendatu du Euskadiko Futbol Federazioaren selektzioaren entrenatzaile:

@manexaltuna: "Javier Clemente izango da Euskal Selektzioaren hautatzaile berria. Athletic, Real, Espanyol, Sporting eta Betis moduko taldeak eta Espainia, Serbia, Camerun eta Libia bezalako selektzioak zuzendutakoak da".

@joniher_07: "Zergatik diote batzuk lotsagarria dela Clemente entrenatzaile izatea?".

Martxoaren 8a, sare sozialetan nagusi

Gai nagusia izan da, asteon, euskal erabiltzaileen artean, sare sozial gehienetan.

Besteak beste, *#martxoak8*, *#m8*, *#grebafeminista* eta *#bizitzakerdigunean* traolak izan dira erabilienak:

@M8EuskalHerria: "Parlamentu barruan agerraldia burutzen ari garen bitartean, kontzentrazioa burutzen ari dira *@m8gasteiz* eko kideak kanpoaldean. Feminismoak zuen faxismoa garaituko du! Borrorak artikulatuz sistemari talka!".

'#M3moria', Gasteizen hildako langileen alde

Martxoaren 3ko Gasteizko gertakariak -poliziak bost langile hil zituen 1976an- gogoratu dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan, eta sare sozialetan ere aldarrikapenak isla izan dute.

@HegoiUrzelai: "Aitona, kontadazu berriro, mesedez, ezin baitu sinestu *#M3moria*".

@Amazabal: "Oroimenik onena Garaipena! *#Martxoak3* *#Gasteiztarrokezduguahazten* *#M3moria* *#EgiaJustiziaErreparazioa*".

ITURRI ONETIK

Araoztarren erretratuak

Jose Felix Diaz de Tuesta argazkilaria bi proiektu dauka esku artean: Oñatiko emakumeen erretratuena eta araoztarrei ateratako argazkiekin egindakoa. Lehenengoa martxo amaieran mamituko duela uste du egileak: Oñatiko hamar familiako hiruna emakume, hiru belaunalditakoak, erretratatu ditu.

Araoztarrekin, bestalde, duela urte batzuk gatzagarrekin egin zuen moduan ari da: 50 bat familia, 200 kide inguru, erretratatu, ondoren liburua argitaratu eta auzoan bertan erakusketa egiteko.

ALBISTE IZAN ZEN



ARGAZKI PRESS

2014-08-07

Abortu librearen alde, Rajoyren aurrean

Jone Arrazola eta Rebeca Maestro oñatiarrek, beste bi emakumerekin batera, abortu librea aldarrikatu zuten Euskadiko PPrek kongresuan, Donostiako Kursaal. Mariano Rajoy PPrek presidente eta Espainiako gobernuaren amaierako hitzaldia eten zuten, oihuka, Emakumeen Egunaren bezperan, PPrek Gobernuaren legea aldatzeko tramiteetan zebilela salatzen. Ekintzak oihartzun handia izan zuten hedabideetan.

Altsasukoak aske!**MILA SALGADO**

ALTSASU

Lau haizetara aldarrikatu nahi dugu justizia: Jon Ander, Jokin, Julen, Adur, Aratz, Iñaki eta Oihan aske gelditu arte!

Hori izan zen urte berriari eskatu geniona.

Eta urte berriak ekarri zигun apelazio-epaiketan, Jon Anderri eta Juleni ukatutako 6 lekuko onartzea.

Urtarrilaren 23ko bistan, San Fernando de Henaresko Auzitegi Nazionalean lekuko guztiek ukatu zuten Jon Ander Koxka tabernan egon zela istiluak gertatu zirenean.

Lekukoen artean, Amaia testigantza oso garrantzitsua izan zen.

Zergatik?

Berak ikusi zuelako taberna barruan geratutakoa, baina hori ez ezik,

gertakariak jazo zirenean tenientearen andregaiaren (Maria Jose) laguna zelako.

Amaiak esan zuen Maria Joserekin egon zela taberna barruan gau hartan, eta ez zuela agresiorik ikusi, txupito edalontziak hegan egiten baino ez.

Eta, kalera atera zenean, tenientea lurrean ikusi zuela eta bere ondoan zegoen lagunari laguntza eskaini ziola, baina Maria Josek laguntza ukatu ziola; eta ez ziola erantzun hurrengo egunean bidali zion mezuari.

Maria Josek, berriz, kontrakoa adierazi zuen epaiketan, besteak beste: bortizki jipoituak izan zirela taberna barruan eta inork ez ziela lagundu.

Asuntua da, Amaiak ez ezik, testigantza eman duten testigu guztiek ez zutelara jipoi

basatirik ikusi, eta bi agenteek eta haien bikotekideek kontatutako *errelatoa* ezin izan dutela egiazki frogatu.

Hala eta guztiz ere, gazte batzuek 2 urte baino gehiago daramate kartzelan, eta beste batzuek 9 hilabete egingo dituzte laster.

Bitartean, gu lur jota gaude, ez baitugu ulertzen nola eman diezaioketen oraindik balioa agenteen eta neska-lagunen *kontakizunari*.

Zein interes dago atzean? Dagoeneko ez ote da nahikoa ordaindu?

Apelazioaren zain gaude, triste gaude, asko sufritzen ari baikara, baina baditugu motiboak berri onak jasotzeko.

Ez dakit orain jasoko ditugun, horixe nahi eta behar dugu.

Bi hitzetan esanda: justizia eta egia. Altsasukoak aske!

Hutsunea**ITZIAR USANDIZAGA GALARRAGA**

BERGARA

Sagra Lopez arrasatearra hil da.

Harro gaude zutaz!

Jubilatu eta jarraian hasi ginen LAB-Helduak-en lantaldean, jabetu ginelako ongizate gizartea jausten hasi zela.

Doaneko eta kalitatezko zerbitzu publikoetan murrizketak zeudela eta eskubideei eutsi beharra zegoela.

Geroago, berriz, Duintasuna Elkartea moduan jarraitu dugu.

Zure gaixotasunarena jakin genuenean, izugarritzko kolpea hartu genuen.

Hutsune handia laga duzu gure elkartean, baita ere astelehenetako elkarretaratzeetan.

Kostako zaigu ohitzea zu barik.

Emakume konprometitua, sendoa eta langile amorratua zinen.

Hamar urte elkarrekin eta beti prest edozein lanetarako.

Sentsibilitatez, langile kontzientziaz, genero ikuspegitik eta enpatiaz murgiltzen zinen.

Aurtengo eta hurrengo urteetako Martxoaren 8an zure falta handia sumatuko dugu.

Lasai, Sagra! Jarraituko dugu zuk sinisten zenuen justizia soziala eta parekidetasuna lantzen.

Hemen bizi eta hemen erabakiz.

Pentsio publikoen alde, 1.080 euroko gutxieneko pentsioak lortzen eta zahartzaro duin baten alde.

Zure ibilbide oparoari jarraituko diogu, bidelagun izan zaitugunontzat zure eredu gure oroimenean gelditzen da.

Ama lurrak gorde zaitzala.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



Sagrario Lopez, Biona kanpoan, taberna itxi eta 10 urte pasa ostean, pentsiodunen kartela atzean duela. XABI GOROSTIDI

Arrastoa utzita esan du agur Sagrario Lopezek

Mugimendu feministan aitzindari, eskubide sozialen defendatzaile sutu eta gazte askoren gertuko pertsona izan zen Sagrario Lopez arrasatearra. 73 urterekin zendu zen, domekan, eta astelehenean Aldai parkea txiki geratu zen hari agur esateko

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Niri, atera nahi duzun bezala, baina, mesedez, ikusi dadila atzean jarri dudun pentsiodunen kartela, e?". Hitz horiek erabili zituen Sagrario Lopezek, duela urtebete, Biona itxi eta hamar urte pasatu ostean, GOIENAK egindako artikulurako argazkia ateratzen ari zela. Pasarte inozoa ematen du, baina ondo islatzen du *Sagra*-k zuen izaera borrokalari, eta kolektiboa.

Mugimendu feministako kide, Biona tabernako langile, izaera sozialeko ekimenen babesle, eta azkenaldian pentsio duinen aldeko mugimenduko partaide izan zen Lopez. Pasa den domekan hil zen, Gasteizen, 73 urterekin, azken hilabeteak leuzemiari aurre egiten pasa ostean. Baina arrasto luzea utzita esan zuen agur, eta nabaria izan zen hori astelehenean, Aldai parkea txiki geratu zen-eta hura agurtzeko ekitaldian. Askotariko herritarrez gain, EH Bilduko Arnaldo Otegi eta Sortuko Ar-

kaitz Rodriguez ere, besteak beste, bertan izan ziren. Hau adierazi zuen, esaterako, Lopezek lagun eta Arrasateko pentsiodunen taldeko Karmele Iparragirrek: "Niretzako, altxor bat izan da. Betidanik ezagutzen nuen, baina pentsionisten kontuarekin batu egin ginen eta familiakoa bezala sentitzen dut. Nonbait premia bat bazegoen, han zegoen Sagrario. Nik *Kalkutako Sagrario* zela esaten nion".

Iparragirrek bezala, Arrasateko feministek ere hitza hartu zuten agur ekitaldian, eta, besteak besteak, hitz hauek irakurri zituzten Lopezek omenez: "Askotan esan ohi dugu *Izan direlako gara eta garelako izan-go dira*. Eta norbait izan bada

"PREMIA BAT ZEGOEN LEKUAN EGOTEN ZEN PERTSONA" MODUAN GOGORATU ZUTEN AGUR EKITALDIAN

letra larriz izan, hori zu izan zara, *Sagra*. Gutako asko zuri esker gara feministak. Zenbat eta zenbatek ikasi dugun zer den feminismoa eta ahizpatasuna zuri esker. Bionako barran jaso genituen lehen feminismo-ko eskuorriak, ikusi genituen logo eta kartelak, entzun genituen zure kontuak... Feminismoaren olatua baxuen zegoen garaietan ere, zu bertan egon zara borrokari eutsiz tinko eta goxo".

Arrasateko alkate ohi Xabier Zubizarretak haren izaera nekazina goraiatu zuen. "Arrasaten, eta Euskal Herri mailan ere, aitzindaria izan da emakumeen eskubideen aldeko borrokan. Bionako langile zenean, oso maitatua izan zen herriko gazteengatik. Alde guztietan lortu zuen maitatua eta onartua izatea. Bazuen beste ezaugarri bat: nekazina zen, infinituraino".

Lopezek horrenbeste maite zuen Silvio Rodriguezen *Ójala* kantarekin eman zioten azken agurra.

"Arrazismoaz edo aurreiritziez gain, bestelako gaiak daude"

DJAMILA ZEREIBY DOKUMENTAL EKOIZLEA

'Bizimodua berreraikiz' azken lana estreinatu berri du

X.G. ARRASATE

Bideak gurutzatzen izan zen hark ekoiztutako lehen dokumentala, eta bigarrena –Goienaren parte hartzea izan duena– eguaztenean estreinatu zuten, Kulturaten.

Bizimodua berreraikiz aurrekoaren jarraipena da?

Bai, hala da. Proiektu asko kate bat modukoak izaten dira, eta, kasu honetan, *Bideak gurutzatzen*-en jarraipena dela esan daiteke *Bizimoduak berreraikiz*.

Non jarri duzue fokua?

Gazteengan. Biak dira immigrazioari buruzko dokumentalak, baina begirada ezberdin batetik. Gazteek beste modu batean bizi dute, eta hori islatu nahi izan dugu dokumentalean.

Nolakoa izan da ekoizpen prozesua?

Lehenengo, hainbat elkarrizketa egin genituen gazteekin –etorkinen seme-alabak eta baita bertakoak ere–, SOS Arrazakeria elkartearekin, Amelia Barkin bezalako adituekin... Hain zuzen ere, espazio batzuk sortu genituen euren esperientziak trukatzeko, eta horren ostean ekin genion filmatzeari. Hura izan zen parterik aberasgarriena; batez ere, euren artean ezagutu ahala, espero ez genituen



Djamilia Zereiby. MIKEL EZKERRA

ikuspuntua ikusten joan ginelako.

Zein gai nagusi lantzen dira?

Dokumentalean agertzen diren gazte batzuek ez dute aurretik harremanik izan gazte etorkinekin. Beraz, arrazakeria eta aurreiritzien gaia agertzen da. Askoz gehiago ere jorratzen dira: genero berdintasuna, matxismoa, aniztasun kulturala, sexuala...

Bigarrenaren ostean, beste dokumental bat egingo al duzu?

Oso esperientzia aberasgarriak izan dira, eta nik uste dut baietz; esan bezala, hau kate bat da.

AKADEMIA

BASIDA

Ingelesa

Frantsesa

Alemana

Doako ikastaroak, diruz lagunduta

Hainbat maila • Hainbat ordutegi

Araba etorbica 3,1 • Arrasate • 943 79 35 33

'Persona non grata' izendatu dute Martin Villa

Intxorta elkarteak "Barne ministro ohiaren krimenak" aztertzeko mozioa aurkeztu zuen, eta aho batez onartu zuten. Horrez gain, Arantxa Markaide arrasatearrak Muñecas kapitainaren aurka jarri duen kereilarekin lotuta, adierazpen instituzionala adostu zuten

Xabi Gorostidi ARRASATE

Rodolfo Martin Villaren "krimenak" ikertzea eskatzen zuen Intxortako mozioak, "gizate-riaren aurkako krimenak direnez, delituak ezin daitezkeelako amnistiatu edo indultatu". Honek hainbat aginte postu izan zituen 60ko eta 70eko hamarkadetan: SEUko buru (Espainiako unitbertsitate sindikatua), sindikatu bertikaleko idazkari, Bartzelonako gobernari, Harreman Sindikaletarako ministro, eta baita Barne ministro Suarezren agintaldian. Arrasatera etorrita, Suarezren ministro zelarrik, honako krimen hauek egin zirela aipatzen zuen mozioak: Guardia Zibilak tiroz eraildako lau lagun –Agurtzane Arregi, Emilia Larrea, Roberto Aranburu eta Jose Maria Iturriotz– eta tiroz zauritutako bost –Juan Jose Etxabe, Enrique Zurutuza, Juana Martin, Alberto Beltran eta Crescencia Bidaurreta–. Martin inputatua izan zen Argentinan, baina ez



Josu Ibartutxi, Intxorta elkarteko kidea, mozioa irakurtzen zinegotzien aurrean. X.G.

zen estraditatu izan, 2015eko martxoaren 13an Espainiako Ministroen Kontseiluak eskaria ukatu zuelako.

Hala, lau eskari hauek egingo ditu Udalak, mozioa aho batez onartu ostean: Espainiako Go-

bernuari eskatzea Martin Villa estraditatzeko, frankismoko eta trantsizioko krimenak nazioartean ikertzea, Villa *persona non grata* izendatzea eta Udalaren erabakia hainbat justizia instituziori helaraztea.

Arizmendiarrera, bilkuren aretoan

Astelehenean jarri zuten Jose Maria Arizmendiarreren koadroa osoko bilkuren gelan. Arizmendiarreren Lagunak elkarteak egin zuen eskaria 2018ko urriko osoko bilkuran, eta, onartu ostean, orain jarri dute Luziano margolariaren koadroa, ekitaldi xume bat eginez.

Baleikek haserrea azaldu zuen osoko bilkuran, urriko batzar horretan, besteak beste, gizonen eta emakumeen koadro kopuru bera jartzea adostu zutelako. Euren ustez, "ez da bidezkoa", koadroak parekidetu aurretik laugarren gizonetzko bat jartzea. EH Bilduk kritikatu egin zuen Arizmendiarreren koadroaren gaiak izan duen "presazko trataera" eta adibide gisa jarri zuten ekitaldirako gonbidapena hiru ordu lehenago jaso izana. EAJtik erantzun zuten bi gai desberdin direla: "Bata bete egin da; eta bestea martxan dago".



Adierazpen instituzionala

Asteazken goizean, Arantxa Markaide arrasatearrak –beste hiru pertsonarekin batera– Jesus Muñecas Guardia Zibileko kapitainaren aurkako kereila jarri zuten Donostiako Epaitegian. Horren bezperan, ordea, frankismoaren inpunitatearekin lotutako adierazpen bateratua adostu zuten herriko alderdi politiko guztiek. Honela dio bertako pasarte batek:

"Arrasateko udalbatzarrak gure herriko biktimei eta beraien senide guztiei bere elkartasuna adierazten die egia guztia ager dadin eta justizia osoa egin dadin 40 urteko diktadurapean frankistak gizateariaren aurka egindako krimenekin. Memoria osoa nahi baitugu berreskuratu, bakea eta elkarbizitza behar bezala bideratzeko. Frankismoaren inpunitateari tolerantziarik ez!".

Parte hartzeko aurrekontuetara, beste 250.000 euro

EAJk, EH Bilduk, PSE-EEk eta Baleikek konpromisoa hartu dute aurten ere partaidetzazko aurrekontuak egiteko, hauteskundeetako emaitzei erreparatu gabe. Iaz irabazle izan ez ziren 114 proiektu berriz ere jarriko dituzte aukeren artean, eta berriak egiteko bi aste epea zabalduko dute martxo bukaeran. Proiektuak aukeratzeko bozketak, irailean egingo dute. Iaz, adibidez, proposamenek bete beharreko baldintzetako bat zen proiektua urte horretan hasia eta bukatzea. Aurtengo bozketak irailean egingo denez, baldintza hori kendu egin dute, eta 2019an edo 2020an zehar egin ahalko dira proiektuak.

Estanpazio tailerra gidatuko du Helena Azkarragaurizarrek

Goiena komunitatea

Ekin Emakumeak/ ARRASATE

Estanpazio teknika erabiliz sormena garatuz, irudi propioak, intimoak, zein produktuetara egokituko diren irudiak sortzeko tailerra izango da. Ikastaroa martxoaren 15ean, 22an, 29an eta apirilaren 5ean eta 12an izango da, 18:00etatik 20:00etara. Izen ematea: Ekin Emakumeak Elkartearen –Pablo Uranga 4 behea–, posta elektronikoz –emakumeak@ekinemakumeak.eus– edo telefonoz –943 79 83 70 edo 651 79 79 36 zenbakietan–. Prezioa: 30 euro –bazkideek, 25–.

Maiatzean, aldiz, kustomizazio tailerra egingo dugu eta Joana Manzidorrek gidatuko du.

Drogen gozamen eta arriskuak aztertuko dituzte gaztetxean

Martxoaren 15ean egingo dute saioa –18:30ean, gaztetxean–, Ai Laket! elkarteko adituen laguntzarekin. Helburu orokorra drogaren eta honen erabileraren inguruko informazioa jasotzea eta kontsumoaren arriskuak murrizteko neurriak barneratzea izango da.

Baina saioak honako helburu zehatzago hauek ere izango ditu: substantzia psikoaktiboak erabiltzeko edo ez erabiltzeko gaitasun kritikoa sustatzea, drogak erabilerara arduratsuen inguruan erabakiak hartzeko gaitasuna sustatzea eta kontsumo arriskutsuak eta aisialdiko kontsumoetan egon daitezkeen arriskuak gutxitzea.

Zigorrei buruzko hitzaldia antolatu dugu ostegunerako

Goiena komunitatea

AHEko Guraso Elkarteak/ ARRASATE

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteko lagunek *Ondorioak eta zigorrak?* izenburuko hitzaldia antolatu dugu datorren egunerako, hilak 14.

Ordu eta erdiko iraupena izango du saioak, eta 18:00etan hasiko da, Kulturategiaren areto nagusian –sarrera doakoa izango da–. Galdera hauei erantzunak topatzen ahalegintzeko baliagarria izango da: *Badakigu nola eragiten duten zigorrek gure seme-alabengan? Nola desberdinu zigorrak eta ondorioak? Errespetuzko helduak izateko haur errespetatuak izan behar ditugu. Izan gaitezen eredu.*

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean Herriko Plazan elkartuko dira, 12:00etan.

Greziako brigadistak

Hilaren 14an, hango esperientziak gertutik ezagutzeko aukera izango da Irati tabernan, 19:00etan.

Karapaixo Eguna

Martxoaren 16an egingo den baserriarren azokan, karapaixoen ikastaroa egingo da. Izen emateak 943 79 64 63 telefonoan edo turismo@debagoiena.eus helbidean.

Tailerrak Toki-argin

Adindunen artean erorketak saihesteko ikastaroak martxoaren 26an eta 28an.

Alde zaharra egokitzeke plana martxan dago

Alde zaharra barne-eraberritzeko plan berezia martxan da berriro eta herritarrek ekainaren 30era arte izango dute aukera proposamenak helarazteko. Prozesu horrek bi urte iraungo du eta azken hitza Eusko Jaurlaritzarena izango da



Juan Antonio Urdangarin eta Ibon Arrupe, Iturriotz kalean. GOIENA

Maialen Regueiro ARRASATE

Hirigintza Saileko buru Juan Antonio Urdangarinek eta Ibon Arrupe zinegotziak astelehenean eman zuten aditzera abian dagoela Arrasateko alde zaharra barne-eraberritzeko plan berezia.

Herritarren proposamenak

Prozesu horren lehen pausoa herritarren proposamenak biltzea da. Ekainaren 30era arte egongo da proposamenak helarazteko aukera, BAZen bulegoan. Kontuan hartu behar da prozesu horrek alde zaharri eta errebaletan eragiten diela: Gazteluondori, Olarte kaleari eta Maalako errebalari, hain zuzen ere. Jasotako ideiekin zerrenda bat egingo dute, eta iraileko Hirigintza Kontseiluan aztertu. Kontseilu horren ondoren, dokumentu bat idatziko dute, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera bideratu; izan ere, Ibon Arrupek adierazi duenez, azken hitza Jaurlaritzarena da.

Ibai-Arte, "harrituta"

Asteheneko prentsaurrekoan, Arrupek esan zuen merkatarien "arazo nagusia" Internet bidezko salmentak direla, eta garrantzia kendu zion denden erakusleihen tamainari. Adierazpen hori dela eta, merkatarien elkartek ohar bat helarazi du. Alde batetik, bere ezinegon adierazi du: "Lehen-lehenik, gai honi buruz ez zaigu zuzeneko informaziorik helarazi eta prentsa bidez jabetu gara. Bestalde, harridura adierazten dugu zinegotziaren esanetan Arrasateko merkataritzako arazorik handienak belaunaldi erreleboa eta Internet direla irakurtzean, eta Ibai-Arte beti eskatu izan duen PER-en aldaketak edo onargarritasunak askoz lokal gehiago zabaltzea erraztuko lukeela onartu ez izatean". Egoera horren harira, Udala merkatariekin elkartu da gai hori jorrazteko eta, bide batez, ezinegonari erantzun bat emateko.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Iraultza hemen dau

Zutabe hau argitaratu orduko, seguru nau gaurko deittuta dauen grebie arrakastatsue izan dala. Iazko inddar erakustaldixie eta gero, gizartiaren erdixek barriro be nahikue dala esan dau.

Gure bailarako saltoki eta lantoki askotan deialdixaren jarraipena iazkue baiño handixae izango dalakuen nau. Osasuna eta hezkuntzakin zerikusixe daukien erakundixetan nabarmenae izango da gaurko jardune, zaintzailiek erakustie gura daue zein inportantie dan haretxeik egitten dauen biharra.

Nire uste apalien, emakumien iraultzan aurrien gauz, XXI. mende hasieran andrak ez daue gura bigarren mailako hiritar izaterik, gizarte bardinkide baterako marko edo arau aldaketie eskaketan dabitz orain arteko justizia ezari erantzune emuteko.

Generuan ikuspegittik aldendu ezker eta pertsona erdixen jarritte, zein gizakume ez da, ba, egongo pertsonen arteko berdintasunaren alde? Eta generuai begittu ezker, zein gizonek ez dutso onena desio bere ama, emazte, alaba edo arrebari?

Iraultza honen aurrien zer egingo dogu gizonok? *That's the question.*



Musakola z/ý ARRASATE.
Tel.: 943 71 10 30



BEZA*

oparituko dizugu denean

Zure EROSKI club txarilean itzuliko dizugu



*Kutxa onartzen EROSKI club txarilean erabili. egutizia egutizien BEZA doguen zerrendan sartuta dago. txarilean txarile EROSKI club txarilean. EROSKI club txarilean sartzearen gaitzesko zerrenda: 350 euro. Pasa den EROSKI txarilean eta Supermerkatuetan, eta EROSKI online supermerkatuan izango da balioko. Informazio: 42 040 0400. Hainbat txarilean, EROSKI club txarilean, txarilean txarile, Eroski txarilean (zerrenda txarilean), txarilean txarile eta txarilean txarilean txarile (txarile txarilean eta txarilean) txarilean txarilean txarilean. txarilean txarilean txarilean txarilean txarilean.

40€-tik gorako erosketa eginez gero EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan eta 90€-tik gorakoa EROSKI Hipermerkatuetan, Euskadin, Nafarroan, Kantabrián, Eriaxan eta Aragoian.

9

martxoak
larunbata

Marihuana kontsumitzen dute nerabeen %15,3k

San Juan de Dios Ospitaleak 2018ko urrian eta abenduan egin zuen ikerketa Arrasaten, eta Arizmendi Ikastolako eta Arrasate Institutuko DBHko 1. eta 4. maila arteko 861 nerabek hartu zuten parte; orain, emaitzak aurkeztu dituzte

AMAIA ZABALA ARRASATE

Ikerketaren datuak aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten astelehenean udaletxean, eta bertan jakinarazi zuten inkesta bete duten 861 nerabeetatik 127k marihuana kontsumitu dutela noizbait edo kontsumitzen dutela egun; ikasleen %15,3k.

"Ikerketa horrek datuak zein diren jakiteko balio digu, baina garrantzitsuena nerabeek kontsumitzeko erabakia zergatik hartzen duten jakitea da", azaldu zuen Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak prentsaurrekoan.

San Juan de Dios Ospitaleko psikologo Emilio Martinek, berriz, zioen "akatsa" dela "fokua kontsumoen datuetan bakarrik jartzea. Kontsumo datuak nerabeen testuinguruarekin lotu behar ditugu; izan ere, beste zenbait esparrutan erabakiak hartuko dituen pertsona bera da nerabe hori. Eta posible da beste erabaki horiek hartzeko orduan alde nabarmenik ez egotea."

Gaineratu zuen ikerketak utzitako datuen harira zenbait galdera sortzen direla: "Batetik, ikusi behar dugu ea prebentzio neurriak iristen diren herritarrengana, eta momentu egokian iristen diren; bestetik, hausnar-



Ikerketaren emaitza emateko egindako prentsaurrekoan. ARANTZAZU EZKIBEL

tu behar dugu nolako gizartea gura dugun, eta nerabeek ze toki bete behar duten gizarte horretan".

Beste hainbat faktore kontuan

Kontsumo ohiturez gain, ikerketa horretan beste neurri batzuk ere hartu dituzte kontuan: erabakiak hartzeko trebetasunen eskala, autoestimua eskala, drogen kontsumoari loturiko arriskuen pertzepzioaren eskala, asertibitatearen eskala eta drogak kontsumitze-ko presio sozialaren aurreko

erresistentziaren eskala, hain zuzen ere.

Datu positiboak eta negatiboak

Prebentzio neurriak ez direla momentu egokian egiten azaldu du Martinek: "DBHko lehenengo mailako kontsumitzaileak dira kontsumitzaile guztien ia %9. Horregatik, beharbada, prebentzioa lehenago egin beharko litzateke." Psikologoak ondorio positiboak ere atera ditu ikerketa horretatik: "Kontsumitzen duten %55ek hilean 1-2 porro kontsumitzen dituzte; eta %16k 3 eta 5 porro artean -guztira, %71-. Horrek esan nahi du horiekin lan egin eta kopuru horiek jaisten baditugu, beste guztiak ere jaitsi egingo direla". Alde negatiboari dagokionez, DBHko bigarren mailatik aurrera substantzia fuertagoak bilatzen hasten direla nabarmendu du psikologoak: "Hain zuzen, speeda eta anfetaminak".

Lanean jarraituko dute

Maria Ubarretxena alkateak nabarmendu du ikastetxeek lanean jarraituko dutela eta hurrengo pausoa gurasoekin hizaldiak egitea izango dela.



Arizmendiko ikasleak, Ainhoa Vitoria eta saioa aurkezlea platoan. JAGOBA DOMINGO

Ainhoa Vitoria elkarrizketatuko dute 'Galdegazte' saioan

Arrasateko Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko ikasleek Gaztea Irratiko esataria elkarrizketatuko dute

Amia Zabala ARRASATE

Goiena telebistako hirugarren *Galdegazte* saioan, Ainhoa Vitoria arrasatearra izango da protagonista; izan ere, Arrasateko Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko ikasleek hura aukeratu dute elkarrizketatzeko.

Irrati esatariaren alderdi profesionalaz gain, pertsonala ere hizpide izango dute elkarrizketan, eta Vitoriak espero gabeko hainbat sorpresa ere izango ditu.

Saioa ikusgai izango da martxoaren 14an, eguena, 21:30ean eta 23:30ean, Jokin Bereziartua aurkezleak gidaturik.

Saio "ederra"

Bereziartuak saio "ederra" izango dela aurreratu du: "Bera ere kazetaria izanda, suposatzen nuen saioa erritmo onean joango zela, eta aurreikuspenak erabat bete ziren. Minutuek aurrera egin ahala, ikasleak eta Ainhoa bera gero eta erosoago sentitu ziren; konturatu orduko, amaierara heldu zen saioa. Sorpresa itzela eraman zuen bere aitaren, lehengusuaren eta aspaldiko irakasle baten adierazpenak entzuterakoan; aukera ederra izan zen Ainhoa hobeto ezagutzeko".

'Kultur memoriak' proiektua martxan da Arrasaten

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak, Koldo Mitxelena Kulturuneak eta Arrasateko Kultura Sailak *Kultur memoriak*, *Memorias urbanas* proiektua martxan jarri dute. Arrasateko memoria eta ondare soziokulturalaren "mapatze parte hartzailea eta eduki sorkuntza proiektua", hain zuzen ere. Arrasaten, adibidez, kooperatibismoaren memoria dokumentatuko da.

Lantegien lehen saioa martxoaren 22an, ostirala, izango da, arratsaldean, eta bertan izen emateko interesa izanez gero, info@kulturmemoriak.eus helbidera idatzi edo 622 82 51 13 telefonora deitu behar da.

Arrasate Aurrera alderdiak bilera irekia egin du

Atzo egin zuten bilera eta zortzi lagun elkartu ziren; horien artean, "jende berria". Bileran, Garagarza, San Joxepe eta alde zaharra izan zituzten hizpide eta hainbat kexa eta iradokizun planteatu zituzten. Arrasate Aurrera alderdiak, udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko, bozketa eguna baino 53 egun lehenago 500 sinadura eta 21 hautagaien zerrenda aurkeztu beharko du.

Atzoko bileran aipatu zuten beste gaietako bat "bizilagunen defendatzailearen figuraren beharra" izan zen, tramite eta terminologia burokratikoak "interpretatzen laguntzeko" eta horiei erantzuteko "aholkularitza eskaintzeko".

Marihuanaren kontsumo datuak

KURTSOA	IKASLEAK	KONTSUMITZAILEAK	%
DBH 1	232	11	5,20
DBH 2	205	15	7,60
DBH 3	222	36	15,30
DBH 4	202	65	33
Guztira	861	127	15,30

OHARRA: ARIZMENDIKO ETA INSTITUTUKO IKASLEEN DATUAK

ITURRIA: SAN JUAN DE DIOS OSPITALEA

"Liburuak badu arlo pertsonaletik zerbait"

ANGEL MARIO FERNANDEZ IDAZLEA

Soraluzen bizi den argentinarrak datorren egubakoitzean, hilak 15, aurkeztuko du bere azken lana, Kulturaten: 'Che, Aitona! Las palabras enterradas'

Xabier Urzelai ARRASATE

Angel Mario Fernandez (Argentina, 1964) idazlearen azken lana da *Che, Aitona! Las palabras enterradas*. Kulturaten aurkeztuko dute hilaren 15ean (19:00): "Aurkezpen ekitaldi berezia izango da. Liburuaren gainean berba egingo dugu, baina ez gara horretara mugatuko, euskal memoria berreskuratzeko borrokan ibili den jendea ere etorriko da eta".

Espainiako gerra, euskaldunok Argentinara egindako emigrazioa... Eta tartean, Soraluzeko gazte baten istorio pertsonala. Badu liburu honek arlo pertsonaletik zerbait?

Bueno, ni Soraluzen bizi den argentinarrak bat naiz, eta nire aitona espainiarra zen, Extremadurakoa zen. Liburuak kontakizunaren une batean, bai, badu arlo pertsonaletik zerbait. **Diozu liburuan jaso duzula Argentinara joandako euskaldunen bizi-modua zelakoa den, eta euskaldunok ze ekarpen egin genuen lurralde horretan.**

Bai, izugarria izan delako. Argentinan euskaldunen kolonia oso garrantzitsua dago, eta ez bakarrik Argentinara joandako euskaldunen oinordeko asko dagoelako. Pentsa, euskal jatorria duten bost presidente izan ditugu Argentinan, Buenos Airesko fundatzaile Juan de Garay euskalduna zen, Argentinako Konstituzioa idatzi zuena...

Ikerketa historikoa egin duzu liburua idazteko.

Bai, arlo horretan lan handia egin dut. Liburuak bi garai nabarmentzen ditu, batez ere: Espainian Gerra bizi izan zeneko sasoiak zelakoa zen, orduko Soraluzeko zelakoa zen, Argentinara joandako euskaldunek zerekin egin zuten topo... Eta bigarren zatia gaur egungoa da, hau da, 1936tik hasi eta 2017ra arteko nolabaiteko erreposoa egiten du liburuak. Bada, gerra hasi eta berehala Argentinarako bidea



Angel Mario Fernandez. ELENA PEREZ SAN JOSE

"LIBURU HAU MECAKO GASOLINDEGIAN ERE EGONGO DA SALGAI, AUKERA EMAN DIDATE ETA POZIK NAGO"

hartu behar izan zuen 16 urteko Soraluzeko gazte baten bizitza kontakizun du, eta gaur egun bere ilobari ematen dion enkargua, Argentinatik Euskal Herrira etorri eta duela 70 urte gertatu zena iker dezan.

Memoria historikoa berreskuratzeara askoren ahotan dagoen gaia da egun.

Halaxe da. Ondo dakizun moduan, argentinarrak ere borroka horretan murgilduta gaude, gurean ere diktadura gogorra izan genuelako eta 30.000 herritar desagertu zirelako. Eta hor ere badago Euskal Herriak eta Argentinak bat egiten duten puntu bat, eta ez bakarrik gerra zibilgatik, baizik eta bi herri horiek independentziara begira izan duten gosegatik. Datu kurioso bat emango dizut; liburuan dator, gainera. Ameriketako independentisten kontra egin

zuten Armada Realisten armak Soraluzen eta Eibarren egindakoak ziren; kar, kar. Pentsa... "Euskal gatazkaren gaineko ikuspuntu partziala, kanpotik ikusitakoa", erakusten du liburuak beste pasarte batean.

Ikuspuntu orokorra da, ezinezkoa da eta 1936tik 2017ra arteko denbora tartea hartzen duen halako nobela batean lanketa sakona egitea. Gai batzuetan, ahal dudanera arte bustitzen naiz.

Liburu Mecako gasolindegian ere egongo da salgai, zeure lantokian.

Halaxe da. Ni 2006an etorri nintzen Argentinatik, kazetari moduan lan egiteko asmoz. Baina ez zen posible izan, eta liburuak idaztetik Espainian Perez Reverte eta beste pare bat idazle bizi dira; kar, kar. Hala, pozik nago Mecako gasolindegian lan egiteaz; gainera, hanketan minusbaliotasun handia daukadala kontuan hartuta. Idatzi nuen aurreko liburua – *Hijos del corralito* – ez nuen Mecan salgai jarri, eta jendea gasolindegira etortzen zen galdetzerara. Orain bertan salgai jartzeko aukera eman didate, eta pozik nago.

Marka ona Alain Egiarendako Espainiakoan egindako debutean

Jauzi hirukoitzean Arrasate Atletiko Taldeko ordezkariak seigarren markarik onena lortu du pista estalian

X.U. ARRASATE

Alain Egiak Espainiako 20 urtez azpiko kategorian egin zuen debuta joan den asteburuan, Gallurko pistan, Madrilen. Arrasate Atletiko Taldeko ordezkariak saltoa hirukoitzean jarduten du, eta txapelketa aurretik 13,74koa zen haren markarik onena. Hala, txapelketako urduritasunak alde batera utzi, eta debutean Egiak aurrerapauso handia egin zuen, 14,12 metroko saltoa egiteko gauza izan zen eta, marka pertsonala modu nabarmenean hobetuta: "20 urtez azpikoan kategorian lehen urtekoa da. Hala, esperientzia apur bat hartzen duenean, marka hori gainditzeko moduan egongo da", adierazi du Fernando Zufiriak.

Txapelketan egindako saltoari esker, Egi seigarren postuan sailkatu zen.



Alain Egi. ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Mikel Agirre, Valentziara

Bestalde, asteburuan Valentzian egingo dituzte 18 urtez azpikoan Espainiako Txapelketak, eta hor ere Arrasateko klubak ordezkari bat izango du, Mikel Agirrek luzera-saltoan parte hartzeko gutxieneko marka du eta (6,62).

Debagoieneko zikloturistek hasi dute denboraldia

Aurten ere makina bat kilometro egingo dute Debagoieneko zikloturistek. Joan den domekan egin zuten 2019ko lehenengo irteera, ohiturak agintzen duen moduan, Dorletako Amara. Eta, urriaren 20ra arte, domekero egingo dituzte irteerak. Horren harira, klubeko ateak zabalki dituzte zikloturismoarekin gozatu gura dutenendako.



Taldeak Arlaban igotzen. D.Z.T

Debagoieneko Eskola Arteko Xake Txapelketa, domekan

Domekan egingo dute ibarreko gaztetxoei zuzendutako Debagoieneko Banakako Eskolarteo Xake Txapelketa, eta gaur, hilak 8, da izena emateko azken eguna (639 36 76 26). Domekan 10:00etan hasiko dituzte partidak, Etxaluzeko eraikinean –Araba Etorbidea 1. zenbakian–. Benjaminak, alebinak eta infantilak elkartuko dira txapelketan.

Besaideko irteeretan parte-hartzea handitzeko erabakia

Besaideko zuzendaritza berriak erabaki du antolatzen dituen irteeren parte-hartzea zabaltzea. Hala, federatuta ez dauden edo bazkideak ez diren pertsonen ere Besaidek antolatzen dituen irteeretan parte hartu ahal izango dute. Horretarako, izen-ematean, mendiko aseguruan edo autobuseko gastuan apur bat gehiago ordaindu beharko dute.

Gora eta gora doa abonatu kopurua kiroldegian

Ibarra kiroldegiak 3.205 abonaturekin itxi zuen 2018a, orain arteko kopururik handienarekin, eta kirol jardueren parte-hartzaileenak ere %9 egin zuen gora sei hilabetetan, aurreko urtearekin alderatuta; autofinantzaketa, ostera, %90,6 izan zen

Mirari Altube ARETXABALETA

Ibarra kiroldegiaren 2018ko datuen berri eman dute bertako ordezkariak, eta pozik agertu dira izandako bilakaerarekin. Izan ere, iazko urtea 3.205 abonaturekin bukatu zuten, 2013an zabaldu zutenetik izan duen kopururik handienarekin.

Erabilera handia duen eraikina

2017ko azaroan gainditu zuen 3.000 abonaturen muga kiroldegiak, eta 2018a bukatzerako 205 gehiago zituen. Horietatik %73,2 ziren aretxabaletarrak, %14,1 arrasatearrak, %5 eskoriatzarrak eta gainerakoak, beste herri batzuetakoak. 2015 eta 2018 bitartean, urtetik urtera batez besteko igoera %7,5koa izan dela adierazten dute datuek. "Gora eta gora goaz eta oso pozik gaude. Halako batean, geratuko gara, inguruko kiroldegiak berriro egingo dituztela jakinik, baina, bien bitartean, gustura", adierazi du Mikel Uribebarria Kirol zinegotziak, eta gaineratu: "Instalazioa bera asko erabiltzen da, kantxa, gimnasioa zein igerilekua, eta hori ona da".

Kirol jardueren erabiltzaile kopuruak ere gora egin du. 2018-2019 ikasturtea irailean hasi zuten, eta, oraindik beste sei hilabete geratzen badira ere,



Ibarra kiroldegiko gimnasioa. AITOR ZUAZABETIA

jakinarazi dute dagoeneko %9 egin duela gora aurreko ikasturtearekin alderatuta. Irail eta azaro arteko hiru hilabeteetan, gainera, 700 erabiltzaileen muga gainditu zuten. Hala, guztira, 137.555 erabiltzaile izan zituzten 2018an –datu horretan ez daude sartuta ikastetxeetakoak, Leintz eskola kirolekoen eta federatuen erabilerak–. "Jarduerekin asmatzen gabiltzala esango nuke, prezio onean emanda, eta herritarrek gustura dabilta", dio Uribebarriak. Zerbitzu hori Athlon kooperatibak eskaintzen

du eta oso pozik daudela haiekin jakinarazi du; horren adibide da beste bi urterako luzatu izana jardueren ardura. "Kirolaz harantzago, harrera zerbitzua indartu egin dugu, eta bi lagun daude orain, bereziki jende gehien dabilen orduetarako".

Diru balantzeari dagokionez, ostera, 799.298 euroko sarrerak izan zituen eta 882.534 euroko gastuak; hortaz, %90,6ko autofinantzaketa lortu zuen 2018an. "Helburua %80ren bueltan jarrita dugu; hortaz, ondo gabiltza", adierazi du.



Silvia Triguerosen gaineko solasaldia, Arkupen. MIRARI ALTUBE

Kirol kontuen gaineko hitzaldiak

Ibarra kiroldegiko kideek, Athlonekin elkarlanean, hitzaldi sorta bat bat eskaini gura diete herritarrei. Otsailean egin zuten lehenengoa Silvia Trigueros mendi lasterkariarekin eta haren prestatzaile fisikoa den Kepa Larrearekin. Laster iragarriko dute hurrengoa.

Domeka arratsaldetan zabalik

Kiroldegiaren ordutegia moldatzen joan dira, erabiltzaileen beharrak ase nahian. Hala, iaztik, 07:00etan zabalitzen dituzte bertako ateak. "Herritarrek asko eskertu izan digute hori. Beste aldaketa bat izan da negu partean, domeka arratsaldetan, zabaltea. Eguraldi txarra dagoenetan jende asko gerturatzen da". Horrek Aste Santuak arte iraungo du. "Aurten urtarrilean ekin genion neguko ordutegiari, baina datorren denboraldian azaroaren lehen hasiko gara", dio Uribebarriak.

Aldiro egiten dituzten gogobetetasun inkestatan jasotako ekarpeni kasu eginda moldatu zuten ordutegia. Azken inkestean arabera gustura daudela erabiltzaileak kiroldegiarekin zein zerbitzuarekin adierazi du Kirol zinegotziak.

Fitness gela handitu

Aurten bi inbertsio egiteko asmoa du Udalak. Batetik, kantxako lurzorua erosi dute ekitaldi berezietan –bazkariak, ikuskizunak...– tapatu ahal izateko: "Badugu babesgarria baina erosoagoa lortu gura genuen eta erosita dago". Eta bestetik, fitness gela handitu gura dute, hainbat ordutan oso beteta izaten delako: "70.000 euro jarrita dugu horretarako eta hainbat aukera aztertzen gabiltza. Datarik ez dugu zehaztu lanetarako, baina aurtengo ekitaldian izango da".

137.555 ERABILTZAILE IZAN ZITUZTEN IAZ ATHLONEK GIDATUTAKO KIROL JARDUERAK

Korrikaren baitako bertso afarirako txartelak salgai daude

Apirilaren 12an, egubakoitza, izango dira Unai Iturriaga eta Oihana Iguaran Uratz Alde elkarteak

M.A. ARETXABALETA

Garesen hasi eta Gasteizen bukatuko den 21. Korrikaren etorrera girotzeko gertatze lanek aurrera jarraitzen dute, eta egunotan banatuko dituzte merkataritza eta ostalaritza gunee-

tan eta enpresetan Korrika lagun izateko deialdiak. Korrikaren bueltan sortu den batzordeko kideek dihardute antolatze lanetan, eta apirilera, dagoeneko zehaztuta daukate egitarau txukuna.

Bertso afaria da egitarauko ekitaldietako bat; apirilaren 12an, egubakoitza, egingo dute, Uratz Alde elkarteak, eta Unai Iturriaga eta Oihana Iguaran bertsolari ezagunak gonbidatu dituzte mahaiaren buelta girotzera. Harako txartelak dagoeneko salgai dituzte honako hiru guneha: Taberna Berri eta Urbaltz tabernetan eta Lorramendi elkarteak. Lorramendiko bazkideek 20 euro ordainduko dute afaria eta gainerako herritarrek, 22 euro.

Antzezlanen topagune izango da Arkupe datozen bi asteetan

Herriko ikasleek gertatutako antzezlanendako prestatuko dute Arkupeko oholtza datozen asteetan. Arizmendi Ikastolako Almen gunekoek martxoaren 13an eta 14an eskainiko dizkiete euren lanak herritarrei eta Kurtzebarri Eskolakoek, hilaren 20an eta 21ean. Saio guztiak dira 17:00etan, eta ikusleen txalo zaparraden zain izango dira.

'Hegotik iparrerantz' ikuskizunerako sarrerak Arkupen

Aitor Sarasua gogoan izanda Von Hippel Lindau sindromearen ikerketarako dirua jasotzeko antolatutako *Hegotik iparrerantz* ikuskizunerako sarrerak Arkupen dituzte, 5 eurotan. Martxoaren 16an da ekitaldia, kiroldegian, eta, besteak beste, izango dira Mixel Ducau, Caroline Phillips, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Anje Duhalde.

Nerabeen beharren ikerketa aurrera doa

Aisialdiaren gainean egindako diagnostikoaren nondik norakoan berri eman diete astean gurasoei eta hezitzaileei, eta orain, bigarren fasea jarriko dute abian; partaidetzan oinarritutako lantaldeak sortuko dituzte, gai batzuk sakonago lantzeko

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaleako eta Eskoriatzako nerabeen aisialdi beharren gainean egindako ikerketaren berri eman zieten, eguaztenean, 12 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei eta horiekin lanean diharduten hezitzaileei Farapi kooperatibako kideek. Udal ordezkariak, UDAko kideak eta gaztelekuko hezitzaileak elkartu ziren, besteak beste, gurasoekin batera. Eta aurkezpenaren bukaeran, hainbat hausnarketa partekatut zituzten horiek guztiek.

Denbora libre, garrantzitsua

Herriko bi ikastetxetako 112 ikaslerekin elkartuta, horiek zelan bizi duten nerabezaroa jaso dute diagnostikoan: "Mugarritzat adierazi dituzte DBHn sartu izana, espazio berriak konkistatu nahia, ardurak hartzea, kontzientzia piztea...", zioten Farapiko kideek. Eta bi aisialdi mota bereizten dituztela jaso dute: aste barrukoa, arautua -ingelesa, kirol jarduerak...- eta aste bukaerakoa, libre: "Modu intentsuan bizi dute hori, lagunak ardatz direla". Eskaeren artean, ostera, honakoak nabarmendu dituzte gazteek: "Norberaren autonomiaren garrantzia, denbora falta, espazio propioaren nahia, jaietan euren ekintzen beharra, pertsona erreferenteen garrantzia eta Udalarekiko urruntasuna, besteak beste".

Horiek guztiak entzunda gizarateak bultzatzen duen eredu, helduen hausnarketa beharra eta substantziak kontsumituko ez diren espazioen nahia aipatu zituzten elkartutakoek.

Bigarren fasean, parte-hartzea

Behin diagnostikoa aurkeztuta bigarren fase bati ekingo diote: parte-hartzeari. "Prozesuaren erdigunean egongo dira nerabeak eta elkarlanerako marko erosoak sortuko dugu. Fokua prozesuan



Maider Etxaniz -Gazteria teknikaria- eta Farapiko ordezkariak, hitzaldian. M.A.

jarriko da eta elkarrekin erakitzeke aukera izango dugu, nerabeen ahalduntzea bilatuta", zioten Farapikoek. Partaidetza saio hori aurten egingo da, eta hiru fase izango ditu: lehenengoan, ikasle guztiek hartuko


dute parte, gai garrantzitsuenak erabakitzeke; gero, lantaldeak sortuko dituzte, gai zehatzak lantzeko; eta kontraste fase bat egongo da bukaeran. Helburua aisialdiaren gaineko hausnarketa bultzatzea dela aipatu zuten.

Zer jaso da ikerketan?



MAIDER EGUKITZA
FARAPIKO KIDEA

"Fase konplexua dela nerabezaroa, igarotze fase bat, eta tarteko egoera lauso bat lez bizi dute. Aisialdia oso zabala da eta guk erretratu orokorra egin dugu bi herritako ikasleen lagin batekin, 112 lagunekin; horregatik, gai batzuek sakontze lan bat eskatzen dute".



MAIDER ETXANIZ
UDALEKO GAZTERIA TEKNIKARIA

"Aisialdiaren gaineko hainbat pista eman dizkigute. Ekintzak gainezka daudela adierazi dute nerabeek, eta aisialdia askatasunarekin lotzen dute; ez, hainbeste, ekintzekin. Lagunekin bakarka egoteko lekuen beharra agertu da. Eta substantziekin presio bat ere badagoela ikusi da".

Jon Sarasuak hainbat gogoeta partekatuko ditu martitzenean

'Pentsamenduak eta ideologiak: betaurreko bifokalekin etorkizunari begira' hitzaldia eskainiko du Arkupen

Aitor Zuazabeitia ARETXABALETA

Herrigintzari buruzko hainbat gogoetaren berri emango du hilaren 12an, Arkupen (18:30), Jon Sarasuak: *Pentsamenduak eta ideologiak: betaurreko bifokalekin etorkizunari begira*.

Aretxabaleatik Euskal Herria eta Euskal Herritik mundura, herrigintzari begira etorkizunerako ikuspuntuak eta hausnarketak azalduko ditu, eta hainbat abiapuntu aztertu elkartzen direnekin. XX. mendeko ideologiei erreparatuta, horietatik mantentzea interesgarria izango lirate-

keen puntuez eta, aldi berean, baztertu beharrekoez arituko da. Horrekin, Euskal Herriko herrigintzarako ekarpen posibleen inguruko hausnarketa sustatu gura du. Sarasuaren arabera, irekitasunerako behar handi bat dago gaur egungo gizartearen, "hain barneratuta dauden ziurtasun ideologikoak lasaitzeko beharra". Herrigintzaren garapenerako norabideak aztertzen ibili da, eta, dioenez, betaurreko bifokalekin aztertu behar da gaia; bai gertuko ikuspegi batetik, eta baita ikuspegi global batetik ere.

GORA ETA BEHERA



OIER ETXEBARRIA

Herriko Plaza, zikinkeriaz beteta



Herriko Plaza hondakinez eta zikinkeriaz beteta ikusi du herritar batek, eta hori salatu gura izan du. Argazkia, gainera, ez da jaietan ateratakoa, aurreko asteko egun batean baizik.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Jon Díaz
Karakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Rita Barbera lekukoarekin. I. SORIANO



Ikastetxeetako neska-mutikoak dantzan, martitzenean, plazan. AITOR ZUAZABEITIA

Mozorro originalak eta umoretsuak, beste behin

Rita Barbera 'Clica corriendo' lekukoarekin korrika ikusi dute herritarrek, Francoren zerraldoa kaleetan gora eta behera, Freddie Mercury bat baino gehiago kantuan, dragoi txinatarrak dantzan eta ume kuadrilla mordoa kalejiran ilusio handiarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Aratuste-domekaren arrastoa oraindik ere ezagun da herriko bazterren batean edo beste –Mitarde kalean txapel handia dago farol batean sartuta–; izan ere, aurtengoa sekulakoa izan da askorendako. Mozorro dotoreak ikusi ziren kalejiran, aparteko eguraldiak egin zuen lagun eta festa giroak luze jo zuen, beste behin.

Mozorro desfilea inoiz baino jendetsuagoa izan zen, gaztetxo kuadrilla askok parte hartu zuten. Horien artean sarituak izan ziren: Ferrariak, Maripertxentak, Mafia italiarra, Maria Bros eta Kadillak Mafia. Helduen artean, ostera, ohiko kuadrillek ez zuten hutsik egin. Originalenaren saria *Clica corriendo*-k jaso zuen, hain zuzen, sare sozialetan ere zeresana eman duen mozorroak; animazio onenarena *Queen*-ek; muntaia onenarena UDAkoek, Erorien Haranaren irudikapenagatik; talde txikien saria Matriuskak jaso zuen eta hainbat adinetako talde onenarena, billarrak eta mahai-futbolak. Apaindutako balkoi dotoreenarendako ere izan zen saria, eta Nerea Etxean-diari eman zioten hori. Udal ordezkariak banatutako diruzorroak pozik jaso zituzten saritutako guztiek.

Umeak eta merkatariek

Ikastetxeetako neska-mutikoek, 500 inguruk, martitzenean bete zituzten kaleak mozorroz eta jai giroz. Ohiturari jarraituz, Herriko Plazan egin zuten dantzan, txino dantza eta Aratusteetarako bereziki gertatutako koreografia. Eta gero, kalejiran joan ziren.

Herriko merkatariek ere ospatzen dute Aratuste-martitzena,

eta dendak itxi eta jai giroan murgildu ziren horietako hainbat, mozorroa jantzita eta elkarrekin bazkalduta.

Merkatariek, umeek zein gainerako herritarrek iluntzean agurtu zituzten aurtengo Aratusteak. 2000. urtean jaiotako kintoek eraman zuten *Txin*-en zerraldoa plazaraino, eta han erre egin zuten jaiok agurtzeko.

Domeka gaueko giro "ez egokia"

Egunean izandako jai giroa gauean aldatu egin zela adierazi gura izan du Jose Migel Uribarren Kultura zinegotziak: "Gaueko ordu txikietan giroa aldatu egin da bat-batean, giro atseginetik etsai-girora pasatu gara: edukiontzia erreta, kristalak apurtuta, borrokak...". Hain zuzen, bost edukiontzi erre ziren gau hartan.

Eta jarrera horiek salatu ditu: "Horrelako jendea soberan dago gure herrian, gure jaiak bakean gozatu nahi ditugu! Gaua eta mozorroa aprobetxatuta, ezkutuan gure kaleetan modu ez zibilizatuan ibili dira. Jarrera hauek ez datoz bat gure izaerarekin eta egunean zehar izan dugun giroarekin. Eguna horrela amaitzea ez da bidezkoa!". Halakoak gerta ez daitezkeen neurriak aztertuko dituztela gaineratu du: "Baina formularik onena elkarrenganako errespetua eta zentzuz jokatzeko da!".



Edukiontzia erreta. M.A.



Lehen faseko partidu bat jokatzen Iturrigorrin. OIHANA MATA

Frontenis txapelketaren azken txanpa gaur, pilotalekuan

UDAk antolatutako txapelketaren finalak bat egingo du Martxoaren 8arekin, eta 21:30ean jokatuko da

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkarteak seigarrenez antolatu duen Emakumeen Frontenis Txapelketa iritsi da bukaerara, eta gaur, Martxoak 8, jokatuko dituzte finalaurreko partiduak (20:00) eta finala (21:30).

Txapelketa "motza eta polita"

Lehen partiduan (20:00), Mireia Rubio eta Maitena Mañarikua bikote elgetarrak jardun du Maite Fraile eta Amaia Gaztañaga aretxabaletarren aurka. Eta bigarren finalaurrekoan (20:30), Agurtzane Elkoro eta Oihana

Mata aretxabaletarrak Laura Saez eta Inge Sancristobal gasteitarren aurka izango dira nor baino nor gehiago.

Behin finaleko aurkariak erabakita, atsedentxo hartuko dute horiek, eta gaztetxoaren arteko partidua izango da finala hasi bitartean. Aurtengo onenek, ostera, 21:30ean jokatuko dute elkarren aurka.

Aurtengo txapelketan hamar bikote jardun dute, eta antolatzaileak "oso pozik" daude: "Txapelketa motza eta polita. Jendea oso gustura dago eman duenarekin".



MIKEL URKIA ZULOAGA

Bolatokiaren estreinaldi dotorea

Hiru Txirlo Txapelketaren botaldi bereziak jokatu ziren joan den zapatuan Aretxabaletako bolatokian, lehiaketari hasiera emateko. 72 bolari elkartu ziren, eta horietatik seik zortzi txirlo bota zituzten. Eibarko Sergio Rodriguez izan zen nagusi, eta Markina-Xemeingo Mateo Guenaga geratu zen bigarren; Aretxabaletako Inaxio Bengoa, ostera, bosgarrena izan zen.

"Komunitate osoak inplikatu beharra dauka"

MAIDER EGUZKITZA FARAPI KOOPERATIBAKO KIDEA

Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek eskatuta, nerabeen aisialdiaz ikerketa egin dute Farapikoek. Emaizak martxoaren 12an emango dituzte, Ibarraundin, 18:30ean

Imanol Beloki **ESKORIATZA**

Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek elkarlanean nerabeen aisialdiaren gainean egindako ikerketa Farapi kooperatibak gauzatu du. Iaz udazkenean lan-keta egin zuten, eta, emaitzak jaso berri, gurasoei eta nerabeekin lanean aritzen diren hezitzaile, eragile eta bestelakoei horien berri eman nahi diete. **Ikerketa horren abiapuntua zein da?**

Ikerketa horren aurretik, Eskoriatzako eta Aretxabaletako nerabeekin drogen gaineko ikerketa egin zen, eta aurrera bidean aisialdia modu orokorragoan lantzeko beharra ikusi zuten. Hortik abiatu zen orain esku artean daukagun ikerketa. Nerabeek aisialdiarekiko duten errealitatea ikertu dugu, eta errealitate horretara hurbildu gara, eurek aisialdiko denboran dituzten interes eta beharrak ezagutzeko. Baita nerabezaro fase horretan dauden ezaugarriak, balioak... Azken finean, fase konplexua da, eta hortik ezagutza bat eskuratu dugu.

Nerabe horiek 12 eta 16 urteko ikasleak dira; nola gauzatu duzue ikerketa?

Ikerketa fase honetan, eztabaida saioak egin ditugu. Metodologia eta dinamikak eraginkorrak izateko, ez da komeni klase oso bat edo talde handiak batzea. Halakoetan, lagin bat hartzen dugu, eta, horretarako, hainbat irizpide baliatu ditugu: adina, generoa eta ahalik eta profil anitzenak biltzea. Taldeak bost eta hamabi pertsona artekoak izan dira; Eskoriatzako Arizmendi-Almen ikastetxean sei talde egin dira eta Aretxabaletako Kurtzebarrin, berriz, bost talde. Guztira, 112 nerabe inguruk hartu dutela parte esan dezakegu.

Zein metodologia erabili duzue?

Talde horiek diseinatzekeo garaian, adina eta generoa zaintzea



Maider Eguzkitza, Farapi kooperatibako kidea. MIRARI ALTUBE

"IKERKETA EGITEKO ADINA ETA GENEROA ZAINTEA GARRANTZITSUA ZELA ERABAKI GENUEN"

garrantzitsua zela erabaki genuen. Adibidez, DBHko 1. eta 2. eta 3. eta 4. artean ezberdintasun handiak daudenez, lehen ziklokoak bigarrenekoekin nahastu ditugu. Horrez gainera, talde batzuk soilik neskenak, beste batzuk mutilenak, eta mistoak egin ditugu.

Gai asko landu dituzue; batu dituzuen datu esanguratsuenak zeintzuk dira?

Oso zaila da ideia nagusi batekin dena biltzea. Hala, gaika bereizi ditugu ideia nagusi batzuk. Nerabezaroa igarotze fase baten moduan ulertzen dugu, eta hala ikertu dugu, eta ikasleek ere hala ulertzen dute. Eurek esaten zuten: "Ez gara haurrak, baina nagusiak ere ez". Tarteko egoera batean daudela badakite eta tarteko egoera lauso bat sortzen du, nerabezaroak dituen konplexutasun guztiekin. Na-

gusi izateko bidean euren dako gakoak ziren bizipen edo mugarrak batzuk aztertu ditugu: autonomiari lotutako gauzak, esperimentazioa, ardurak gehitzen doazela, ingurunearekiko kontzientzia pizten hasten zaie, euskararen egoerarekiko kezka dute... Aisialdiko denborari dagokionez, berriz, aste barrukoa oso egituratuta daukatela ikusi dugu. Asteaz zehar daukaten denbora librea iluntzeetan ematen da, nekatuta daudenean, gehienak telebista aurrean, lasai egoteko... Asteburuak, berriz, eurentzako benetako aisialdiak ematen diren momentuak dira. Modu intentsuan bizi dituzte asteburuak, eta hor kokatzen dira euren biografian garrantzitsuak izango diren bizipenak eta harremanak.

Noiz emango diezue emaitza hauen berri gurasoei?

Kontzientziak pizteko, eta eraldaketak behar badira, komunitate osoak inplikatu beharra dauka. Beraz, gai honetara hurbiltzeko eta ikerketaren emaitzen gainekoak ezagutzeko saioa Eskoriatzan martxoaren 12an emango dugu, Ibarraundi museoa, 18:30ean.

Hezkidetzak ipuinak, Tortolis ludotekako haurrei zuzenduta

Martxoaren 8a ardatz, genero berdintasuna eta rol banaketa izan dituzte hizpide Tortolis ludotekan

I.B. ESKORIATZA

Atzo, eguena, nesken eta mutilen arteko berdintasuna sustatzen duten hezkidetzak ipuinak izan zituzten entzungai Eskoriatzako Tortolis ludotekako haurrek.

Hain zuzen ere, ipuin klasikoak irakurtzeko beste era bat ere badagoela adierazi nahi izan zuten. Hori horrela, berdintasunaren ikuspuntua kontuan hartuz, biolentzia, sexismoa, ezberdintasunak eta edertasunarekiko menpekotasuna kentzea izan zuten helburu.

"Ludotekan komikiak eta ipuinak sortzen dituzte haurrek, eta jabetu gara mutilek eta neskek rol berak dituztela. Hau da, futbolaria margotu eta gizona da, dendaria margotu eta emakumea da... Hori horrela, hainbat urtez lantzen ari garen jarduerari jarraipena emateko helburuarekin antolatu dugu hezkidetzak ipuinen saioa. Denon artean asmatutako ipuin batekin amaitu zuten saioa, Martxoaren 8a ardatz izanda", adierazi du Nekane Atxagak, ludotekako arduradunak.



IMANOL BELOKI

Espazio librerako gunea, abian

Santa Ana eta Santa Marina arteko lanak martxan daude; lurra egonkortu eta baldosak jarri dituzte zati batean. Horrekin batera, atzo, Arbiñoste eta Aranburuzabala arteko bidegurutzean lanak egiten ari zirenez, Arbiñosteko errepeidea itxita izan zen. Ondorioz, plaza pareko errepeidean bi noranzkotan ibiliko da zirkulazioa, eta, bukatu ezean, gaur ere itxita egongo da bidea.

Atamako bost borrokalari Espainiakora

Eskoriatza Atama Kenpo taldeko bost borrokalari Galiziarra joango dira, datorren asteburuan, Ribeiran jokatu den Espainiako kenpo txapelketara.

Lehiaketa martxoaren 16ko eta 17ko asteburuan izango da, eta podiuma lortzen duten kirolariek mundu mailako txapelketan lehiatzeko txartela jasoko dutela adierazi du Rafa Carriet

entrenatzaileak: "Dominaren bat edo beste lortzeko aurreikuspenaz goaz Espainiakora. Hala, mundukorako emaitza onak lortzea da helburua".

Rafa Carrieten gidaritzapean, honako hauek lehiatuko dira: Mikel Beloki, Argitxu Zubillaga, Leire Rato, Iosu Maqueda eta Jose Luis Maqueda. Borrokalari bakoitza bere kategorian lehiatuko da: kata, defentsa pertsonala, puntuko borroka, borroka jarraitua eta fullkenpo modalitateak izango dira.



Harry Potter fantasiazko eleberriko protagonistak mozorro-desfilean. AITOR AGIRIANO



Bandakoen kontzertuan. IMANOL SORIANO



Kukumarruak kultura etxetik plazara irten ziren momentua. ARANTZA UNZUETA

Musikaz eta kolorez betetako Inauteriak

Inauteri-zapatuko mozorro-desfilea arrakastatsua izan zen, parte-hartze handiarekin. Horrekin batera, Inauteri-martitzenean, Eskoriatzako ikastetxeetako haurren dantzak izan ziren frontoian eta arratsaldean, kukumarruak haurren atzetik aritu ziren

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Inauteriak kolorez, musikaz eta orotariko mozorroz beteta egon dira. Zapatuan izan zen egun handia, eta, eguraldia lagun, mozorro-desfilea arrakastatsua izan zen. Izan ere, parte-hartze handia izan zuen, eta karroza apartak ikusteko aukera izan zen. Besteak beste, trabestiak eta Iregitarren idiprobak. Horrekin batera, talde txikiak handiak eta norbanakoak euren mozorroen paperean sartuz, umorea izan zuten nagusi; hain zuzen ere, ederto pasatu zuten eta ikusle guztiak animatu zituzten.

Bandakoen emanaldi berezia

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako bandakoak zirkuko artista handi bilakatu ziren pasa den egubakoitzean, Zaldibar antzokian. Ez zen kontzertu soila izan; izan ere, musikaz gain, eskujokoak eta zirkuarekin lotutako beste hainbat kontu ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Inauteri-martitzeneko dantzak

Aurten ere ez dute hutsik egin Eskoriatzako ikastetxeetako haurren dantzak, Joseba Iñurategi pilotalekuan. Gainera, Martxoaren 8ari keinu egin

zieten, kolore morea nabarmen erakutsita. *Mari aske super* heroinak, sorginak eta piratak, munduko emakumeak eta beste mila modutako mozorro ikusi ahal izan ziren Inauteri-martitzeneko jaialdian. Harmailak bete egin zituzten etxeokoe haurren dantzak ikusteko, eta giro aparta izan zen.

Inauteriei amaiera emateko, berriz, Eskoriatzako pertsonaia nagusiak diren kukumarruak irten ziren plazara, herriko haurrek zirikatzen eta beldurtzen, eskuan puxika zutela. Horren ostean, DJon izan zen plaza girozten musika jarrita.



Luis Ezeiza eskolako txikiak *Mari aske super* mozorroarekin, dantzan. IMANOL BELOKI



Arizmendi-Almen guneko piraten dantza, frontoian, Inauteri-martitzenean. I.B

Igor Meltxorrek apustu etxean gainean jardungo du

Debagoieneko hainbat herritan izan ostean, martxoaren 13an, datorren eguaztenean, Igor Meltxor idazle eta ikerlaria *-Kazetari kanalla* moduan ezaguna dena- izango da Zaldibar antzokian, *Zer dago apustu etxean atzean?* hitzaldia eskaintzen.

Saioa 19:00etan hasiko da, eta bertan, apustu etxean gorakada, horiek kirol taldeekin dituzten

harremanak, horiekiko mende-kotasuna eta halako gaiak jorrratuko ditu ortuellarrak.

Oñatin, esaterako, drogen adizioarekin konparatu zuen apustuen mundua, urtarrilaren 23an eskaintako hitzaldian: "Drogen menpekotasunarekin paralelismoa egitean, hasieran jendea harrituta gelditzen zen, eta orain, motz gelditzen naizela esatera iritsi dira", adierazi zuen, eta gaineratu: "Normalizatuta dagoen arazoa da adizioa, eta sozializatu egin behar da".

Sagardotegira irteera antolatu dute Eingeinke elkarteok

Martxoaren 23rako -zapatua- sagardotegira irteera antolatu dute Eingeinke kultura elkarteok. Hala, herriko kuadrilla ezberdinetako jendea batu eta egun ederra ospatzeko asmoz antolatutako ekimenean izena emateko azken eguna martxoaren 10a izango da.

Eguerdia arteko poteoa Eskoriatzako irteera antolatu dute. Eguerdia arteko poteoa Eskoriatzako irteera antolatu dute.

Akeitako geltokitik irtengo dira, autobusean, Aramaioko Unzuetara sagardotegira. Bertan bazkaldu -menu begetarianoa egongo da nahi duenarentzat-, eta 18:30ean bueltatuko dira. Gehieenez 50 pertsona izango dute joateko aukera, eta prezioa, guztira, 35 eurokoa izango da. 10 euro fidantzan jarri beharko dira aurretik, Inkernu tabernan, izena emateko garaian, eta 25 euro bazkaltzera joan aurretik jarri beharko dira, autobusean bertan.

Odol ateratzeak egiteko autobusa bi egunetan izango da

Odola emateko dei egin dute Arabako odol emaleen elkarte-kideek. Horretarako, autobusa gaur eta martxoaren 14an izango da, plazan. Odola eman nahi duenak 16:30etik 20:15ak arte izango du aukera, eta 18 eta 70 urte bitartekoek eman ahal izango dute odola. Lehen aldiz joaten direnek, ohi moduan, galdetegia osatu beharko dute.

2018ko Mendi Tourreko lan onenak Zaldibarren

'Wallmapu' eta 'The Weight Water' filmak martxoaren 12an proiektatuko dituzte, 19:00etan, Zaldibar antzokian, eta martxoaren 15ean, berriz, 'The Search for the Woo', 'RJ Ripper', 'Liv along the Way' eta 'Age of Ondra', 22:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Bilbao Mendi Film Festival-eko lan onenak urte osoan zehar ikusteko aukera ematen duen mostra da Mendi Tourra, nazioarteko mendi zinemagintzarik onenaz eta gaur-gaurkoenaz gozatzeko aukera ematen duena. 2018an 50 hiri edo herritan aurkeztu ziren filmak; Euskadi eta Nafarroaz batera, Errioxa, Kantabria, Asturias, Galizia, Gaztela eta Leon, Madril, Andaluzia, Valentzia, Katalunia, Aragoi eta Kanaria Handian. Hori horrela, mendiko zinema onena, muturreko kirolak, abentura eta natura gaiez josia, ikusi eta gozatzeko irrikaz dagoen oro asebetetzeko, martxoaren 12an eta martxoaren 15ean izango da aukera Zaldibar antzokian egongo diren proiektzioetan.

Eskoriatza Kirol Elkarteak eta Bilbao Mendi Film Festival-ek antolatuta, eta Eskoriatzako Udalak babestuta, bi egunetan izango da hainbat ikus-



Laburpen bideoko fotograma bat. MTFE

entzunezko ikusteko aukera; guztiak ele bitan izango dira. Martxoaren 12an, 19:00etan, *Wallmapu* eta *The Weight Water* filmak ikusi ahal izango dira Zaldibar antzokian eta martxoaren 15ean, 22:00etan, berriz:

The Search for the Woo, *RJ Ripper*, *Liv along the Way* eta *Age of Ondra*.

Martxoaren 12an, bi lan ikusgai
Martxoaren 12ko emanaldiko lehenengo proiektzioa *Wallmapu* izeneko da, sei minutuko lan bat, eta 2018ko BMFFko Sail Ofizialeko lana. Ondorengo ikusentzunezkoa, bestalde, *The Weight Water* izeneko da, 78 minutukoa. Azken hori, hain zuzen, 2018ko kirol eta abentura film onena izendatutakoa.

Sarrerak, kiroldegian

Saio bakarrera joan nahi duenak hiru euro ordaindu beharko ditu, eta bost euro bi egunetara joan nahi duenak.

Sarrerak alde aurretik Manuel Muñoz kiroldegian erosi daitezke; dagoeneko salgai daude. Edozelan ere, antzokian lekua geratuz gero, egunean bertan leihatilan erosteko aukera ere izango da.



Dorleta Santutegiko erakusketa ikusi ondoren ateratako argazkia. AITOR AGIRIANO

60ko hamarkadako kontuak gogoratu, gustura erretiratuak

"Erakusketa gustukoa, solasaldia ederra" esanez, arrakastatsua izan dela adierazi dute antolatzaileek

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Santi Ayastuy –KASeko txirrindulari ohi antzuolarra–, Jose Luis Saez de Olazagoitia –Erromara bizikletaz joandakoa–, Ignacio Arranz –Arabako Txirrindularien Federazioko lehendakari ohi–, Fausto Iza –KASeko txirrindulari ohi arratiarra–, Felipe Alberdi –KASeko txirrindulari ohi zornotzarra– eta Manolo Zubillaga –Leintz Bailarako txirrindulari lasterketen antolatzaile eta lekukoa– izan ziren pasa den egubakoitzean, txirrindulari zireneko pasarte ederrak kontatzen.

Pasadizo paregabeekin gustura

"Alberdik erorketa bat izan zueneko kontakatu zuen. Arto artean gorde, berriz lasterketara bueltatu eta irabazi zueneko. Ayastuik, berriz, Frantzian, lasterketa aurretik 06:00etan jaiki eta arroz sikua eta txuleta jan zueneko; arrozarentzat gurina eskatu eta garagardoa atera zioteneko... Pasadizo ederrak kontakatu zituzten, zehaztasunekin josiak... Etxera ezin joan, gustura barriketan... eta besteok entzuten ere ederto", adierazi du Alberto Altubek, Dorleta Txirrindulari Elkartearen kideak.



JUAN LUIS MARKAIDE

Hiruatz-Ugastegi mendi irteera izango da domekan

Eskoriatzako eta Aretxabaletako guraso foroak, *Makila eskuen eta ibili basuen* egitasmoak eta Murruxiko mendi elkarteak antolatuta, mendi irteera egingo dute domeka honetan. Hitzordua 09:30ean egin dute Huzei unibertsitateko aparkalekuan, eta, handik abiatuta, Hiruatz eta Ugastegira joango dira. Familiei zuzendutako irteera bada ere, edozein herritarrek parte har dezakeela jakinarazi dute egitasmoaren kideek.

Ez dago izenik aurrez eman beharrik, eta joan-etorria bakoitzaren ardura izango da, baina umeek ezinbestean heldu batekin joan beharko dutela adierazi dute antolatzaileek.



EDORTA ARANA

Lore-eskaintza ama birjinari

Eskoriatza Txirrindulari Elkartearen zikloturistak Dorletako Ama txirrindularien zaindariari lore-eskaintza egitera joan ziren otsaileko azken domekan. Guztira, hogeitaz lagun inguru joan ziren Eskoriatzatik Arlabanera, urtero egin ogi duten moduan, eta bertan, beste hainbat zikloturista taldeekin batu ziren; esaterako, Sociedad Ciclista Vitorianoekin.

Sutea izan da abade-etxean

Martitzenean, sutea piztu zen Dorletako Santutegi ondoko abade-etxean. Bizilagunek GOIENARI adierazi ziotenaren arabera, 18:15 inguruan piztu zen sua, eta 19:40 alderako itzalita zuten. Teilatuaren zati bat erre da –8 metro koadro inguru–, baina ez da kalte handiagorik egon. Suhiltzaileen arabera, tximinia inguruko egurren batek su hartu, eta horrek eragin zuen sutea.



EAJko zinegotziak udal aurrekontuaren kontra bozkatzeko, martitzeneko ezohiko osoko bilkuran. JULEN IRIONDO

Udal aurrekontua onartu dute: 2.156.850,84 euro

Gobernuaren aldeko botoekin eta EAJren kontrakoekin egin dute aurrera 2019rako kontuek. Iazkoa baino %3,81 handiagoa da, musika etxea egitera bideratuko den diruak eraginda, bereziki; ia bederatzitaurotik bat izango da proiektu honetarako

Julen Iriondo ARAMAIO

Otsailari zegokion osoko bilkuraurreko astean egin ez eta martitzenean, ezohiko batzarrarean, onartu zuen udalbatzak aurtengo urterako aurrekontua. Inbertsio errealean kapituluan izan da igoera adierazgarriena, %8,33, musika etxeagatik -246.962,02 euroko aurrekontua

dute lanek; 109.000 Aldundiaren Foru Planetik iritsiko dira-, eta horrek eragindakoa da aurrekontuaren beraren %3,81eko handitzea ere.

"Igoera da obra potoloa datorrelako, Foru Planaren laguntzarekin egingo dugun musika etxea -beste zatia guk jarri beharko dugu edo beste lagun-

tzaren bat lortu-; eta inbertsio nahikoa politak daude, horrez gain: eskolako arrapalaren bigarren fasea gauzatu [27.000 euro]; mendiko mantentze eta hobetze ekimenekin jarraitu [100.000 inguru]... Gero, dirulaguntzak eskatu ditugu -ez dakigu emango dizkiguten- Zalgoko bidea konpontzeko [35.000], Etxaguenen

azulana egiteko [23.000]...", zioen Lierni Altuna alkateak aurrekontuaren edukiez.

Beste inbertsio batzuk izango dira: Ibarren led argiak jartzeko (15.000); turismoarekin lotutako seinalezapena egokitzeko (13.000); parke txiki-lanen bigarren fasea egiteko (15.000)...

Diru sarrerei dagokienez, balio katastralen eguneratzeak, adibidez, ekarriko du igoera txiki bat, baita zaborraren eta uraren eta saneamenduaren ordenantzak berritu izanak ere. Aldunditik eta dirulaguntzetatik ere iaz baino gehiago jasotzea espero dute. Gastuei dagokienez, udal langileen soldatak %2,25 igoko dira Eudelen irizpidea segituz, eta lanpostuen azterketa ere egin dute, eta horrek ere eragingo du soldatak egokitzea.

Oposizioaren kritikak

EAJk alkateari egotzi zion aurrekontuaren lanketa batzordez batzorde egin ez izana: "Ez da galdetu ere egin: 'Zer litzateke Kultura batzordekoen ustez lehenetsi beharrekoa datorren urteko aurrekontuetan? Edo zenbat dirurekin?'. Ez, hau zure kabinetearen di-da egin duzue eta aterako duzue zuen gehiengoarekin, baina ikusten da zer nolako jarrera duzuen", zioen Roman Berriozabalek.

Gauzak bestela ikusten ditu alkateak: "Ni urte osoko ekarpenak eta beharrak joan naiz

jasotzen batzorde buru, teknikari eta abarren partetik. EAJk dioen moduan batzordeka landu daiteke aurrekontua, edo ez, jasotzen joan eta dena orokorrean landu. Egiteko era desberdinak dira".

Alkateak, gainera, EAJko zinegotzietan egotzi zion batzordeetan parte-hartze txikia eduki izana, eta euren keak osoko bilkuran aurkeztea, aurrez ekarpen edo iradokizunik egin gabe. Zentzu horretan, Berriozabalek ukatu egin zuen batzordeetan lan gutxi egin dutenik, eta, euren ekarpenei dagokienez, kasu bat gogorarazi zion alkateari: "behin eta berriz" eskatu izan duela batean eta bestean barreiatuta dauden pintura lehiaketako koadroen inbentario bat egitea. Alkateak erantzun zion eurak beti agertu direla gertu, adibidez, udal eraikinetan dauden udalbatzako zenbait kideren artean egiteko, ez duela ikusten lan horretarako diru kopuru bat gorde beharrik; EAJk, ordea, bai.

Egoera ekonomikoari dagokionez, Udalak ez du une honetan ez zorrik, ez eta inongo mailegurik ere.

BATZORDEETAN PARTE-HARTZE TXIKIA IZATEA EGOTZI ZION ALKATEAK EAJ-RI; HAU EZ ZETORREN BAT

Giro ederra izan da Inauterietan, zapatuan eta martitzenean

Egun osoko festa izan zen asteburukoa, mozzorro lehiaketarekin, eta eskolako txanda, ostera, astean

Julen Iriondo ARAMAIO

Galiarrak eta erromatarrak, rock izarrak, pailazoak eta beste hainbat mozzorro aritu ziren zapatuan herriko kaleak girotzen. Kiroldigitik plazarako ibilbidea egin zuten, eta han egin zuten mozzorro lehiaketa. Dantzak, kantuak eta musika izan ziren ikuskizunetako osagai.

Lehiaketari dagokionez, nagusietan, lehen saria *Zirkua*-rentzat izan zen, eta bigarrena *Batukada*-rentzat; originaltasunaren saria *Aizkorak zorrotzu* mozzorroak jaso zuen. Umeetan,

Alizia mundu miresgarrian sarritu zuten, batetik, eta *Euskal urtarok* irudikatu zituen taldearentzat izan zen bigarren saria.

San Martin eskolan martitzenean ospatu zuten Inauteri festa. *Ipuina* izan da aurtengorako aukeraturako gaia; askotariko ipuinak hartu zituzten aitzakia mailaz maila mozzorroak eta ikuskizunak prestatzeko. Desfilea egin zuten eskolatik plazara eta, bertako emanaldiaren ostean, txokolate jana egitera itzuli ziren ikastetxera.



Ikuskizuna egiten. IMANOL SORIANO



Bikotea mozzorrotuta. IMANOL SORIANO



San Martin eskolako ikasleak, martitzenean. JULEN IRIONDO

OHARRAK

Txirritolaren batzarra

Euskara elkarteak urteko batzar orokorra egingo du astelehenean, hilak 11, 19:00etan kultura etxean. Bazkide denei egiten diete dei parte hartzeko.

Topaketa: emozioak

Familian emozioen autokontrola egiteko gakoan gaineko prestakuntza saioa izango da martxoaren 23an Langraitzen, Aldundiak antolatuta eta herrialdeko familiei zuzenduta. 10:15ak eta 14:00ak artean izango da. Izena hilaren 15era arte eman daiteke -epmaraba@yahoo.es eta 650 47 17 18-. Autobus eta haurtzaindegi zerbitzuak egongo dira.

Beilatoki berria, herritarren eskura

Iaz urtarrilean jarri zuten mahai gainean beilatokia egitearen gaia. Asmoa, baina, abuztuan lanekin abiatzea zen arren, ekaineko uholdeen ondorioz ez da posible izan orain arte. Aurrerantzean, beilatoki zerbitzua antzuolar ororendako zabalik egongo da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolak beilatoki zerbitzua dauka aurrerantzean. Domekan egin zuten inaugurazio ekitaldia, meza nagusiaren ostean. Parrokiako saloian egokitu dute, aldea dagoen tokian; Bergarako Oroilore ehorztetxeak izan du lanen ardura eta enpresa hori bera izango da zerbitzua emateaz arduratuko dena. Familiarentzako egongela, kafe makina eta sofak ipini dituzte, besteak beste, egonaldiak ahalik eta goxoenak izateko helburuarekin.

Parrokiako diruzain Basilio Ormazabalek azaldu du Antzuolarako beharrezko zerbitzua dela, eta oso albiste pozgarria, beraz: "Norbait hiltzean, Bergarara joan behar izaten genuen. Herriarendako oso positiboa da zerbitzua herrian edukitzea". Onurak antzuolarrentzat, herriarentzat eta parrokiarentzat ere izango direla gaineratu du Ormazabalek. "Lehen, hau guztiau aldare handi bat zen; eta orain, tokia egokitu ostean, aldaire txikiagoa dugu, baina ero-soagoa dena. Neguan, gainera, ez da horren hotza izango tokia, eta gastua ere murriztagoa izango da. Gainera, elizarendako ondo etorriko den errenta ere jasoko dugu", aitortu du Ormazabalek.



Apaiza beilatokia bedeinkatzen inaugurazio ekitaldian. JOKIN BEREZIARTUA

ANTZUOLAR ORORENDAKO ZABALIK EGONGO DEN ZERBITZUA IZANGO DA BEILATOKI BERRIA

Hildakoen gorpuak ez dituzte bertan txukunduko, atonduta eroango dituzte, baina, salbuespen hori kenduta, beste edozein beilatokik eskaintzen duen zerbitzu bera eskainiko du Antzuolakoak ere. Argi utzi dute he-

rritar guztientzako egongo dela zabalik beilatoki zerbitzua.

Baimen baten zain

Iaz urtarrilean jarri zuten gaia martxan, abuztuan lanekin ahal izateko asmoz. Baina uholdeengatik atzeratu egin zuten egitasmoa eta Gabonetako oporraldia aprobetxatu dute, azkenean, obra burutzeko. Baimen baten faltan daude oraindik, baina Basilio Ormazabalek uste du berehala helduko dela eta, horrekin batera, martxan izango dela zerbitzu berria.

Antzuolar ororendako

Hileta zibila egin gura duten herritarrendako ere beilatokiak atek zabal-zabalik dituela azaldu du Basilio Ormazabalek. "Elizatik igaro gura ez duten herritarrek ere badira gaur egun; horiendako ere bada beilatoki hau, noski. Euren azken agurra egiteko txokoa dute hemen ere egokituta", argitu gura izan du parrokiako diruzainak, Ormazabalek.



Gorpua jasoko duen kutxa-hozkailua. JOKIN BEREZIARTUA



JOKIN BEREZIARTUA

Giro aparta Aratuste-domekan

Kultura teknikari Jone Larrañagak balorazio positiboa egin du: "Eguraldi onak jendea kalera irtetera eta ondo pasatzera animatu zuen. Bazkaria plazan egin genuen eta 81 lagun batu ginen. Txatxilipurdiren eskutik, dantzaldian ere gaztetxo ugari parte hartu zuen. Oso ondo atera zen dena". Dominoko fitxaz mozerrotuta zihoan taldeak eskuratu du saria.



LANDATXOPE

Umorea nagusi Landatxopen ere

Aratuste-martitzena herriko erretiratuen mozerro eguna da Antzuolan. Eta aurten ere ez dute hutsik egin. Giro onean ospatu dituzte Aratusteak Landatxope erretiratu elkartekoek. Laurogei bat lagun batu ziren afari-meriendaz eta festaz gozatzeko asmoz. Mozerro onenaren saria Maria Piedad Letek irabazi du; argazkian, sevillana mozerroa darama.



Askarruntzeko biltegia botako dute, argazkiko errepidea zabaldu eta Angiozarrerako lotura bi noranzkoko egiteko. TXOMIN MADINA

Bi noranzkoko lotura egin, eta Angiozarrek dituen hutsuneetako batzuk bete

Beheko kalearen eta plazaren arteko lotura hobetzeko lanak martxo amaieran hasiko dira eta AHTak eragindako kalteen konpentsazio gisa beste hobekuntza batzuk egitea ere aurreikusten du Udalak; Angiozarko batzarrak eskaera historiko batzuk ditu oraindik

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuak ordezkariekin esanetan, auzotarren irisgarritasuna eta bertako bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko, hainbat lan egingo dituzte Angiozarren datozen asteotan. Horien artean daude Beheko kalearen eta plazaren arteko lotura hobetzeko obrak. Proiektu teknikoa Sestra estudioak egin du eta Udalak Sasoi Eraikuntzak enpresari esleitu dizkio lanak, 110.000 eurotan. Lan horiek, gainera, 42.000 euroko dirulaguntza jaso dute Eusko Jaurlaritzako Erein programatik.

Asmoa da martxoan hasia obrak, eta hiru hilabeteko epean burutzea. "Asfaltatu moderno batekin kaleari jarraikortasuna emango diogu eta azpiegitura eta sare guztiak berrikuntza dira. Lau metroko zabalera duen kalea egingo dugunez, behatoki bat ere

jarriko dugu, eta eskailerak irisgarriago egingo ditugu", zehaztu zuen asteleheneko agerraldian Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik.

AHTaren lanen "konpentsazioa"

Beheko kaleko lanez gain, beste "hainbat hobekuntza" egingo dira Angiozarren, Abiadura Handiko Trenaren lanez eragingo dituzten ondorioen konpentsazio gisa. "Ulertzen dugu Angiozarrek neurri zuzentzaile batzuk behar dituela trenak eragindako kalteengatik, eta lan horiek errealitate bihurtu-

**BEHEKO KALEAREN
ETA PLAZAREN
ARTEKO LOTURA
HOBETZEA 110.000
EURO KOSTATUKO DA**

ko dira laster", aurreratu zuen Elena Lete alkateak. Espainiako Sustapen Ministerioak eta Telefonikak milioi bat euro pasatxo gastatuko dute auzoan Internet sarea hobetzeko –zuntz optikoa jarriko dute–; eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Eskola Txikia handitzeko proiektu berria egitea onartu du; alkatearen arabera, hurrengo bi urteetan garatu ahaliko litzateke eskolako obra.

Eskola Txikiaren proiektua ezinbesteko oinarria da Angiozarren etorkizunerako; azken urteetan ikasle kopuruak behera egin ostean, ikasturte honean gorakada txiki bat izan eta gaur egun 37 ikasle dituzte. "Jaurlaritzak onartu du eskolak benetan duela berritzeko beharra. eta horregatik onartu da proiektua", dio Angiozarko alkate Jose Angel Mikeok.



Angiozar Bailarako Batzarra, artxiboko argazki batean. JOKIN BEREZIARTUA

Angiozarko Batzarraren eskaerak

Gaur egun, 312 biztanle ditu Angiozarrek, zortzi auzotan banatuta: Asentzio, Azkuneta, Partaitia, Errekaldea, Goimendi, Kalea, Marindao eta Zabaletamendi. Gutxi gorabehera 16 kilometro koadroko hedadura izanik eta auzoen arteko distantzia handia dela aintzat hartuta, Angiozar Bailarako Batzarra da bertako biztanleen beharrak eta kezak jasotzen dituen lehen foroa. Urtero egiten dituzte lan ekimenerako proposamenak, eta 2019koen artean jasota daude astelehenean Udal Gobernuak iragarri zituen lanak, eta baita beste zenbait ere. Adibidez, Labegaraletan Angiozarrerako lotura zabaldu eta errepidea bi norabideko egiteko eskaera azken zortzi urteetan errepikatuta denetako bat da: "Aurreko obra amaitu zenetik esan genuen Angiozarrerako loturak bi noranzko izan beharko zituela".

AHTagatik kalteen konpentsazio gisa ulertzearekin zalantzak

Hala ere, zalantzak dituzte Udal Gobernuak asteon iragarritako lanak AHTak eragindako kalteen konpentsazio gisa hartzearekin. "Beheko kaleko lanen proiektua 1979an diseinatu zen eta duela 18 urte exekutatu zen azken zatia. 18 urte geroago akabatuko da. Bestalde, zuntz optikoaren pasabideak-eta zehazteko gurekin egon ziren Telefonikako langileak; egia esan, ez dakigu Udalak zer egin duen gai horretan...", diote. AHTaren lanen kontraprestazio eskaeren artean batzarrak honako hauek ditu jasota, iazko urtarilean 200 sinadura baino gehiagorekin Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarrari, Diputazioari eta Udalari aurkeztu zitzaizena: bailarako auzoen arteko komunikazioa hobetzea; AHTaren tramuauren alboan natura-bide edo bidegorri bat egitea; Angiozarko kaleko eta auzoetako urbanizazioa hobetzea; zerbitzuak areagotzea eta hobetzea –medikuaren kontsulta, liburutegia, gaztetxea edo gazteleku...–; eta kultura ondarea berreskuratzea, besteak beste. "Angiozar bailarako inguru sozioekonomikoa berreskuratzeko plan orokor bat behar dugu", gaineratu dute, etorkizunerako ezinbestekoa izango delakoan.

Sarrera eta irteera hobetu

Zirkulazioari eragiten dioten neurriak ere adostu ditu Udalak Arcelor-Mittalekin eta UTE Angiozarrekin –aldi baterako enpresa-elkartea–, Labegaraletan interbentzio bat egiteko; Askarruntzeko biltegia bota eta eta

**37 IKASLE DITUEN
ESKOLA TXIKIA
HANDITZEKO
PROIEKTUA ONARTU
DU JAURLARITZAK**

Angiozarrerako lotura bi noranzkoko izango da. Hau da, gaur egun beheranzko norabidea bakarrik ahalbidetzen duen bidea zabaldu egingo da bi noranzkoko egiteko, eta gaur egun igotzeko bakarrik den errepidea Askarruntzeko eta inguruko bizilagunentzat izango da. Lan horiek ez dute exekuziorako datarik, oraingoz; besteak beste, Diputazioaren eta Udalaren arteko errepideen arteko permuta gauzatu beharko da. Esandako moduan, baina, ez dago lan horiek gauzatzeko eperik.



Egur soberakinekin egindako altzariak jarri dituzte Artzamendin –argazkian, eserleku batzuk Udalaren biltegi batean–. AITOR AGIRIANO

Zuhaitz gaixoen egurrak altzari, Artzamendirako

Azken urtean botatako zuhaitzetatik 17 altzari egin ditu Kimu2 enpresak eta horietako batzuk Artzamendin jarri dituzte, berdegunea biziberritzeko; segurtasunagatik, begetazioa kendu egin dute, eta eremuaren izaera naturalari eustea ere izan da lehentasunetako bat

Jokin Bereziartua BERGARA

Artzamendiko berdegunea balioan jarriz eta biziberrituz, aisialdirako "espazio eder bat" berreskuratu gura du Udalak. "Agintaldi hasieratik jaso genituen bizilagunen kezak eta iradokizunak Artzamendiko eremuan zerbait egiteko; eremua utzita zegoen, 25 urte egon da eta ia inolako esku-hartzerik gabe. Begetazio asko zegoen eta bizilagun batzuk kezkatuta zeuden suterren bat-edo egonez gero begetazio hori etxetatik gertuegi zegoelako", azaldu du Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik.

Hain zuzen, segurtasuna bermatzea izan da lanon helburuetako bat, eta, horrez gain, eremuaren izaera naturala mantentzea izan da beste lehentasun bat: "Argi dugu Artzamendi ez dela parke bat izango, eremu natural bat baizik, eta, horregatik, izango dituen zerbitzuak parke batek dituenak baino mugatuagoak izango dira", gaineratu du Arregik.

Paola Sangalli zuzendari tekniko

Gobernuaren arabera, bizilagunekin batera gauzatutako "parte-hartze prozesu aberats" bati eta Paola Sangalli paisajistak gidatutako zuzendaritza teknikoari esker lortu da eremua "behar den moduan" biziberritzea: "Halako eremuak definitzeko orduan aditu handi bat da Sangalli", zehaztu du Arregik.

Horrez gain, goiko trenbidera ailegatzeko beste bide bat ireki dute, Arregiren ustez orain artekoa baino "asko seguruagoa" dena, eta Artzamendiko esperientzia herriko beste eremu batzuetara zabaltzeko modukoa dela dio. Izan ere, belarra moztu da, belar txarrak kendu dira, etxeen atzealdeko malda osoa

BELARRAK MOZTU, MALDA GARBITU ETA SEINALEAK JARRI DITUZTE, BESTEAK BESTE, ARTZAMENDIN

garbitu da eta seinalez tapen ikurrak ipini dira.

17 altzari eta lau aparkaleku

Herriko zuhaitz batzuk gaixorik zeudenez, botatzea erabaki zuen Udalak; Matxiategiko pasealekuan bota ziren ezki batzuk, esate baterako. "Enbor horiek gure biltegi baten pilatzen joan ginen eta Kimu2 enpresak altzariak sortu zituen enbor zati horietatik. 17 altzari eta bizikletendako lau aparkaleku egin dira eta herriko gune ezberdinetan jarriko dira", azaldu du Obra eta Zerbitzuetako teknikari Garazi Bañosek. Hain justu, Artzamendin jarri dituzte altzari horietako batzuk –bi jarleku eta lau eserleku dituen mahaia, zehazki– eta asmoa da Errekalde jauregian eta goiko estazioan ere jartzea; bizikletak aparkatzekoak ikastetxeetan eta parkeetan jartzea ere aurreikusten dute. Gobernuak dio "laster" jarriko direla egurrezko altzari horiek.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Txakurra lotzeko aukerarekin pozik



Herritar batek txalotu egin du Fraisko zurin dagoen okindegi baten txakurrarentzat *aparkaleku* bat dagoela. "Detaile polita da txakurra dugunontzat, eta edozeinek erraz jartzeko modukoa".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Bigarren eskuko bost bizikletaren irabazleak

Agorrosingo zerbitzuaren gainean balorazio inkesta bete zuten erabiltzaileen artean, hauek dira bigarren eskuko bizikleten irabazleak: Nati Ugarte, Luis Miguel Saenz, Miren Amasorrain, Herminia Gomez de Pablo eta Miren Agurtzane Eguren.

Martxo feministak dator Dynamo zineklubean

Kartzela zaharreko zortzigarren ziegan, feminismoarekin lotutako filmak ikusi ahalko dira (21:00): hilaren 13an, *Sufragistak*; hilaren 20an, *Bar Bahar*; eta hilaren 27an, *La Chana*.

Iruzur saiakerak teknikari faltuen partetik

Ongizate Sailak aditzera eman du ezezagun batzuek bi etxetara jo zutela laguntza tekniko saltzeko. Herritarrek zerbitzua eskatzen dutenean, Diputazioak ematen du hitzordua: "Aldundiko identifikazioa eskatu behar dute partikularrek", azaldu dute.

San Martin plaza eraberritzeko bilera irekia

Martxoaren 11n –13:15ean, 18:00etan eta 20:00etan– egingo dute bilera irekia San Martin plaza eraberritzeko proiektua diseinatu aurretik. *Etorkizunean, nola irudikatzen dugu?* erantzuteko elkartzeko dira, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA


*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



Seminarioko patioa eta ingurua urbanizatzeko BEB arkitektura enpresak diseinatutako aukeretako bat. BERGARAKO UDALA

Parkingaz gain, ingurua urbanizatzeko "aukera"

Gobernuak seminarioko patioa eta ingurua berriro urbanizatzeko dokumentu tekniko ezberdinak prestatu ditu parkingaz gain ingurua hobetzeko; parkinga egiteko lanak uztaillaren 1ean hasiko dira, Aranzadi Ikastolaren ikasturtea bukatzearekin batera

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuarentzat aurtengo agintaldiko "proiektu izarra" den seminario azpiko parkingarekin "lotura zuzena" duela eta, jakinarazi dute seminarioko patioaren eta inguruaren urbanizazioa burutzeko egon daitezkeen alternatiben azterketaren inguruko dokumentu teknikoak idazteko BEB arkitektura enpresa kontratatu dutela -7.865 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne-. "Seminarioko parkinga egiteak ekarriko du ingurune horretan beste hobekuntza batzuk egitea; mesede handia egingo die herritarrei eta baita bisitariei ere", adierazi dute.

Garatzen den proiektua garatzen dela, Gobernuak uste du urbanizazio berriak hobekuntzak ekarriko dituela: "Borobilduko dugu horren erabilia den herriko gunea. Bazuen horretarako premia, eta lan hauek baliatuko ditugu inguru hau eraldatzeko eta hobetzeko".

Lanen hasiera, uztaillaren 1ean

Solairu bakarrean eraikiko da errotazio bidezko parkinga. 2.285 metro koadro izango ditu, laukizuzen itxurarekin, eta 86 aparkaleku-plaza aurreikusten dira; horietatik hiru mugikortasun mugak dituztenentzat eta beste hiru ibilgailu elektrikoentzat. Lanak uztaillaren 1ean hasiko dira, Aranzadiren ikasturtea amaitzearekin batera. Ibilgailuen sarrera eta irteera Ibargaraitik egingo da; zehazki, Justo Garate plazaren azpian dagoen aparkalekuko sarrerari paralelo. Bi sarrera-irteerak errazteko biribilgune erdi bat egitea aurreikusten da. Oinezkoendako bi sarrera egongo dira, bakoitza mutur batean kokatuta: bata,

PROIEKTU OSOAREN KOSTUA "GUTXIENEZ" BIKOIZTU EGINGO DELA SALATU DUTE OPOSIZIOKO TALDEEK

Ibargarai kaletik; eta bestea, Herri Lagunak kalera ematen duen plazatxotik. Horrez gain, Construcciones Artzamendi enpresa kontratatu dute patioa azpiegituren moldaketa lanak egiteko, 289.653 eurotan -BEZa barne-.

Oposizioaren kritikak

Parkingaren kostuaren garestizteak kezka eragin du oposizioan. Gobernuak hasieran zehaztu zuen aurrekontuari -1.400.000 euro- azken osoko bilkuran dekretu bidez jakinarazi zen kreditu aldaketa -500.000 euro inguruko kreditu gehigarria- gehitu behar zaio.

EH Bilduren estimazioen arabera, 2.800.000 euro kostatuko litzateke dagoeneko: "Gutxienez, bikoiztu egingo da. Eta oraindik ez da makina bat lanean jarri; badakigu halako obrak konplikatatu egiten direla". Irabazik uste du Gobernuak kostu erreala ezkututzen saiatu dela: "Gure teknikariek diote lau milioi euro kostako dela proiektu osoa".



POL-POL MENDIZALE TALDEA

Galarran, Mendi Astea amaitzeko

Mendi Astea amaitzeko, Arrasateko Galarra kobazuloan izan ziren Pol-Pol Mendizale Taldeko kideak. Arantza Otaduy historialariak eta Udalatx mendia ondo baino hobeto ezagutzen duen Jesus Mari Zuazubizkarrek egin zituzten gidari lanak. Antolatzaileak pozik agertu dira Galarrako irteerak eta gainerako ekitaldiek izan duten harrerarekin.

Hika Teatroaren 'Txarriboda' obra bihar Seminarixoan (19:00)

Beste bost aktoreekin batera Kepa Errasti aretxabaletarra protagonista duen obra da; sarrera zortzi euro da

J.B. BERGARA

Patxi Gonzalez, Iñaki Maruri, Iñigo Aranbarri, Sandra Fernandez Agirre eta Juanjo Oterorekin batera Kepa Errasti aktore aretxabaletarra protagonista duen *Txarriboda* antzez-lana ikusi ahalko da bihar, zapatua, Seminarixoan (19:00). Hika Teatra taldearen eskutik eta Agurtzane Intxaurrega zuzendariak idatzitako testua oinarri hartuta, antzezlari berezi horretan, aktoreen inprobisazioak berebiziko pisua dauka; umorearen, kabaretaren eta

musikaren uztarketa da azken emaitza. Obrak Mireiaren eta Imanolen ezkontzaren istorioa kontatzen du. "Mireiak eta Imanolek ezkongai bikote perfektua osatzen dute. Zorionaren irudi dira. Ezkondu egin dira gaur, eta Patxi Bilbaok, emaztegaiaren aitak eta Iperrolako handi-mandiak, antolatu du ospakizun gala. Festa itzela izango da", dio sinopsiak.

2018ko maiatzean estreinatu zen *Txarriboda* eta ordutik hainbat herritan izan dira. Sarreraren prezioa zortzi euro da.

Suinaga eta Calvo, EIO Txikin

Begarako Musika Eskolako Alazne Suinaga eta Paula Calvo Euskadiko Ikasleen Orkestra Txikin jotzeko aukeratuak izan dira. Suinagak 10 urte ditu eta biolina jotzen du eta Calvok 11 urte ditu eta biolontxelo jotzen du. Martxoaren 3an Donostiako Musikenen jo zuten; martxoaren 4an, Bilboko kontserbatorioan; eta martxoaren 5ean, Gasteizko kontserbatorioan.



YON SUINAGA



Haurrak mozorrotuta Aratuste-zapatuan. GOIENA



Aratuste-kontzertuko dantzak. IMANOL SORIANO

Denetariko mozorroak izan dira Aratusteetako protagonista nagusiak

Askotariko ospakizunak izan dituzte herritarrek Inauterien harira. Aurten ere, egubakoitzeko Aratuste-kontzertuak aurreikuspen guztiak bete ditu eta sarrera guztiak agurtu dira. Eta ikastetxeek ere bat egin dute festa giroarekin

Amaia Igartua BERGARA

Egubakoitzetik martitzenera denetariko ospakizunak izan dira Bergaran, Aratusteen harira.

Hain zuzen ere, egubakoitzean, urteroko ohiturari jarraituz, Aratuste-kontzertua eskaini zuen herriko musika bandak, antzerkiz eta dantzaz girotuta. Aurtengo saioa, gainera, Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendaria-

ren azkeneko Aratusteetako kontzertua izan da.

Zapatuan, berriz, egun osoko festa giroan murgildu zen herria, denetariko mozorro koloretsuak jantzita.

Ikastetxeak

Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastetxeak izan ziren aratusteak ospatzen lehenak, egubakoitzean.

Aranzadik Inauteriak hartu zituen gai gisa eta dantzan girotu zituzten herriko kaleak.

Mariaren Lagundiko ikasleak kalejira koloretsuan irten ziren eskolatik, karroza eta guzti, Bergarako erdiguneko kaleetara.

San Martin Agirre ikastetxean Aratuste-martitzena ospatu zuten eta kalejiran joan ziren San Martin plazaraino, denetariko mozorroak erakutsiz.



Aratuste-kontzertua. IMANOL SORIANO



Musika banda, Aratuste-kontzertuan. IMANOL SORIANO



Aranzadi Ikastolako haurrak dantzan. GOIENA



Mariaren Lagundiko ikasleak. GOIENA



San Martin Agirreko ikasleak kalejiran. GOIENA

Kinka larrian jarraitzen du intsinis pinuak

Gaixotasunak kezka handia sortzen du Elgetan ere; izan ere, zuhaitz landaketek 1.441 hektarea hartzen dituzte udalerrian, eta horietatik 926 pinudiak dira. Estimazioa da, batez beste, pinu landaketen herena dagoela gaitzak jota

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Udalak eta Nekazarien Koope-
ratibak elkarlanean antolatuta,
gaiaren inguruko mahai ingurua
egin dute herrian, eta 70 bat
lagun elkartu dira bertan.

Asko zabaldu da gaixotasuna
aurreko udaberrian, eta sekto-
reko eragileak oso kezkatuta
daude. Argi dago, baita ere,
iritzi kontrajarriak daudela gai-
tzari aurre egiteko aplikatu
beharreko tratamenduaren in-
guruan zein etorkizunera begi-
ra bultzatu beharreko baso
ereduaren inguruan.

Tratamendua


Espainiako Nekazaritza, Arran-
tza eta Elikadura Ministerioak
ez du baimendu kaltetutako
pinudiak oxido kuprosoarekin
airez fumigatzea. Urrian eskatu
zuten baimena EAEko hiru al-
dundiek eta Eusko Jaurlaritzak,
eta aurreko astean iritsi zen
erantzuna. Aldiz, EAEko 1.050
hektarea pinuk jasoko dute Nei-
kerrek sortutako beste trata-
mendu bat. Oxido kuprosoa
erabiliko dute izurriteari aurre
egiteko, baina eremu mugatua
eta modu esperimentalean. Ur-
tebete pasatu eta emaitzak ikusi
oinoren erabakiko dute he-
datu edo ez.

Zeelanda Berrian oxido ku-
prosoarekin lortutako emaitzak
nabarmentzen dituzte baso ja-
beek, baina substantzia hori
kaltegarria dela eta akuiferoe-
tara iritsita lurralde osora za-
balduko dela diote naturaren
kontserbaziorako ordezkariak.
Nabarmentzen dute Zeelanda
Berria azalera oso handikoa dela
eta pertsona dentsitate oso txi-
kia duela, eta Gipuzkoan oso
bestelakoa dela egoera. Gipuz-
koako baso elkarrekin ohartaraz-
ten du tratamendu eraginkorrik
ez dagoenez, intsinis pinua baz-
tertu eta beste espezie batzuen
aldeko apustua egiten hasiak
direla baso jabeak.



Gaitzak jotako pinudiak, Elgetan. L.Z.L.


Izurriteak badu irtenbiderik?



FERNANDO OTAZUA
GIPUZKOAKO BASO ELKARTEA

**"Beste espezie batzuk
landatzen hasita gaude"**

"Gaixotasunari aurre egiteko
irtenbide bat topatu behar da,
eta oxido kuprosoa aipatzen
dute adituek, baina baimenik
ez daukagu. Eta baso jabea ez
da inozoa. Gaixotasuna
dela-eta behar baino lehen
bota behar izan badu pinudi
bat, beste espezie batzuen
aldeko apustua egingo du,
azkenean. Berez, hasita daude.
Gipuzkoan, esaterako,
cryptomeria japonikoa,
Douglas izeia, sekuaia eta
eukalipto nabarmentzen dira.
Gogoan izan azken horrek ez
duela dirulaguntzarik".



IÑAKI AIZPURUA
NATURKON TALDEA

**"Baso kudeaketan beste
eredu bat beharko guke"**

"Oxido kuprosoa nekazaritza
ekologikoan erabiltzen da,
baina Gipuzkoa batean 50.000
hektarea tratatzea beste eskala
bat da, uretan eragin bereziki
txarra duelako. Lurra jabe bat
du, konforme. Baina besteok
ere badugu zer esan: gure
paisea eta gure osasuna ere
jokoan daude. Pentsatzen dugu
batzuei mesede bat egiteagatik
beste askori kalte egingo
diotela, eta hori da gure kezka.
Administrazioak parte hartu
beharko luke eta baso
kudeaketarako beste eredu bat
bultzatu".



L.Z.L.

Zaintza lanak erdigunera

Zaintza lanek emakume aurpegia dute, eta hori agerian jartzeko argazki erakusketa ipini du Elgetako emakume taldeak zeramika gelan. Zabalik izango da domekara arte. Biharko, berriz, egun osoko egitaraua prestatu dute. Elgetako zein Debagoieneko ekintzen agenda eta greba deialdiarekin lotutako erreportajea landu ditu GOIENAK 2. eta 9. orrien artean.

Zinegotzi karguari uko

Eduardo Zubiaurrek ez du
agintaldia zinegotzi karguan
amaituko. "Arrazoi pertsonalek
beharu naute zinegotzi izateari
uko egitera", azaldu du.
Zerrendako hirugarren postuan
aurkeztu zen 2015eko udal
hauteskundeetara, eta Mikel
Larrearekin eta Iratxe Bravorekin
 batera Gu Geu Elgeta plataformako
ordezkaria izan da udalbatzan.



GU GEU ELGETA

Ibiltarien jai egingo dute domekan, 08:00etan irtenda

Urteroko hitzordua da Elgetan,
eta iaz 221 mendizalek egin zu-
ten 25 kilometroko mendi irtee-
ra. Aurten ere, 08:00etan eman-
go diote hasiera irteerari eta
ibilbidean izango dira Intxorta,
Erdella, Santamarinazar, Egoar-
bitza eta Azkonabieta. Aurreko
gaua Elgetako kiroldegian egi-
teko aukera izango dute parte-
hartzaileek, norberaren lo za-
kuarekin eta koltxoekin. Anto-
latzaileek 14:00etarako finkatu
dute mendi irteeraren amaiera,
eta orduan egingo dute 2018ko
finalisten diploma banaketa;
izan ere, domekako jardunaldia
Euskal Herriko iraupen luzeko
ibilaldien zirkuituko proba da.
Bazkaria 14:30ean hasiko da.

OHARRAK

Erretiratuek, batzarra

Bihar, 17:00etan, Xalbadorpe
elkarteko batzar orokorra,
Ozkarbin. Ondoren, pintxoak.

Podologo zerbitzua

Otsaileko kontsulta hilaren
14an izango da. Txanda
hartzea: 943 76 80 77 (Nati).

Irteera San Mamesera

Intxortako Lehoiek antolatuta,
hilaren 16an egun osoko
irteera Bilbora. Argibideak,
Bolatoki tabernan.

Irteera hilaren 24an

Mendi taldeak antolatuta,
irteera Adarrara, eta bazkaria
sagardotegian. Izen-emateak,
hilaren 16ra arte. Argibideak:
kantsatzeke@gmail.com.

Herritarren Arreta Zerbitzua, astelehenetik

Alondegitik izango du sarrera eta hiru langile egongo dira herritarrei zuzeneko arreta eskaintzen. Gune elektroniko bat egongo da hainbat tramite egin ahal izateko, eta baita bilera gela bat ere, udal langileekin eta ordezkariekin elkartu eta berba egiteko

Oihana Elortza OÑATI

Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) izeneko zerbitzu berria egongo da udaletxean astelehenetik aurrera. Herritarrei ahal den informazio integralena, osoena, eman eta tramiteak eginen laguntzea du helburu.

Bulego bakarrean dena

Hiru langile egongo dira bulegoan zerbitzu berri hori eskaintzen eta herritarrei laguntzen. Zuzeneko arreta jasoko dute herritarrek eta udaletxera joateko arrazoiak dakartzen eginbehar guztiak bulego horren bitartez bideratuko dizkiete aipatutako langile horiek.

Adibidez, herritarren batek etxean obrak egin behar dituzenean, komuna berri, esaterako, udaletxera joan behar du horretarako baimena eskatzera eta dagokion inprimakiak betetzera. Kasu honetan, zenbateko bat ordaindu behar du obra hori egin ahal izateko. Orain arte,



Hiru langile egongo dira herritarrei zuzeneko arreta ematen. OÑATIKO UDALA

banketxean egin behar zuen ordainketa eta berriro bueltatu behar zuen udaletxera ordainagiria entregatzera. Astelehenetik aurrera, baina, dena egin ahal izango du Herritarren Arreta Zerbitzuan, baita egin beharreko

ordainketa ere. Herritarrek toki bakarrean egin ahal izango dituzte obra egiteko tramite guztiak.

Udaleko zerbitzu ezberdinen arteko lotura eta konexioa erabatekoa izango da astelehenetik aurrera eta zerbitzu berri horren

bitartez departamentu ezberdinetako tramiteak toki bakarretik egin ahal izango ditu herritarrek.

Informazio osatua

Esaterako, familia ugaria duen herritar bat joan daiteke bulego horretara kiroldegiko hobarien gaineko informazioa lortzera. Kiroldegira joan beharrean, bulego horretan egin dezake tramitea. Gainera, hango langileek herritar horren egoera zein den ikusita, beste zein hobari dituen ere esango diote; informazio integrala eskainiko diote.

Herritarrei tramiteak egiten erraztea eta ahalik eta informazio osoena ematea izango da bulego horren helburua, eta, hala, Udalaz gain, beste erakunde batzuek ematen dituzten laguntzen berri ere emango diete herritarrei. Esaterako, etxebizitzaren alokairuaren gaineko informazio bila joan daiteke gazte bat bulegora, eta, Oñatiko Udalak duen programa azaltzeaz gain, beste erakunde batzuek gai horren inguruan dituzten laguntzen edo egitasmoen inguruko informazioa ere jasoko du.

Ordutegi zabala

Martxoaren 11n hasita egongo da martxan zerbitzu berria eta ordutegi zabala izango du. Aurrez aurreko zerbitzu zuzena goizeko ordutegian eskainiko dute, astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik 15:30era.

Baina aurrez aurreko zerbitzuaz gain, hainbat tramite konkretu egin ahal izateko bulego telematikoa ere egongo da zerbitzugune berri horretan. Esaterako, errolda agiriak, zergen kopiak, ordainketak eta sarrera telematikoa aparailu elektronikoa erabili egin ahal izango dira. Goizean ez ezik, arratsalde ere erabili ahal izango da makina hori, asteko edozein egunetan, 15:30etik 20:30era.

Zerbitzu hori osatuko duen beste gune bat udal ordezkari edo langileekin bilerak egiteko lekua da. Aurrez eguna eta ordua zehaztuta, herritarrek bilerak egin ahal izango dituzte Udaleko edozein teknikari edo langilerekin, adibidez. Bestalde, hiri hondakinen zerbitzuari lotuta, kuboak edo olio-poteak jaso edo intzidentzien berri emateko, bulego horretara joan daitezke herritarrek 17:00etatik 20:30ak arte aste barruan.

Urtebeteko lana

Astelehenean jarritako zerbitzua martxan jartzeko protokoloa duela urtebete pasa hasi ziren lantzen, departamentu guztiari lotuz.

AURREZ AURREKO ZERBITZUA ETA GUNE TELEMATIKOA IZANGO DITUZTE HERRITARREK TRAMITEAK EGITEKO

Eskola Bidearen jardunaldiak egingo dituzte datorren astean

Beste esperientzia batzuk ezagutuko dituzte, eta bertakoa partekatu, martitzeneko eta egueneko ekintzetan

O.E. OÑATI

Bagabiltz proiektua eta halako ereduak ezagutu eta Oñatin egindako lana balioan jartzeko antolatuko dituzte jardunaldiak datorren asterako.

Lehen hitzaldia Lorea Agirre antropologo eta kazetariak egingo du. Umeen parte hartzeari eta ikasketa komunitateei buruz idatzi du Agirrek eta Francesco Tonucci-ren *Haurren hiria* liburuaren euskarazko edizioaren hitzaurrea idatzi du. Isabel Prieto, berriz, mugikortasunean da aditua; hamalau urte daramatza

Eskola Bidea proiektuak garatzen, eta, hain zuzen, Jaurlaritzaren *Eskola Bidea. Gida teknikoa* liburuaren egilea da. Martitzenean jardungo dute biek. Eguenean, Salvador Fuentesek –Bartzelonako Diputazioan arkitecto teknikoa– egingo du berba. Baita Oñatiko Bagabiltz taldeak ere. Osoko bilkuren artoan izango dira hitzaldi guztiak. Duela bost urte abiatu zen Eskola Bidea proiektua Oñatin, eta, jasangarritasunaz gain, elkarlana eta partaidetza ere bultzatu ditu.

OHARRAK

Odol ateratzerik ez

Gaur, egubakoitza, ziren egitekoak martxoko odol ateratzea, baina bertan behera gelditu dela jakinarazi dute odol emalleen elkarteok. Arrazoa da greba feminista.

Telefono berriak

Bi telefono zenbaki berri jarri ditu Udalak herritarren eskura. 010 zenbakia udaletxera deitzeko da eta 092 udaltzainekin berba egiteko. Herri barrutik egindako deietan erabiltzeko dira.

Posta bidezko botoa

Dagoeneko zabalik dago apirilaren 28ko hauteskundeetako botoa postaz emateko epea.

GORA ETA BEHERA



M.A.

Lurrera bota, horrek ere balio duelakoan

Sorpresa desatsegina hartu zuen San Martin auzoko bizilagun batek organikoa ateratzera joan zenean. Hondakinak ikusi zituen lurrean botata, dagokion ontzi barruan egon beharrean.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Marijo Etxegoien, Leire Zumalde, Mikel Biain, Nerea Zubia, Lourdes Idoiaga eta Susana Altuna testuekin. M.U.

Jasota dago indarkeria matxistaren protokoloa

Hiru testu edo txostenetan jaso du Udalak indarkeria matxistaren detekzio, arreta eta erantzun instituzionala hobetzeko herri mailako protokoloa. Aho batez onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran. Herriko eragileekin batuko dira orain, erakusteko

Oihana Elortza OÑATI

Oñatin indarkeria matxistaren detekzio, arreta eta erantzun instituzionala hobetzeko protokoloa gertu dago. Hiru testutan jaso da protokolo hori eta otsailko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak aho batez.

Jarraitu beharreko pausoak

Orain arte ez zegoen herri mailan landutako protokolorik. 2016an diagnosi bat egin zuten eta horrekin hasi ziren indarkeria egoera baten aurrean jarraitu behar den bidea zein den lantzen. Hiru txostenetan jaso dute landutako materiala eta horixe da otsailko osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartu zuena.

Jone Arriolabengoa Berdintasun teknikariaren esanetan, arlo ezberdinak lantzen ditu testu bakoitzak: "Lehenengoan, esaterako, udal mailan arreta nola hobetu daitekeen jasotzen da eta udal baliabide eta zerbitzu ezberdinek eskaini dezaketen

arreta zehazten; Gizarte Zerbitzuen Departamentuarena edo Udaltzaingoarena, esaterako. Bigarren testuan, erakunde ezberdinen arteko koordinazio hobeko baten aldeko protokoloa dator. Udalak, Osakidetzak eta Ertzaintzak elkarrekin osatutako testua da. Eta hirugarren txostenean, indarkeria egoeraren bat gertatzen denean Udalaren erantzun instituzionala nolakoa izango den aztertzen da; maila politikoan hartu beharreko postura zein izango den". Hirugarren testu horretan egoera ezberdinak jasotzen dira, hala nola eraso Oñatin edo kanpoan gertatu den edo ez, eta indarkeria jasan duena edo eragin duena oñatiarra den edo ez.

2016AN EGINDAKO DIAGNOSIAREKIN HASI ZIREN LANTZEN ONARTU BERRI DUTEN PROTOKOLOA

Udalbatzak onartuta, dagoneko indarrean daude protokoloaren lehen eta hirugarren txostenean jasotzen diren pausoak. Bigarrena, erakunde arteko koordinazioarena, Osakidetzako eta Ertzaintzako ordezkariak sinatu behar dute.

Protokoloa partekatu

Protokoloa eskuetan, herriko eragile ezberdinekin elkartzea da egin gura den hurrengo pauso. "Uste dugu indarkeriaren detekzioan eta arretan paper garrantzitsua izan dezaketela herriko eragileek eta eurekin egon gurako genuke, protokoloa aurkeztu eta zer jasotzen duen aztertze", dio Arriolabengoak. Hain zuzen, eragile horien artean daude, esate baterako, herriko ikastetxeak eta erretiratuen elkarteak, Berdintasun Sailaren arabera.

Osoko bilkuraren amaieran argazkia atera zuten Berdintasun batzordeko kideek hiru testuak eskuetan zituztela.

Maña baserriko artzainak omendu dituzte Gomiztegin

Artzain Eskolaren ikasturte amaierako ekitaldian izan da, "eskolarekin kolaboratzeko beti gertu" egoteagatik

O.E. OÑATI

Araatz auzoko Maximo Zumalde eta Arantxa Lasagabaster artzainak omendu zituzten hilaren hasieran Gomiztegin artzain eskolan egindako ikasturtearen itxiera ekitaldian. "Artzain eskolarekin kolaboratzeko beti prest agertu direlako" jaso zuten omenaldia biek. Aurtengo ikasleen eskutik jaso zituzten makila, diploma eta lore sorta.

Gustuko ikasturtea

Zortzi ikasle ibili dira 2018-2019 ikasturtean artzain ofizioa ikasten; ikasturtea amaituta, euren makilak eta diplomak jaso zituzte. Martxoaren 1ean egin zuten ikasturte amaierako ekitaldia eta han aipatu zuen artzain eskolako zuzendari Batis Otaegik aurtengo artzain eskolara inoiz baino jakinduria handiagoarekin heldu direla ikasleak. "Oso tal-

de ona izan dugu aurten. Trebatutako jendea etorri da, etxean ardiekin lana egindakoa, eta jakinduria maila txiki bat dutenekin errazagoa da irakastea. Jende fina izan da, praktiketan oso ondo aritu dira eta uste dugu epe ertain batera artzain berriak izango ditugula". Ikasleak eurak gustura geratu dira ikasturteak emandakoarekin. Nabarmendu dute egonaldi atsegina izan dela, eta gauza egiteko modu ezberdinak ikasi dituztela; eta, gaineratu dute, orain haste dela benetako lana. Datorren ikasturteko erronka emakumeak etortzea izango dela gaineratu zuen Otaegik.

Diplomak eta makilak banatu aurretik, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Orozek artzainen garrantzia azpimarratu zuen, eta eskolak egindako lana goraiatu. Sustrai programa ere omendu zuten.



Zumalde Lasagabaster familia omenaldiaren ostean. IMANOL SORIANO

Aloñako zuhaitz landaketa domekan izango da

Domekan izango da Aloñako aurtengo zuhaitz landaketa eguna, eta, urtero moduan, Unaimendin (Duru) elkartuko dira, 10:00etan, horretarako.

Aloñako Lagunak taldeko kideek adierazi dute hiru motatako eginbeharrak izango dituztela: aurreko urteetako itxituraren bat konpondu, bertako zuhaitzen enbor apurtuak moz-

tuz; lehortuta edo elurrak apurtuta hondatu diren zuhaitzak ordezkatu haritzak eta lizarrak landatuz, eta Aloñako gurutzearen mendeurrenean mendi-aterpearen inguruko zuhaitzak ordezkatu eta itxitura berria egin.

Aurten ere, Natur Eskolako langileen eta Imanol Artola basozainaren laguntzari esker egingo da irteera eta Bittor Altuberen txabolan egingo dute otordua. Izena eman daiteke Maiztegi tailerlean edo hemen: aloinalagunak@gmail.com.

Oses eta Etxegarai finalerdietan daude

Uxue Oses eta Maddalen Etxegarai oñatiarrak dira Debagoieneko ordezkari bakarrak une honetan Emakume Master Cup-en. Bihar arratsaldean finalerdiak jokatuko dituzte, Legazpin, eta goizean, elkarren aurka lehiatuko dira lau eta erdiko finalean

Amaia Igartua OÑATI

Bi partidu jokatuko dituzte bihar oñatiarrek: goizean, ha maiketean, Zizurren elkarren aurka lehiatuko dira, lau eta erdiko finalean.

"Nahiago izaten dugu bata bestearen aurka ez jokatu, baina horrela tokatu da oraingoan, eta, egia esan, pozik gaude. Baina aurkari oso gogorra da Uxue", azaldu du Etxegaraik.

Edonork irabazita ere, "pozik" itzuliko dira etxera oñatiarrak. Honela azaldu du Osesek: "Maddalen aurkari bezala oso indartsu ikusten dut. Lasai nago lagun onak garelako, eta, bata edo besteak irabazita, pozik egongo gara iritsi garen lekura iritsi garelako".

Finalerdiak, bihar

Arratsaldean, berriz, bikote gisa jokatuko dute Emakume Master Cup-eko finalerdia, promozio mailan, Nora Mendizabal eta Ainhoa Ruiz de Infante bikotearen aurka, 17:45ean, Legazpin.

"Bihar arratsaldeko partiduari begira, aurkariak oso ondo ezagutzen ditugu, eta irabazteko aukerak ditugula uste dugu. Euren aurka jokatu izan dugunez, badakigu ez dela partida erraza izango, oso aurkari gogorak izango diren zalan-tzarik ez dugu", adierazi du Etxegaraik.

Lorpen handia izan da oñatiarrentzat Emakume Master Cup lehiaketaren finalerdietara iristea.

"Denboraldia hasi zenean, ez nuen espero horren urrun iritsiko ginenik. Izan ere, oso aurkari onak eta gogorak izan ditugu txapelketan zehar. Bihar arratsaldeko partidua zail ikusten dut, baina Maddalenek eta biok gure esku dagoen guztia egingo dugu horren gertu ikusten dugun final horretara elkarrekin iritsi ahal izateko", adierazi du Osesek.



Maddalen Etxegarai eta Uxue Oses, Oñatiko pilotalekuan. MADDALEN ETXEGARAI

AURKARIAK "OSO ONDO" EZAGUTZEN DITUZTE ETA IRABAZTEKO "AUKERAK" DITUZTE

Emakumeak pilotan

Historian zehar, pilota ez da izan soilik gizonezkoen kirola. Hainbat eta hainbat emakume gailendu dira pilotaren modalitate desberdinetan.

Azken urteotan, emakume pilotarien kopurua gora egiten ari da; hori dela eta, esku pilotan dagokien mailako txapelketa bat behar dute.

Aurrerapauso handiak ematen ari dira gaur egun emakumezkoen pilota sustatzeko helburuarekin; horren adibide, da gero eta oihartzun handiagoa izaten ari den Emakume Master Cup lehiaketa.

Etxegarai eta Oses mugak hausten ari dira, eta gizonezkoena dirudien kirol horretan dagokien tokia lortzen ari dira pixkanaka.

"Gizonezkoena baino gutxiago ikusten da emakumeen irudia

pilotan, baina pixkana-pixkana urrats garrantzitsuak egiten ari gara eta pilotaren munduan guretzat ere toki bat egiten ari gara", adierazi du Osesek.

"Emakumeen pilotak gero eta jarraitzaile gehiago dituela uste dut, gauza asko egin dituzte eta egiten ari dira guregatik, emakumeongatik. Euskal Herrian nahikoa emakume daude maila profesionalean jokatzen, eta, hauek zabaldu duten bideari esker, posible dugu guk maila honetan jokatzea", gaineratu du Etxegaraik.

Lehen urratsak

Osesek eta Etxegaraik urte ugari daramatzate pilotan jokatzen, umetatik eutsi zioten kirol horri.

Oses pilotan urtebete geroago hasi zen arren, hasi zen unetik elkarrekin jokatu dute biek. Honela azaldu du Etxegaraik berak: "7 urterekin hasi nintzen eskola pilotan, eta Uxue ni baino urtebete geroago hasi zen. Hasiara batean, nik bakarrik jokatzen nuen, baina, Uxue jokatzen hasi zen unetik, beti jokatu izan dugu batera eta oso gustura aritzen gara elkarrekin jokatzen".



Egurra Ta Kitto taldeko kideak EGURRA TA KITTO

Egurra Ta Kitto eta Cronopios, bihar, 19:30ean, gaztelekuan

Egurra Ta Kitto taldearen '10 urte' birako lehenengo kontzertua izango da biharkoa –zapatua–

Amaia Igartua OÑATI

Zapatu arratsaldeetako kontzertuak ohitura bihurtzen ari dira gaztelekuan. Bihar, Egurra Ta Kitto eta Cronopios izango dira protagonistak. Aurre-salmenta *Onati.eus* atarian da eta prezioa, 6,5 euro. Leihatilan, berriz: 8 euro.

"Gogotsu gaude bira hasteko, hilabete batzuk daramatzagu kontzerturik eskaini gabe eta lehenengo kontzertuak inguruan jo nahi genituen, harrera ona dugun tokietan. Azpeitiar gain, Oñati da etxean bezala sentiarazten gaituen toki bakarra", azaldu du Egurra Ta Kitto taldeko abeslari Iker Velak.

Hamar urteko ibilbidea

Aurten hamar urte betetzen dituztela ospatzeko, bira berezi bat prestatu dute, eta *10 urte* izeneko diskoa aurkeztuko dute bihar. "Orain arte taldeak gehien

landu duen diskoa dela esan genezake; taldeak pasa dituen estilo guztiak ukitzen dituen, hain zuzen ere. Hasieran kalitate txarrean grabatu ziren bost abesti berreskuratu ditugu disko honetan, eta bi bertsiore ere egin ditugu", adierazi du Velak.

Elkartrukea

"Cronopios taldearekin joko dugu bihar, eurekin truke bat egitea adostu genuen; eurek hemen jotzea eta guk, Katalunian. Oñatin aukera suertatu zen, eta gogotsu gaude beraiekin batera jotzeko", azaldu du Velak.

Cronopios Band Katalunian sortutako taldea da eta, hasieratik, mestizaje oinarritutako musika estiloa landu dute; latindar, funk eta hip hop estiloak fusionatuz eta errebindikatuz. Euren lehen diskoa aurkeztuko dute bihar: *La sonora creació*.

Domekan, 19:30ean, kontzertua Iturri tabernan

Paul Sarramendi eta Eñaut Zubizarreta *Trigger* bakarlariak izango dira domeka arratsaldeko protagonistak.

Eñaut Zubizarretak txeloarekin bide berriak ireki nahi ditu; pedalak eta elektrifikazioa erabiliz, punk ukituak txukun zertzelatzen ditu. *Esku bi hamar hatz* lan berria aurkeztera etorriko da etxi.

Mekalki Aloña Mendik etxean jokatuko du, bihar, 18:00etan

Azkeneko jardunaldian sailkapenaren gorenean dagoen Atletico San Sebastianen aurka 56-45 galduta ondoren, bigarren postuan daude Aitor Ugarteren mutirik, Atletico taldearekin berdinduta.

Bihar, Bosteko Irauli A-ren aurka lehiatuko dira oñatiarrak, eta garaipena lortzea garrantzitsua izango da taldearentzat.



Axier Alonso eta Iñaki Uribe-Etxebarria, astelehenean, Goienako egoitzan. XABIER URZELAI



Selekzioako kideak eta Ternuako ordezkariak, astelehenean. X.U.

Selekzioaren aurkezpena, Arrasaten

Astelehenean aurkeztu zuten, Ternuaren egoitzan, 2019ko Euskal Selektzioa. Ezkerretik hasita, Oihana Azkorbebeitia, Ander Iñarra, Iñaki Uribe-Etxebarria –hautatzailea–, Irati Anda –teknikaria–, Imanol Muñoz –Ternuako ordezkaria– eta Maite Etxezarreta.

"Selekzioan egoteak gauzak serio hartzea eskatzen du"

AXIER ALONSO ETA IÑAKI URIBE-ETXEBARRIA EUSKAL SELEKZIOKO KIDEAK
MENDI LASTERKETAK Debagoieneko hiru lasterkarik ordezkatu dute Euskal Herria; Uribe-Etxebarriak, berriz, hautatzaile moduan jardungo du aurten ere

Xabier Urzelai ARRASATE

Axier Alonso eta Iban Letamendi oñatiarrek eta Iñigo Alzola arrasatearrak ordezkatu dute Debagoiena Euskal Selektzioan. Profil ezberdinetako atletak dira; Letamendik, besteak beste, esperientziaren ekarpena egingo du, Oñatikoa ez da-eta iritsi berria. Alonsorendako bigarren urtea izango da taldean, eta Alzolak estreinakoz jardungo du selekzioako kide moduan. Euren batera beste 13 lasterkarik osatu dute Euskal Selektzioa

–16 dira guztira–, eta erdia emakumezkoak dira. Astelehenean *Harmailatik* saioan izan ziren Alonso eta Uribe-Etxebarria. **Urte berria hasi duzuen honetan, ilusio eraberrituekin zaudete?**

"HAUTATZAILEOK OSO POZIK GAUDE ATLETEN JARRERAREKIN, ESKERRAK EMATEN DIZKIEGU BETI"

Iñaki Uribe-Etxebarria: Bai, zaila barik. Urtea amaitzen dugunean, nekatuta, beti esaten dugu azkena izango dela, baina hilabete gutxira ostera ere hasiteko gogoz egoten gara.

Axier Alonso: Ni neguan mendiko eskiarekin ibili naiz lehian, eta jarraian hasi ditut mendi lasterketak, kasik atsedenik hartu barik. Urte osoa korrika ezingo nuke egin, nekatu egingo nintzateke, baina kirol jarduera erabat ezberdinak dira eta gogotsu nago, bai.

Mendiko eskiarekin asteburuan duzue hitzordu handietako bat.

Axier: Halaxe da. Oñatitik koadrilla polita goaz Pierra Menta lasterketara.

Bikote ezin hobea daramazu; esperientziaduna bai, behintzat.

Axier: Bai, inguruan ez dago inor Aitor Otxoak baino esperientzia handiagoa duenik lasterketa horretan. Dagoeneko 16 edizio amaitu ditu, Pierra Mentan bertan gutxi daude horrenbeste lasterketa egin dituztenak, eta, gainera, lankidea dut; ederto konpontzen gara.

Mendi lasterketetara itzulita, Iñaki, belaualdi aldaketa izan da selekzioan?

Iñaki: Urte askotan izan dugun taldeak sekulako emaitzak lortu izan ditu, baina ikusten genuen atzetik ez zetorrela inor, eta horrek arduratzen gintuen. Orain, baina, aurkezpenean ikusi ahal izan zen moduan, Oihana Azkorbebeitia moduko esperientziadun jendeak hor jarraitzen du, baina Ander Iñarra, Maite Etxezarreta... oso maila oneko jende gaztea ere badator; selekzioako kideen adinaren batez bestekoa dezente jaitsiko da aurten, eta berri ona da hori.

"POLITA DA HERRI BAT ORDEZKATZEN DUZUN SENTSazioA, BAINA ESFORTZUA ESKATZEN DU HONEK"

Gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua ere berbera izango da, zortzi eta zortzi egongo dira.

Halaxe da. Lehenago, gorabehera bat baino gehiago izaten genuen emakumezkoen taldea osatzeko, baina, zorionez, aurten emakumezkoetan ere oso talde potentea izango dugu.

Ze helburu izango du selekzioak aurten?

Iñaki: Espainiako Kopan, Espainiako Txapelketan eta Munduko Kopako hainbat probatan izango gara; ez guztietan, baina hamaika lasterketa inguru egingo ditugu Munduko Kopakoak. Lasterkariaren ezaugarrien arabera eta bakoitzaren sasoi puntuaren arabera erabakiko dugu bakoitza non lehiatuko den; izan ere, egia da estatu mailan gure selektzioa erreferenteetako bat dela, baina kanpoan oso-oso maila oneko jendea dago. Dena dela, Italiatik dei bat jasotzen dugunean gure korrikalariak bertara joan daitezten, bada, zerbaiten seinale da.

Axier, selekzioan egoteak erraztasunak ematen ditu, baina, aldi berean, konpromisoa behar da.

Axier: Niretako, oso gauza polita da, azken batean, herri bat ordezkatzeko gabiltzalako. Gainera, gaur egun, lasterketarako dortsalak segituan agortzen dira, eta selekzioan egonda ez dugu halako arazorik, materiala dugu... Baina presioa ere bai, eta gauzak ondo egiteko ardura. Lasterketetan gutako bakoitza onena ematen saiatzen da.

Gorlako mendatearen 'trilogia' martxoan

ZIKLISMOA Martxoaren 16an –goizez eta arratsaldez– bi lasterketa egingo dituzte Bergaran, eta bietan Gorlako mendatea izango da protagonista. Martxoaren 31n, berriz, amateur mailakoek lasterketa 'klasikoa' egingo dute: Gorlako Igoera

Xabier Urzelai BERGARA

"Gorlako mendateak daukan prestigioa aprobetxatu gura dugu hiru lasterketa erakargarri antolatzeke", dio Lokatza Ziklismo Eskolako presidente Jon Unamunok. Hala, martxoan zehar hirutan izango da mendate hori protagonista. Hasteko, hilaren 16an, klubeko ordezkariak gura beste lan izango dute, goizez eta arratsaldez lasterketak antolatuko dituzte eta.

Gazteek, 8,4 kilometrokoa

Hilaren 16ko goizeko (10:00) lasterketa gazte mailakoei zuzendutakoa izango da, eta antolatzailerik duela bi hamarkada antolatzen zuten Gorlako Igoera *klasikoari* egingo diote keinu: "Zortzi kilometro eta erdi izango ditu lasterketak, Bergarako San Martin plazan hasi eta Gorraraino. 2001ean antolatuta genuen azkenekoz Gorlako Igoera modu horretara, eta Alberto Contador izeneko txirrindulari batek irabazi zuen. Lasterketako errekorra ezarri zuen, gainera, 20 minutu eta 30 segundo. Hain zuzen, errekor hori ontzeko kapaz denak 500 euroko saria jasoko du".

Arratsaldean, berriz, emakumezkoen txanda izango da: "Emakumezkoen egutegian kon-



Alberto Contador, 2001ean, Gorlako mendate gainean, lasterketa irabazita. LOKATZA

ALBERTO CONTADORREN ERREKORRA ONTZEN DUENAK (20.30) 500 EURO IRABAZIKO DITU

tu handia izaten dugu datekin, Espainiako Koparekin edo nazioarteko lasterketaren batekin kointzidituz gero tropela asko mugatzen delako. Bada, nesken lasterketaren hasiera berezia izango da. Lehenengo metroak

neutralizatuak izango dira, eta ziklistek Irala kalean hasiko dute proba: Plazatik, Ibargaraitik, Fraiskoauritik... Pasa ondoren saihebidera irtengo dira eta Osintxu eta Zubillagatik pasa eta gero ostera ere Bergarara sartuko dira, eta hor batuko zaizkie gazte mailako ziklistak. Beste itzuli bat egingo dute saihebidetik, eta, ondoren, Gorlako mendatea izango dute zain. Hori horrela, gazteek 40 kilometroko lasterketa egingo dute eta 23 urtez azpikoek eta eliteek, 72 kilometro".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Beti Gazte-Mondra

Zapatua. 18:00. Lesaka

Aretxabaleta-Oiartzun

Domeka. 16:30. Ibarra.

Bergara-Hondarribia

Domeka. 16:30. Agorrosi.

ERREGIONAL PREFERE.

Aretxabaleta-Soraluze

Zapatua. 15:30. Ibarra.

Lagun Onak-Mondra

Zapatua. 17:30. Garmen.

Zumaia-Aloña Mendi

Zapatua. 16:00. Zumaia

Antzuola-Illintxa

Zapatua. 16:00. Estala.

OHOREZKO GAZTEAK

Ordizia-Aloña Mendi

Domeka. 11:00. Ordizia.

Amaiak Bat-Aretxab.

Zapatua. 16:00. Ibarra.

Beasain-Mondra

Domeka. 17:00. Loinaz.

Bergara-Anaitasuna

Zapatua. 12:00. Ipintza.

EMAKU. OHOREZKO E.

Bergara-Leintz Arizm.

Zapatua. 17:30. Ipintza.

EMAKUM. GORENGO M.

Hondarribia-Aloña Me.

Zapatua. 18:00. Hernani.

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Bergara-Axular

Domeka. 17:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Eskoriatza-Hegalariak

Zapatua. 18:00. M. Muñ.

Scalibur-Mondrate

Domeka. 18:15. Basauri.

OHOREZKO GAZTEAK

Eskoriatza-Logroño

Domeka. 12:00. M. Muñ.

GIPUZKOAKO LIGA

Eskoriatza-Samaniego

Zapatua. 20:00. M. Muñ.

EMAKUMEZKOAK

Trintxerpe-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Pasaia.

SASKIBALOA

EBA MAILA

Ardoi-MU

Domeka. 18:00. Zizur M.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

La Salle-MU

Zapatua. 11:00. Bilbao.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Mekalki-Bosteko Irau.

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

SENIOR BIG. MAILA

Zarautz-Bergara Sor.

Zapatua. 18:00. Antonia.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Take-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Tolosa.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ereintza-Ford Mugarri

Zapatua. 19:15. Erreterri.

Fagor Indust.-Ugeraga

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EMAKU. EUSKADIKO TX.

Indupime-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Basauri.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Elgoibar-Soraluce BKE

Domeka. 13:00. Elgoibar.

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara-Gure auzune

Zapatua. 17:30. Labegar.

XAKEA

ESKOLA ARTEKOA

Arrasaten, domekan,

10:00etan hasita

Debagoieneko

Bakarkako Eskola

Arteko Txapelketa

(Abaroan, Etxaluzue

eraikinean).

ESKALADA Mikel Linazisorok bikain hasi du Kopa

Bikain hasi du Espainiako Kopa bergararrak. Salamancako La Olarokodromoan eman dio hasiera 2019ko denboraldi ofizialari eskaladako selekzioak, eta, beste behin, Euskal Selektioko eskalatzailerik puntan ibili ziren. Linazisoro ez zen onena izan sailkatze fasean, baina finaleran onena izan zen: "Oraindik ez nago sasoi onenean".

FUTBOLA Bergarak eta Leintz Arizmendik derbia jokatu dute

Zapatu arratsaldean Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako taldeen arteko derbia jokatu dute Bergarak eta Leintz Arizmendik (17:30, Ipintza). Kategorian lau talde indartsuen artean egon da urte osoan Leintz Arizmendi, eta Bergara sailkapenaren erdian egonkortu da. Mojategin, joanekoan, Bergarak ezustea eman zuen (1-2).

FUTBOLA UDAK eta Bergarak jokatu dute etxean

Ohorezko Erregional Mailan, bi talde horiek jokatu dute etxean. Aretxabaletarrek seigarren dagoen Oiartzun hartuko dute domekan (16:30, Ibarra), eta Bergarak azken sailkatu Hondarribiaren bisita izango, du domekan baita ere (16:30, Agorrosin). Mondrak, berriz, Lesakara egingo du bidaia zapatuan (18:00).

ESKUBALOA Fagor Industrialek Ugeraga hartuko du bihar

Seigarren postuan dagoen Ugeragaren kontra neurtuko ditu indarrak talde onatiarrak, bihar (18:00, Zubikoa). Talde onatiarrak partidu gutxi galdu ditu aurtentzako, baina, hain zuzen, porrot horietako bat talde horren kontra izan zen. Hala, Onatikoak errebantxa gogoz kantxaratuko dira, gainera, bigarren astez jarraian etxean jokatu.

Gorlako Igoerak 45 urte beteko ditu

Martxoaren 31n, berriz, amateur mailako egutegiko egun handietako bat izango da, Gorlako Igoeraren 45. edizioa antolatuko du-eta Lokatzak.

Iaz, eguraldi txarri aurre egin eta Hejman Torbjornek irabazi zuen lasterketa. Probak berak utzitako datuetan antzeman daiteke gogortasuna: 188 ziklistak hasi zuten eta 65 heldu ziren helmugara.



Iazko podiumeko talde erretratua. GOIENA

Bosgarren Fun Dantz! lehiaketa bihar, Ibarra

Kaleko dantzen erakustaldia egingo dute Euskal Herriko dantzari trebeenetakoek, eta Debagoieneko ordezkariak ere izango dira; aurre-salmentako sarrera guztiak agortu egin dira, eta gordetako ehun txartelak leihatilan salduko dituzte zapatuan, 5 eurotan

A. Aranburuzabala ARETXABALETAX
Aretxabaletako Udalak eta BreakOnStage jaialdiak orain dela bost urte abiatu zuten Fun Dantz! kaleko dantzen lehiaketa. Jakin-mina piztu zuen publikoaren artean, ez daude horrelako ekitaldi asko; eta dantzarietara ere gustatu zitzaizkien, Bilboko jaialdi ezagunerako txartela lortzeko aukera dago eta Aretxabaletakoan. Gaur egun "erreferente" bilakatu dela dio BreakOnStage jaialdiko kide Ander Garaizabalek: "Gero eta jaialdi gehiago egiten dira; dantzariek egutegi bat markatuta dute, eta Fun Dantz! garrantzitsuenen zerrendan dago".

Publikoaren aldetik ere erantzun ona ari dira jasotzen; horren erakusle da aurre-salmentako txartel guztiak agortu egin direla; hala ere, oraindik badira 100 gehiago: egunean leihatilan salduko dituzte 5 eurotan.

Lehiaketaz gainera, erakustaldia ere izango da; aurten Zaragozatik etorriko dira epaimahaikideen eskutik: "Kanpotik ekartzen ditugu, neutralak izateko. Eskarmentu handikoak dira Resistance Crew, Espainiako talde potentekoak: Marcos Pardo, dantza garaikidean aditua; Ruben Perez, urban dance eta break dance dantzetan aditua;



lazio Fun Dantz! lehiaketako talde irabazlea. IMANOL SORIANO

eta Pitu, hip hop estiloan maisua. Bakarka eta estilo ezberdinak egingo dituzte".

Debagoieneko 50 dantzari

Hamazortzi talde lehiatuko dira bi kategoriatan banatuta: 18:30ean, 15 urtetik beherakoak hasiko dira; eta 19:00etan, helduak. Aurten, lehiatzeko estiloa kaleko dantza da, eta bi kategorietan sari bera dute: Bilboko jaialdirako txartela eta dirutan oparia ere bai.

Zortzi talde izango dira lehenengo multzoan, eta horien

artearen Bergarako Candem Town akademiako lau talde. Honela azaldu du Olmar Elejaga zuzendariak: "Bergarakoak dira gehienak, baina Aretxabaletakoak, Oñatikoak, Arrasatekoak eta Eskoriatzako ere badaude, eta baita Elgoibarko eta Eibarkoak ere; gehienbat, 10 eta 30 urte bitarteko neskek, baina helduen talde bat ere badugu. Iazkoa oso esperientzia polita izan zen".

Helduen artean puntako hamar talde izango direla gaineratu du Garaizabalek: "Polita dator, gero eta maila hobea dago".



OLMAR ELEJAGA

"Presio barik, goatzera goaz bihar"

OLMAR ELEJAGA CANDEM
TOWN AKADEMIA

Bergarako Candem Town akademiak prestatu dituen lau dantza taldek hartuko dute parte lehiaketan.

Zer prestatu duzue?

Oinarrrian, kaleko dantzak dira guztiak, baina talde bakoitzak bere ezaugarriak ditu; adibidez, kabaret dantza ere erakutsiko du talde batek, eta 90eko hamarkadako dantzetatik hurbil dago beste bat.

Ze asmekin zoazte?

Ondo pasatzera goaz, inolako presio barik.

Garrantzitsua da Fun Dantz! lehiaketa?

Primerakoa da. Eskertzen da horrelako erakustaldiak Debagoienean ere egitea.

Beste dantza lehiaketa batzuetara ere joaten zarete?

Bai; etzi, domeka, Orion izango gara, eta maiatzean Bilbon egingo duten The Zant lehiaketan, eta ondoren, Burgosen.

Abiatu dute denboraldiko azken Kooltur eskaintza

Apirilaren 11ra bitartean bost emanaldi egingo dituzte; datorren astean, AEBetako Baby Shakes

A. Aranburuzabala ARRASATE

Aste Santuko oporren aurretik borobilduko du Kooltur Ekintza taldeak bederatzigarren egue-netako musika egitaraua.

Aurrez Arrasateko gaztetxea ezagutzen zuen Madrilgo Rude Pride izan zen atzo, eta datorren egunean, European biran ari den Baby Shakes laukotea igoko da agertokira. "Orain dela hamar urte sortutako taldea da, hiru neska mikrofonoaren aurrean, eta mutil bat baterian. Rock gitarreroa; Ramones taldea gogora ekartzen duena", azaldu du taldeko Iker Barandiaranek, eta zera gaineratu: "Kartel atzerri-tarra atera zaigu, baina egiten dizkiguten eskaintzei tokia egiten saiatzen gara, eta martxoko azkenekoan ere musikari amerikarrak izango dira: Javier Escovedo & The City Lights". Horien bien artean, Skasti taldearen kontzertua izango da, martxoaren 21ean, eta apirilean, Madrilgo Ira eta Kataluniako Crim, hurrenez hurren.

Denboraldia bukatuta, soinu-mahaia desmuntatu eta beharrezko txukunketak egingo dizkiote: "Bukaerarako luze joaten da, lan asko dago atzean, eta bestelako lanak egiteko ere denbora behar da".

M8: BIZITZA ETA ZAINTZA LANAK ERDIGUNEAN

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA
MARTXOAREN BAN, EGUBAKOITZEAN, 22:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Aramaioko bertsolariak biharko finalerdian

Manex Agirre, Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa, Peru Abarrategi eta Aitor Ugarte aramaiorak lehiatuko dira Baranbioko Serapio Lopezekin batera bihar, zapatua, Legutioko kultura etxean 17:30ean jokatuko den Arabako Bertso Txapelketako saioan

A. Aranburuzabala ARAMAIO

Otsailaren 9an abiatu zuten Arabako Bertsolari Txapelketa hamazortzi bertsolariarekin; hiru final-laurden jokatuta -Araian, Zigoitian eta Aramaion-, bigarren faseari ekingo diete bihar, zapatua, Legution.

Bi saiotan banatuta, hamabi bertsolari lehiatuko dira martxoaren 30ean Gasteizko Principal antzokian izango den finalerako txartelak lortzeko. Aramaiokei sei bertsolari sailkatu dira finalerdietarako; biharkoan, Legution, eskola bereko bost bertsolari kantatuko dute, eta martxoaren 16an Dulantziko saioan izango da Paula Amilburu. "Eskola berekoak badira ere, adin eta ibilbide ezberdinekoak dira; biharko saioan, esaterako, 2015eko Arabako txapelketa Manex Agirre izango da, baina baita Arabako txapelketa nagusian lehen aldiz parte hartuko duen Aitor Ugarte ere. Bi kanporaketan puntu gehien lortzen dituzten sei bertsolariak lehiatuko dute finala", azaldu du Arabako Bertsozale Elkarteak kide Uxue Diaz de Zerikok.

Aramaiokoa, "eskola sendoa"

90eko hamarkadan sortutako eskola gaur egun Araban "erreferentzia" dela dio Diaz de Zerikok:



Xabi Igoa eta Andere Arriolabengoa, Aramaion jokatutako final-laurdenean. I. S.

"Askotan elkartzen dira, eta entitatea du eskolak, Araban, eta herrian bertan ere bai".

Arabako txapelketa Oihane Perea ere iritzi berekoa da, eta honela gogoratzen ditu Aramaio eskolaren hastapenak: "17 urte besterik ez nuen han irakasle lanetan hasi nintzenez. Maitasun handiarekin gogoratzen dut garai hura, elkar deskubritu genuen, eta, harrezkero, ikasle zirenak bertso-kide eta lagun min ditut. Baldintza egokiak zeuden eskola martxan jartzeko, eta hasieratik izan genuen he-

rritarren babesa. Uste dut eskola mugarrira izan zela Aramaio Araban gehiago txertatzeko".

Sarrerak eskuragarri

Biharko saioa 17:30ean hasiko da, eta ordu erdi lehenago eros daitezke leihatilan sarrerak: zortzi eurotan txartel arrunta eta sei eurotan bazkideenak; 16 urtetik beherakoek doan dute.

Salgai daude, era berean, finalerako sarrerak Principal antzokiko atarian: 15 eurotan helduentzako eta 5 eurotan 16 urtetik beherakoentzako.

Kimuak katalogo berrian parte hartzeko deialdia zabaldu dute

lazko ekainetik aurrera egindako film laburrak izatea da baldintza; informazio gehiago, 'Kimuak.com' atarian

A. A. ARRASATE

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Etxepare Euskal Institutuaren bitartez eta Euskadiko Filmategia Fundazioaren laguntzarekin antolatutako programa da Kimuak, eta euskal film la-

burren sustapena eta banaketa dauka helburu. Urtero katalogo bat argitaratzen dute eta datorren urtekoa osatzeko lanak jaso gura dituzte. Maiatzaren 24a da lanak bidaltzeko azken eguna; *Kimuak.com* atarian dago informazioa.

Aurtengo katalogoan, zazpi film labur daude, eta horien artean dago Arrasateko Iban Del Campo zinemagileak zuzendu duen *Espedizio handia*, zientzia fikziozkoa. "Sorta horrek Donostia Zinemaldian hasi zuen ibilbidea, eta, harrezkero, 109 aukeraketa eta hamahiru sari eskuratu ditu, guztira; besteak beste, Rotterdamen (Herbehereak), Zinebi jaialdian, Euskal Zinema Bileran eta Aguilar del Campon eskaini ditugu filmak", diote ekimenaren bultzatzaileek.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko martxo sariak!



SPC Heaven
10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Korrikako materiala

Korrikako materiala
Parte hartzeko sariaren izena: Korrika

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. **ARRIKUTZ**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremantxandea.org
Bidezko Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarregia LFP 151000 egunetako, gurekin dagoen den jantziak faze Korrika Zirkularreko egunetako lehen saioa dela. Saio bakoitzeko lehen saioa izango da gurekin dagoen jantziak. Eskubide oraindik ez duen saioa, lehen saioa izango da. Hala ere, lehen saioa izango da. kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

LASA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05 kluba@goiena.eus



KLUBA Jafetrea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

'Izaki Gardenak' kontzerturako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amsia Antzokia | Martxoaren 17an | 19:30ean

Bergarako Udaleri esker

